# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2015-06-05
EGUBAKOITZA
642. ZENBAKIA
15. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM

## Euskal Herriko atleta onenak Oñatiko Herri Lasterketan, zapatuan | 26

## Kirola kalera aterako dute Aretxabaletan eta Bergaran asteburuan | 16 eta 21

Oñatiko aztarnategiak euskal kultura ondarearen zerrendan | 9



Goienaren aurkako pintaketen aurrean, elkartasun mezuak | 3



Azoka, ikuskizunak, txapel jaurtiketa eta beste, Eskoriatzako Ferixien | 22



## Erritua erritual Oñatin

Mendeetako tradizioa beteko dute domekan | 17

Josu Amondarain, Idoia Moiua, Antonio Bikuña eta Miren Lore Agirregomezkorta, Santa Ana komentu kanpoan; komentu horretan gordetzen dituzte San Migelen irudia eta gainontzekoak. | J. DOMINGO

# Lan bila dabiltzanei bidea errazteko: Lanbai azoka

- Ekainaren 11n egingo dute, hirugarrenez Arrasaten
- 37 enpresatan curriculumak aurkeztu ahalko dira | 5

## SINADURAK

IDOIA PEÑAKOBA | 6
6 | MIREIA BIKUÑA
ITSASO ERRETOLATZA | 12
16 | ANDER BOLIBAR
MARINA ETXEGOIEN | 18
22 | MARISOL ANDRADE
IDOIA ETXEBERRIA | 40

DEBAGOIENA 3 | IRITZIA 6 | HERRIAK 9 | KIROLA 26 | KULTURA 30 | ZURE IRAGARKIAK 34 | ZORION-AGURRAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 36 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38




ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Eneko Balerdio dantzariarekin solasean
- Kirol proba esanguratsuak egitera nazioartera

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05




EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN
24. JAIA
ELGOIBARREN
2015eko
EKAINAREN 7an
www.euskaleskolapublikoarenjaia.org
Euskal Eskola Publikoaren Jaia
ehige
GUSTATZEN
JATA, JAKU
EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA
HERRI KIROLAK TXIKIENTZAT: sokatira, lokotxak, zakuak...
ROKODROMOA - FUTBOLIN HANDIA
Pirritx, Porrotx eta Mari Motots
PUZGARRIAK
Malabaristak, Zankudoak, Baloiak, Tailerrak
Kontzertuak: LAUROBA / 22m2
Erlauntza eta gazta tailerrak
goieskola
debagoieneko euskal eskola publikoa
Aramaio S. Martin HE
Arrasate Herri Eskola
Arrasate BHI
Arrasate HHI-EPA
Eskoriatza Luis Ezeiza HE
Aretxabaleta Kurtzebarri HE
Aretxabaleta Kurtzebarri BHI
Antzuola Herri Eskola
Elgeta Herri Eskola
Bergara San Martin HE
Bergara Ipintza BHI
Bergara HHI- EPA
Oñati Errekalde HE
Oñati Zuazola-Larraña BHI



Debagoieneko EH Bilduko alkategaiak eta ordezkariak. | GOIATZ ARANA

# Eskualdeko emaitzak "are eta kaxkarragoak" dira

## Hala onartu du Debagoieneko EH Bilduk hauteskunde ondoko balorazioan

**JON BEREZIBAR** | DEBAGOIENA

Bizkaian eta Gipuzkoan "emaitza kaxkarrak" eskuratu dituztela aitortu zuten eguazten iluntzeko prentsaurrekoan; areago, etxean: "Debagoienean emaitza hauek are eta kaxkarragoak dira, hainbat udal eta Mankomunitateko gobernua eskuinaren esku, EAJren esku, gelditidko direlarik", nabarmendu zutenez. Halaber, EH Bilduk berresten du euren "proiektu politiko eta soziala behar-beharrezkoa" dela "herritarrak hobeto bizitzeko".

Horren harira, Debagoienean "lan handia eta ona" egiten zihardutela diote, "herritarren bizi-baldintzak hobetzeko, herri atsegin eta biziak izateko, euskarari eta gure kulturari bultzada emateko". Datorkeen aldaketaren aurrean, "zoritzarrez" diote EH Bilduko Debagoieneko alkategaiek, "beldur" ei dira "gobernu berriek burujabetza eta eraldaketa sozialaren bidea oztopatuko" ez ote duten. "Herritarrengandik behar bezain gertu" egon ez izana ere onartzen dute.

### Autokritikarako hitzorduak

Esker adierazpenetarako tartea ere izan zuten agerraldian. Hego Euskal Herrian eskuratutako 308.000 botoak aipatuta, Araban eta "batez ere" Nafarroan lortutako emaitzak "oso txukunak" izan direla azpimarratu zuten eta agindu "eskuin espainiarzalea oposiziora bidali eta aldaketa politiko nahiz soziala bultzatzeko erabiliko" dituztela boto horiek. Araban eta Nafarroan soilik ez; gurean, Oñatin, Antzuolan eta Elgetan, "EH Bilduren ideiek, proiektuak eta gestioak babes zabala" jaso dutela ere nabarmendu gura izan zuten prentsaurrekoan.

Eguaztenekoa "lehen balorazio" moduan aurkeztu zuten alkategaiek eta iragarri zuten gogoetarekin segituko dutela herririk herri, batzar irekietan "azterketa sakona eta autokritika" egiten; EH Bildu "ezkertiar, progresista eta independentisten bilgune" bilaka dadin. Datak, hauek: Oñati: ekainak 10, 18:30ean Bidebarrietako erabilera askotariko gelan; Bergara: ekainak 10, eguaztena, 19:00etan, Irizar jauregian; Eskoriatza: ekainak 9, 19:00etan, Kultur Etxean; Arrasate: datorren astean, eguna finkatzeko; Antzuola: ekainak 17, 18:30ean, Olaranen. Elgetan eta Aretxabaletan, berriz, atzo (eguena) egin zituzten.

# Elkartasun mezu ugari Goienaren aurkako pintaketak direla-eta

**GOIENA** | DEBAGOIENA

Goiena Komunikazio Taldearen egoitzaren aurrealdean pintaketak agertu ziren atzo (eguena) goizean. Goiena eta, zehazki, Goienako zuzendaritza EAJrekin lotzen dituen pintaketak, ate eta fatxada aurrealdean: *PNVren morroiak* bezalakoak. Horiekin batera, baita *Errauskailurik ez* modukoak ere. Gertaera salatu dute Hekimen eta Tokikom elkarteek, Euskal Kazetarien Elkarteak eta Kazetarien Euskal Elkargoak ere. Debagoieneko EH Bilduk eta EAJk ere bai.

### "Prentsa askatasunaren kontra"

Eraso horren aurrean Goienako langileek adierazi dute Goienak herritar "guztiendako" informatzen duela, "ikuspuntu guztietatik"; "halaxe saiatu gara egiten Goienaren sorreratik eta halaxe egiten jarraituko dugu aurrerantzean ere". (Testu osoa 8. orrian)

Bestalde, gertaerak oihartzun handia izan du, bereziki sare sozialetan eta euskarazko hedabideetan, eta elkartasun mezu ugari jaso ditu Debagoieneko euskarazko hedabideak. Elkartasun mezu horiengatik guztiengatik "eskerrak" eman nahi dizkie Goienako langileek bidaltzaile "guzti-guztiei".

Elkartasun mezuotan, besteak beste, Debagoieneko komunikazio taldeari babesa adierazteaz gainera, salatu dute "prentsa askatasunaren kontra bete-betean" egindako erasoa dela; tokiko informazioa "euskaratik eta euskaraz lantzea xede duten euskarazko toki hedabideen kontra" egiten duenak, "xede horren kontra" egiten duela; "komunikabide horretan lan egiten duten profesionalen kontrako bortxaketa" dela, "Debagoiena euskalduna lortzeko lan oso garrantzitsua" egiten duela Goienak; eraso hauek "debagoiendar guztiak kaltetzen" dituztela… Xehetasunak: *http://ttiki.com/339890* helbidean; eta 6. eta 7. orrietan.




Pintaketa bat, egoitzaren sarrerako atean. | SERGIO AZKARATE

# Candyrendako azken aukera aurkeztu diete egunotan

## Elkarren artean osagarri diren bi proiektu aurkeztu dizkiete, euskalduna bata eta atzerritarra bestea

**UBANE MADERA** | BERGARA

Bergarako Errekalde jauregian batzartu ziren atzo (eguena) Candyren Bergarako plantan jarduera abiarazteko aukera ikusi duten eta elkarren artean osagarri diren bi enpresetako, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Candyko Enpresa Batzordea osatzen duten bost sindikatuetako ordezkariak (ESK, LAB, ELA, CCOO eta UGT). 11:00etan izan zuten enpresetako baten ordezkariekin batzar bat eta 12:30ean bestea, bigarrenarekin.

Gauza bera egingo dute gaur (egubakoitza) Candyren plantan lanean jarraitu gurako luketen Candyko 70 langile ohiekin.

"Proiektuetako bat atzerritarra da, eta bestea, berriz, euskalduna. Baina biak dira elkarren artean osagarri. Izan ere, Candyko 70 langile ohi guztiendako lanpostuak bermatzeko, ezinbestean bi proiektuekin aurrera egitea onartu beharko lukete langileek", jakinarazi diote Goienari Gipuzkoako Foru Aldundiko iturriek.

Bertatik gaineratutakoaren arabera, Errekalde jauregira bertara ekarri dute asteon balizko produktua. Hau da, proposatutako jarduerarekin aurrera eginez gero landu beharko luketen produktua ikusgai dute inplikatuek.




Candyko langileak maiatzean, azken lanak egiten. GOIENA

### Ekaina amaitzen denerako

Azalpen eta proposamen guztiak jasota, Diputazioak kalkulatzen du hamabost bat egun beharko dituztela langileek eta haien batzordeak aurkeztutako proiektua onartuko duten edo ez erabakitzeko.

Era berean, proiektuari onespena emanez gero, Gipuzkoako erakunde nagusiak nahiko luke agintaldia bukatu baino lehen proiektua bideratuta lagatzea –ekainaren azkeneko astean izango da, ezustekorik ezean, Diputazioko agintari berrien kargu-hartze ekitaldia–: "Hasierako bultzada eman eta gero bere kabuz funtzionatzeko modua izango luke", esplikatu dute Foru Aldunditik.

# Antzuola eta Bergara arteko errepidea

**U.M.** | DEBAGOIENA

Beasain-Durango errepideko Gipuzkoako azken zatiaren lanak, Deskarga eta Bergara artekoak, hasi arte itxoin barik, Bergara eta Antzuola arteko errepide zaharreko ezpondetako bat konpontzeko lanak aurreratzea erabaki du Gipuzkoako Diputazioak oraingo astean, ingurua egonkortzeko. Hain justu, premiaz, martitzenean onartu zuen Gipuzkoako Diputatuen Kontseiluak lanok egiteko proiektua; eta baita ere lanok esleitzeko gehienezko aurrekontua 3.280.481 eurokoa izango dela (BEZa barne). Asmoa da uztaileko lehen hamabostaldian hastea lanak, eta bukatzeko, berriz, sei hilabeteko epea ezarri dute.

# Eguenean zabalduko dute Ereindajan denda-topagunea

## Arrasateko Nafarroa etorbidean egokitu dute bertako eta sasoiko produktuak merkaturatzeko kokagunea

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA
Debagoienean ekoiztutako berdurak, esnekiak, frutak, ogia, sagardoa, gozoak, Jakionen produktuak… eta kanpotik –Nafarroatik, besteak beste– ekarritako lekaleak, zerealak, pastak, esnea, jogurtak, olio ekologikoa… erosi ahalko dira eguenean, ekainaren 11n, 18:30ean, Arrasaten zabalduko duten Ereindajan denda-topagunean. "Ideia da eguneroko kontsumorako oinarrizko elikagaiak eskuratzeko aukera ematea herritarrei, Ereindajan ekoizle eta kontsumitzaile elkartearen filosofian oinarrituta: bertakoa eta sasoikoa prezio duinetan kontsumitzea, tokiko ekonomia eta lehenengo sektorea bultzatuz", esplikatu dute elkarteko arduradunek.

Tokiko ekonomian produzitzen ez diren elikagaiak, berriz, bidezko merkataritzan oinarritutako produktuak baliatuta eskainiko dituzte: "Azukrea, kafea, txokolatearen deribatuak… Harreman erakundearen bitartez eskuratuko ditugu", azaldu dute.


Ereindajan elkarteko kide batzuk, egokitu duten denda-topagunean. | U. MADERA

**Enbase barik**
Beraz, Arrasateko denda-topagunean "batez ere elikadurarekin lotutako produktuak erosi ahalko dira, eta garbiketarekin lotutako batzuk ere bai, baina horrelakoak gutxi izango dira. Bestalde, produktu gehienak soltean saldu nahi ditugu, produktuak enbasatzen sortzen diren hondakinak ahalik eta gehien murrizteko", gaineratu dute.

Produktu horiei ezarri beharreko prezioei dagokienez, horren gainean ere hausnartu dute Ereindajan elkartekoek: "Gura dugu salmenta preziotik kopururik handiena ekoizlearendako izatea, eta marjina horretatik apurtxo bat elkartearendako; edozein modutan, elkartea irabazi asmo bakoa denez, azken hori ez da handia izango. Kontsumitzaileari prezio duinak eskaini nahi dizkiogu. Nahiz eta, hori bai, jakin badakigun modu arduratsuagoan ekoizten diren produktu hauekin ezingo dugula saltoki handiekin lehiatu", diote.

**Bazkide egiteko aukera**
Ereindajan elkartea hiru bazkide motak osatzen dute: kontsumitzaile bazkideek, ekoizle bazkideek eta bazkide laguntzaileek; edozelan ere, bazkide ez direnendako ere zabalik egongo da Nafarroa etorbideko denda-topagunea. "Bazkide diren kontsumitzaileek abantailak izango dituzte, beherapenak, produktu batzuk merkeago erosteko aukera…", azaldu dute elkartekoek. Eta, jakina, edozeinek izango du bazkide kontsumitzaile egiteko bidea zabalik: 688 63 49 19 edo *ereindajan@bagara.net*.

Denda-topagunearen ordutegia zehazteke dute; hori bai, zehaztu dute bi lagun izango direla bertan bezeroei arreta ematen. Bestalde, iragarri dute inaugurazioaren aurretik, eguaztenean, aurkezpen-hitzaldia egingo dutela, Jakoba Errekondorekin, 19:00etan, Kulturateko areto nagusian.

Ereindajan denda-topagunea orain dela gutxira arte Emaus fundazioak zuen saltokian egokitu dute –ospitale parean–; lanik handienak auzolanean eta Arizmendi Ikastolako Lanbide Hastapeneko ikasleekin egin dituzte.

# Ekainaren 12an ospatuko dugu Ikastolaren Eguna

**KOMUNITATEA GOIENA** | ARIZMENDI IKASTOLA | DEBAGOIENA

Ikastolaren Eguna Biteri plazan egingo dugu aurten ere, ekainaren 12an. 17:30ean hasiko da, txalapartarekin eta ikastolako bertsolari gazteekin. Ordu berean, hasiko dira tailerrak, puzgarriak eta txosnak. Ikasleen trikitilari talde batek girotuko du jaia taulako ekintzak hasi bitartean. Bertan, 18:00etan ikastolako kideez osatutako musika taldeak jardungo du. Ondoren Argitxori ongietorria egingo diote eta Maider Altzelai amak ipuin kontaketa eskainiko du. Ordu berean, Lehen Hezkuntzakoek olinpiadak egingo dituzte Zaldibarren. Bitartean, taula inguruan Santa Teresa, Arimazubi eta Gazteluondoko ikasleen saioa izango da, eta amaieran, AZ Gaubelak taldearena. Berritasunak ere izango dira: 20:00etan Txorbela otxoteak kontzertua egingo du San Frantzisko elizan; tonbola jarriko dugu Biterin Kaskarotenea Ikastolaren alde eta Arizmendiko abesbatzak Tuterako ikasleen abesbatzarekin saioa egingo du Monte parean.

# Urte hasieran baino 186 langabe gutxiago daude Debagoienean

## %15,11rekin Arrasatek jarraitzen du izaten tasarik altuena, 1.566 lagun

**J.BEREZIBAR/M.ALTUBE** | ARRASATE
Maiatzeko langabezia datuek beheraldia berretsi dute. Debagoienean %11,95ekoa izan zen langabezia tasa maiatzean; 3.562 langabe hain zuzen. Herriz herri tasarik altuena Arrasatek jarraitzen du izaten 1.566 lagunekin, %15,11; Debagoieneko kopuru osoaren ia erdia, hain zuzen ere. Eta Leintz Gatzagan jaitsi da gehien, 3,71 puntu urtarriletik hona.

**Bergaran jaitsi da gutxien**
Urtarriletik 0,53 puntu jaitsi da langabezia tasa Arrasaten; honenbestez 54 langabe gutxiago daude. Bergara da tasa gutxien jaitsi den Debagoieneko herria, 0,13 puntu; eta bederatzi langabek bakarrik topatu dute lana.

Oñatik 418 langabe ditu, urtarrilean baino 37 gutxiago, hortaz, 0,71 puntu egin du behera azken bost hilabeteotan. Eta Antzuolan ere behera 0,46 puntu.

Gainerako herrietan datuak hobeak izan dira eta langabeziak puntu bat baino gehiago egin du behera. Aretxabaletan, 1,42: %10,35etik % 8,93ra; Eskoriatzan, 1,1: %12,96tik %11,88ra; Elgetan, 1,11: %10,52tik %9,41era; eta Leintz Gatzagan gehien, 3,71: %8,15etik %4,44ra. Hala, sei langaberekin Debagoieneko herririk txikienak jarraitzen du langabezia tasa baxuena izaten maiatzean ere.

### HERRIZ HERRI

| HERRIA | LANGABEAK | EHUNEKOA |
|---|---|---|
| Antzuola | 84 | %7,70 |
| Aretxabaleta | 302 | %8,93 |
| Arrasate | 1.566 | %15,11 |
| Bergara | 893 | %12,73 |
| Elgeta | 51 | %9,41 |
| Eskoriatza | 242 | %11,88 |
| Leintz Gatzaga | 6 | %4,44 |
| Oñati | 418 | %7,96 |
| GUZTIRA | 3.562 | %11,95 |

ITURRIA: ESPAINIAKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

JARDUNALDIA:
"LANGILEEN PARTAIDETZA ENPRESETAN:
LANGILEEN ESPERIENTZIAK ETA BIZIPENAK BERAIEN AHOTIK."
Nori zuzenduta:
Langile edo pertsona indibidualei, partaidetza ezagutzeko eta praktikan jartzeko bideak ezagutu nahi duen orori.
Data: Ekainak 10, asteazkena
Ordua: 18:00
Tokia: Debagoieneko Mankomunitatea.
Hizkuntza: gazteleraz
www.debagoiena.eus
934 79 30 90
Gipuzkoako Foru Aldundia · Gipuzkoa ekintzailea · Debagoieneko Mankomunitatea · mik


GOIENA paperak mahai gainean. | MIRARI ALTUBE

# 7.000 irakurle irabazi ditu astero GOIENA paperak Debagoienean

**ENEKO AZKARATE** | ARRASATE
Gora egin du Goienako hedabideen audientziak. Gorakadarik handiena *Goiena.eus*-ek izan du, %90ekoa Google analytics-en arabera, eta 7.000 bisitaldi ditu egunero. GOIENA paperak ere gora egin du CIESen azken neurketaren arabera: 36.000 irakurle ditu astero eskualdean eta 41.000 Gipuzkoan. Goiena telebistak, azkenik, 6.000 ikus-entzule ditu egunero eta behera egin du iazko neurketarekin alderatuta.

**5.000 gehiago Gipuzkoan**
Nabarmen egin du gora GOIENA paperak, batez ere kontuan hartuta papereko euskarrien, bereziki egunkarien, etengabeko krisialdi eta irakurle jaitsieraren testuinguruan. 2014an CIESek egindako neurketarekiko 7.000 irakurle irabazi ditu astero Debagoienean eta 5.000 Gipuzkoan.

Hazkunde handiena *Goiena.eus*-ek izan du, aurtengo lehen bost hilabeteak iazkoekin alderatuz gero. Bisitaldiei dagokienez, %91,30ekoa.

Telebistak, ostera, behera egin du CIESen 2014ko udazkeneko neurketarekiko; 1.000 ikus-entzule galdu ditu. Baina gora egin du, 1.000 irabaziz, iazko maiatzeko neurketarekiko.

# Inguruko 37 enpresatan curriculuma uzteko aukera izango da Lanbain

## MUk eta Arrasateko Udalak antolatu dute enplegu eta formazio azoka

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Ekainaren 11n izango da III. Lanbai enplegu eta formazio azoka, Mondragon Unibertsitateak eta Arrasateko Udalak antolatuta. Aurreko urteetan bezala, aurten ere MUk Garaia gunean daukan eraikinean izango da, 15:00etatik 19:00etara. Helburua da lan bila dauden edo goi mailako formazioa hartu nahi duten guztiei horretarako erraztasunak ematea.

Azokak lau gune izango ditu: batetik, formazio gunea, MUren eskaintza azaltzeko. Bestetik, lan-poltsaren eta beken gunea: Lanbide, MUren lan-poltsa eta ikasle ohien elkartea, Novia Salcedo fundazioa, Arrasateko Udala eta Mankomunitatea bertan ordezkatuta egongo dira, enpleguaren inguruko laguntzen eta programen berri ematen. Hirugarrenik, enpresen eremua izango da, eta hor, bi gune egongo dira: gune librea bisitari guztiendako, eta hor 37 enpresa izango dira curriculumak jasotzen. Norberak nahi beste enpresatan utzi ahal izango du curriculuma. Debagoieneko eta inguruko enpresa garrantzitsuenetariko asko han izango dira. Bestetik, elkarrizketa gunea izango da, MUko ikasleendako eta ikasle ohiendako bakarrik, eta aurrez hitzordua egin badute. Hori eskatzeko mugaeguna ekainaren 7a da.



Elkarrizketen gunea, iazko Lanbai azokan. | MIRARI ALTUBE

### Tailerretan lekua dago

Azoka aurreko egunetan, hiru tailer izango dira. Leku-kopuru mugatua dago, baina, edizio hau ixteko unean, oraindik bazegoen tokia hiruretan ere. Ekainaren 9an, martitzena, goizean, lan-bilaketa eraginkorra izateko curriculumak duen garrantziaz jardungo dute. Martitzen arratsaldean, *on-line* erreputazioaren gaineko tailerra emango dute. Eta ekainaren 10ean, lan-merkatuan arrakasta izateko konpetentzien garrantziaz jardungo dute; horretan hiru lagunendako tokia dago. Edozeinetan izena emateko, mezua bidali behar da *sazpilikueta@mondragon.edu* helbidera, norberaren datuekin eta aukeratutako tailerraren izenarekin.

MUk tailerretan parte hartzera animatzen du: "Curriculuma lagatzeko asmoa duen horrendako interesgarria da horien gaineko tailerrean parte hartzea eta, gaur egun nola egiten diren eta ze baloratzen den ikasi ondoren, azokara joan eta curriculuma enpresei uztea; bestalde, enpresek gero eta gehiago begiratzen dute sarean nor den curriculuma utzi duen hori eta, beraz, *on line* ospea zaintzea garrantzitsua da; eta elkarrizketak egiteko, norberaren konpetentziak indartzen ikastea ere oso interesgarria da".

**SUSANA AZPILIKUETA**
MU-KO ORDEZKARIA

### "Kontratuak egin dira iazko kontaktuetatik abiatuta"



GOIENA

**37 enpresa izango dira Lanbain.**
Bai, eta aparteko aukera du bailarako eta inguruko jendeak arratsalde baten, toki bakar baten, era askotako 37 enpresarekin egoteko. Aprobetxatzeko moduko aukera da, kontuan hartuz bestela norberak egin behar duen ahalegina.

**Iaz azokara joan zirenen jarraipenik egin duzue?**
Oso zaila da hori egitea, enpresek ez dutelako unean kontratua egiten, urtean zehar baizik. Jakin badakigu kontratuak egin direla azokatik pasa den jendeak utzi dituen curriculumen ondorioz, baina ezin dugu esan zuzenean azokarengatik izan den edo ez.

**Udal Gobernua aldatu egingo da. Berriarekin batera antolatuko duzue Lanbai?**
Ateak zabalik ditugu askotariko erakundeekin elkarlana egiteko, bai.

# Galeren %30 euren gain hartuko dute Eroskiko bazkideek

## Hilaren 17ko batzar orokorrean, 56,8 milioiko galerak bazkideei egoztea proposatuko da, bigarren urtez

**L.K.** | ARRASATE

Eroski kooperatibak bazkideei proposatuko die azken ekitaldiko emaitza negatiboak neurri baten euren gain hartzea, horretarako iaz sortu zen erreserba negatibo indibidualizatu baten (bazkide bakoitzak duen kontu berezi bat). Kasu honetan, 56,8 milioi euroko galerak Eroskiren bazkideei egotziko zaizkie, ekainaren 17an batzar orokorrak horrela onartzen badu. Eroskik 280 milioiko galerak izan zituen 2014an.

Galera horietatik 216 milioi inguru kooperatiba nagusiari dagozkio, eta modu honetara banatzea proposatuko zaie bazkideei: 64,8 milioi Eroskiren derrigorrezko erreserba fondoaren kargura; 104 milioi Eroskiren borondatezko erreserba fondo baten kargura –biak kooperatibaren kargura, beraz–; eta 56,8 milioi (galeren %30), lan-bazkideen erreserba negatibo indibidualizatuaren kontura.

Irizpide hori jarraitu izan da kooperatibak balantze positiboak izan dituen ekitaldietan ere, hau da, irabaziak ere bazkideei egotzi izan zaizkie, orain galera moduan. Iaz egin zen galeren halako lehenengo banaketa.

### 90 milioiko emaitza positiboa

2014an, emaitza operatiboa positiboa izan da: 90 milioi, banaketa negozioa ondo doan seinale. 6.106 milioi euroko fakturazioa izan zuen, aurreko ekitaldian baino %2 gutxiago, eta bere Ebitda "egonkor" mantendu zen, 234 milioi gainditzuz.

256 milioi zuzkiduretarako (dotazioetarako) erabili ditu Eroskik; zehazki, aktiboak saneatzeko eta horien balioa eguneratzeko erabili du diru hori. "Trantsiziozko ekitaldia da argi eta garbi, balantze saneatuago baterantz daramana", dio Eroskik, eta azpimarratzen du dotazio hori egin behar izatea erabakigarria izan dela 280 milioiko emaitza negatiboa lortzeko.

**DATUA**

**280**

MILIOIKO GALERAK

280 milioi galdu ditu Eroskik, 256 milioiko dotazioak egin eta gero.

# Global Innovation Day foroan izan zen IK4-Ikerlan zentroa

Global Innovation Day delako jardunaldia egin zuten eguaztenean Bilboko Euskalduna jauregian, eta Arrasateko IK4-Ikerlan zentro teknologikoak erakusle gisa parte hartu zuen, Orona, CAF, Fagor Automation eta Fagor Electronicarekin batera garatu dituen produktuak erakusten.

IK4-Ikerlanek azaldu du egun hori aprobetxatu duela bere bezeroekin batera sortu dituen produktuak erakusteko garraioan, igogailuen sektorean eta ekipamendu-ondasunetan. Horretarako, erakusketa-postua izan zuen Euskalduna jauregian.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren partaidetzako aurrekontuak
2.000.000 € Debagoiena hobetzeko
192 proposamen } Eskualdeko batzarrean erabakiko duzue zeintzuk egingo duten aurrera
ARRASATE. EKAINAK 11. 18:30ean, Debagoieneko Mankomunitatearen egoitzan (Nafarroa etorbidea, 17)
Antolatzailea
Zure esku dago!
Gipuzkoa BERRIA



## Pausoka, pausoka, bagoaz aurrera

**Aitor Madina**
(Jose de Azpiazu Musika Eskolako zuzendaria)
Oñati

Joan zen larunbatean Zubikoa pilotalekuan Jose de Azpiazu Musika Eskolak antolatutako jaialdia dela eta, eskerrak eman nahi dizkiegu oñatiarrei, jaialdiari emandako babesagatik.

Jaialdia aurrera eramateko eskaini diguten laguntza eskertu nahi diegu herriko ikastetxeei: Elkar-Heziri, Urgaini eta Txantxiku Ikastolari.

Aldi berean, Bertso Eskolako ikasleei, Oñatz dantza taldeari eta Aita Madina txistulari taldekoei ere, Jose de Azpiazu Musika Eskolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu eskainitako laguntzagatik. Abeslariei ere –Alazne eta Iñaki– mila esker adierazitako ausardiagatik!

Amaitzeko, eskerri asko laguntzaile izan genituen boluntarioei, Jose de Azpiazu Musika Eskolako guraso taldeari eta Natra Zahor enpresari, haurrei banatzeko eman zizkigun txokolatinengatik.

Mila esker guztioi eta hurrengora arte.

Pausoka, pausoka, bagoaz aurrera!

Poliki-poliki betez gure ametsak!

# GUTUNAK

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## Eskerrik asko, Bergarako Erraldoi Taldearen izenean

**Jonander Garitano**
(Bergarako Erraldoi Taldeko lehendakaria)
Bergara

Bergarako Erraldoi Taldeak 15 urte bete ditu aurten. Eta askoz gehiago izatea nahi dugu!

Urteurren hau ospatzeko ahalegin berezia egiten saiatu gara aurtengo Pentekoste jaietan Bergarako Udalarekin batera. Herria girotzeko, zapatu goizean, umeentzako puzgarriak, dultzaineroak, Mikel Ibarzabalen erraldoiak egiteko erakusketa lanak… izan genituen. Arratsaldean, berriz, kalejira Bartzelonako Sant Andreu de Palomar, Iruñeko Txantrea eta Ordiziako erraldoiekin batera.

Lerro hauen bitartez, egunean zehar eta arratsaldeko dantza eta kalejiran gurekin izan zineten denoi, babesa eta laguntza eman diguzuen guztioi gure eskerrik beroenak. Horrek ematen digu indarra urteurren asko izateko. Baita ere eskerrak eman nahi dizkiegu Oilagorra elkarteari, Gorka harategiari eta K-3 inprimategiari zuen babes eta laguntzagatik.

Ezin amaitu Bergarako Udal Bandari aipamen berezia egin barik. Bereziki, Alfredo Gonzalez Chirlaquek *Erraldoien martxa*-ko moldaketa egitegatik eta igandeko kontzertuan abestia plazaratzeaz gain, oparitu zenizkiguten partiturengatik.

Eskerrik asko denoi!

## Zentral nuklearrik gabe bizi gaitezke

**Josu Garitaonandia**
(Oparitu Zuhaitz Bat proiektuaren arduraduna)
Bergara

Interneten bakarrik ikus daitekeen *Oligopoly off* dokumentalak datu ikaragarriak plazaratzen ditu elektrizitate-enpresa handien gainean. Ni gehien mindu nauena izan da 2008rako estatuko zentral nuklear guztiak itxita egon zitezkeela; krisiaren ondoren elektrizitate kontsumoak beherakada galanta jo zuen, eta soberan geneukan elektrizitatea. Ordura arte berriztagarrietan mundu mailan eredua zen sektorearen kontra hartu zuen Espainiako Gobernuak erabakia, elektrizitate-enpresa handi batzuen mesederako.

Europako beste herrialde batzuetan eguzki panelak supermerkatuetan saltzen dituzte, edonork eros ditzake, hozkailu bat erosiko balu bezala. Espainiako erreinuan, berriz, *legeztatu* egin behar duzu eta agiriak egitea gehiago kostatzen da



eguzkiko panela baino. Eta, hori gutxi balitz, zerga baten mehatxua dago berriztagarriak erabiltzen dituztenentzako. Eguzkia erabiltzeagatik zerga, horixe bakarrik behar genuen!

Zuek ere gai honekin mintzen bazarete, nire aholkua da elektrizitatea kooperatiba energetiko batekin kontratatzea. Beste eredu energetiko bat posible da eta gure esku dago.

# Guztiekin, guztiendako

Goienaren egoitzan eguenean agertutako pintaketak direla-eta, zera adierazi nahi dugu Goienako langileok:

Herri ekimenetik sortutako komunikabide euskaltzalea da Goiena Komunikazio Taldea eta euskararen normalizazioa eta Debagoienaren garapena ditu helburu. Herritar guztiendako informatzen du, ikuspuntu guztietatik. Halaxe saiatu gara egiten sorreratik eta halaxe egiten jarraituko dugu aurrerantzean ere.

Elkartasun mezuak bidali dizkiguzuen guzti-guztiei eskerrik asko!

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Miren Arregi** | **Aitor Kaperotxipi** | **Goiatz Arana** | **Amaia Txintxurreta** |
| **Oihana Elortza** | **Monika Montero** | **Mireia Larrañaga** | **Xabi Urtzelai** |
| **Maite Txintxurreta** | **Mireia Bikuña** | **Imanol Elortza** | **Jagoba Domingo** |
| **Jokin Bereziartua** | **Nerea Artola** | **Mirari Altube** | **Aitziber Aranburuzabala** |
| **Josu Bilbao** | **Ane Berezibar** | **Julen Iriondo** | **Arritxu Barruso** |
| **Imanol Beloki** | **Agurtzane Gaintzarain** | **Ziortza Martin** | **Oihane Agirre** |
| **Larraitz Zeberio** | **Iratxe Bengoa** | **Imanol Soriano** | **Txomin Madina** |
| **Oihane Isasi** | **Jon Berezibar** | **Eneko Azkarate** | **Ander Larrañaga** |
| **Jone Inuntziaga** | **Sergio Azkarate** | **Iban Arantzabal** | **Miren Ibabe** |
| **Ubane Madera** | **Iñaki Iturbe** | **Amaia Mundiñano** | **Maialen Torres** |
| **Andoni Goiti** | **Leire Kortabarria** | **Monika Belastegi** | **Kepa Martelo** |
| **Marta Leturia** | **Maider Arregi** | **Arantzazu Ezkibel** | |

## Eskerrik asko, Zigor!

**Unai Bengoa eta Ibai Zangitu**
Aretxabaleta

Azkenengo lau urtietan gurekin eta guk parte hartu dogun herriko kultur talde desberdiñen alde lan egitteko erakutsi dozun jarreria eskertu gure dogu.

Edozein egunetan eta edozein ordutan telefonua eskura eta laguntzeko prest egon zara, borondate onenakin beti. Horregatik, eta larregi luzatu barik, eskerrik asko, Zigor Kintanilla.

## Esku-eskura izan du Giroa

**Mikel Arantzabal**
Eibar

Azken-aurreko etapan, Finestre buruan pasatu ostean eta Contadorren txakalaldiaren berri izanda, bere burua Giroko irabazle ikusten zuen, baina taldeak, Astanak, ez. Aru italiarraren mesedetan egin du guztia Kazakhstango taldeak.

Horrenbestez, onenak irabazi du? Indartsuenak irabazi du? Nire ustez, ez.

Tira, Espainiako Vueltan taldeko liderra izango da, eta orduan izango du itzuli handi bat irabazteko aukera. Edo errealitatera bueltatzekoa...

## Goienarekin elkartasuna

**Ibai Redondo**
(Debagoieneko EHBildu)
Debagoiena

Gaur gauean [eguena] Goiena Komunikabideko egoitza nagusian *Goiena=PNV* hitzekin hainbat margoketa agertu direla eta, ondokoa adierazi nahi du Debagoieneko EH Bilduk.

-Formak. Edozeinek du kritika politiko eta adierazpen askatasunerako eskubidea, baina euskarazko komunikabide baten egoitzan margoketak egitea eraso gisa ulertzen dugu eta horregatik irmo salatzen dugu gertatutakoa.

-Edukiak. *PNV=Goiena.* Kritika injustua iruditzen zaigu. EH Bilduk, gainontzeko alderdi politiko eta eragile sozialek bezala, Goienarekin harreman iraunkorra, errespetu osokoa eta abegikorra du. Jakin badakigu Debagoieneko errealitate guztiak bere aniztasun osoan eta modu objektiboan zabaltzen saiatzen direla.

-Elkartasuna. EH Bilduk elkartasun osoa eta sentitua adierazi nahi dizue Goienako langile guztiei eta zuzendaritzari.

-Babesa. Beste hainbatetan, publikoki eta modu pribatuan adierazi dugun bezala edo indartsuago adierazi nahi dizuegu Goienaren proiektuak EH Bilduren babesa duela.  Gure aburuz, Goienak Debagoien euskalduna lortzeko lan oso garrantzitsua egiten du eta euskaldunon hizkuntz komunitateak euskaraz informatua izateko duen eskubidea bermatzeko egiten duzuen lana aitortzen dugu.

Besterik gabe, gehiago horrelakorik gertatuko ez den esperantzan, besarkada bat langile eta zuzendaritzako kide guztioi.

## Elkartasuna Goienari

**Urko Aristi**
(Tokikom-eko presidentea)
Euskal Herria

Goienak gaur [eguena] jasan duen erasoa dela eta, salatu eta arbuiatzeaz bat, Tokikomek elkartasun eta babes osoa eskaini nahi die Goienako zuzendaritza, lantalde, kolaboratzaile eta komunitate osoari.

Lan zaila da tokiko informazioa lantzea, ezinbestean gertutasunetik egin beharrekoa, horrek dakarren presio eta erantzukizun erraldoiarekin. Meritu handia du toki komunikabideek alor horretan egiten duten lanak, urteetan egin duten ibilbideak eta lortu duten onarpenak, datuek argi asko erakusten dutena.

Toki komunikabideak euskal komunitateak sortu ditu, euskal komunitatea bera elikatzeko. Tokiko informazioa euskaratik eta euskaraz lantzea dute xede bakarra. Haien kontra egiten duenak xede horren kontra egiten du, ez besterik.

## Goienaren aurkako erasoa dela eta

**Alberto Barandiaran**
(Hekimen, Euskal Hedabideen Elkartea)
Euskal Herria

Hekimen elkarteak gaur [eguena] Goiena hedabidearen atarian ageri diren pintadak salatu nahi ditu, prentsa askatasunaren kontra bete-betean jotzen dutelako eta onartezina iruditzen zaigulako hedabideetako langileen jarduna horrela baldintzatu nahi izatea.

Euskal hedabideak biltzen dituen Hekimen elkarteak, era berean, elkartasuna adierazi nahi die Goienako langileei, segi dezaten egunero askatasunez lanean.

## Goienari gure solidaritatea

**Joxe Migel Uribarren**
(Debagoieneko EAJ-PNVren izenean)
Debagoiena

Oraingoan zuei tokatu zaizue. Beste komunikabide batzuek jasan dituzte pintada, pankarta eta kartel iraingarriak askotan. Alderdi politiko batzuek, zer esanik ez. Urrutira joan gabe, azken hauteskunde kanpainan gure kartelak pintadaz josita eta aurpegi eta ahoak estalita azaldu dira gure herrietan eguna joan eta eguna etorri, eta baita gure alderdiko pertsona askoren irudiak ere.

Kritika egitea zilegi da, baina ez dugu inolaz ere onartuko horrelako erasorik. Goiena Komunikazio Taldeak ez dauka erraza ekuanimidadea mantentzea politikari eta alderdiekin, batetik eta bestetik tiraka aritzen baitira guztiak. Baina ekintza hauek ez dira kritikak, erasoak baizik. Eraso guztiak bezala, erabat kondenatzen ditugu hauek ere. Debagoienean, biztanleen gehiengoak ez ditu horrelakoak onartzen eta azken hauteskundeen emaitzek Ezker Abertzaleari erakutsi diote jendeak beste giro bat nahi duela gure gizartean, gauzak egiteko beste modu bat, inposizioek, erasoek, irainek, ez dutela lekurik gurean. Eraso hauek egiten dituenak argi izan beza Goienako bertako langile guztiak direla lehen kaltetuak eta debagoiendar guztiak hauekin batera.

Gure besarkadarik handiena zuzendaritza eta langile guztiei.

## EKEk eta KEEk Goienaren Arrasateko egoitzari egindako erasoa salatzen dute

**Jesus Coteron**
(Euskal Kazetarien Elkartearen eta Kazetarien Euskal Elkargoaren izenean)
Euskal Herria

Euskal Kazetarien Elkarteak eta Kazetarien Euskal Elkargoak Goienaren Arrasateko egoitzari gaur gauean [eguena] egindako erasoa salatu nahi dute. Bi erakundeek komunikabide honetan lan egiten duten profesionalen adierazpen-askatasunaren kontrako erasoa dela uste dute eta euren gaitzespena erakutsi nahi dute.

Komunikabide hori alderdi politiko batek manipulatzen duela salatzen dute egindako pintadek. Komunikabide horretan lan egiten duten profesionalen kontrako bortxaketa bat suposatzen du horrek. Hori dela eta, Euskal Kazetarien Elkarteak eta Kazetarien Euskal Elkargoak Goienako langileei babesa eta elkartasuna adierazi nahi diete.

Komunikabide bat erasotzea, batez ere horren helburua adierazpen-askatasuna mugatzea bada, gainontzeko egunkariak, irratiak, telebistak eta komunikabide digitalak erasotzea bezala da. Egunero adierazpen-askatasunaren eskubidea erabiltzen duten kazetarien kontrako eraso inplizitu bat da. Hori dela eta, profesional euskaldun guztiei ekintza hau salatzera animatzen zaitugu.

Era berean, Euskal Kazetarien Elkarteak eta Kazetarien Euskal Elkargoak edozein komunikabide ideologia politiko batera lotzea arriskua duela gogorarazi nahi dugu, objektibitatearen printzipioak eta informazioen egiaztasuna errespetatzen dituzten langileen esfortzua alde batera uzten baita.

Tokiko komunikabideen garrantzia ere azpimarratu nahi dugu. Ezinbestekoak dira herritarren informazioa jasotzeko eskubidea betetzeko.

## ZABALIK



**IDOIA PEÑAKOBA**
goiena.eus/komunitatea/

# Kafeaz gozatzen ala katiluaz?

Exekutibo talde *arrakastatsu* bat bere maisu zaharrarekin elkartu zen. Elkar agurtu ondoren eta bizi zuten bizitza lanpetu eta estresatuaren ondorioz familiaz gozatu eta lagunekin kafe bat ere hartzeko aukerarik ez zutenaren inguruko kexuak partekatu ondoren, maisua kafea prestatzera jaiki zen.

Erretilu baten jarri zituen kafe-ontzia eta mota ezberdineko hainbat kafe-katilu: zaharrak, berriak, zeramikazkoak, plastikozkoak, lorez apaindutakoak, itsusiak... Kafea zerbitzatzen hasi zen, bakoitzari nahi zuen katilua har zezala eskatuz.

Denek hartu zuten katilu bana eta elkarri begiratu zioten, errezeloz, batik bat katilurik onenak hartzeko aukerarik izan ez zutenek.

**Pertsonarik zoriontsuenak ez dira katilurik onenak dituztenak**

Maisuak, kafea isuri bezain pronto, irribarrez galdetu zien: konturatu zarete katilu guztiak ezberdinak direla? Lehenengo aukeratu duzuenek onena iruditu zaizuena hartu duzue eta azkenek gelditzen zirenekin konformatu beharra izan duzue, gainontzekoei inbidiaz begiratuz.

Katiluak dira zuen estresaren arrazoi. Lana, dirua, gauza materialak, izan nahi dugun posizioa... horiek gure bizitzan benetan garrantzitsuak diren gauzak biltzen dituzten katiluak dira, baina katiluak ez dio kafeari kalitaterik gehitzen. Guztion katiluetan isuri dizuedan kafea berdina izan da eta zuen nahia, ametsa, ilusioa, horrenbeste urte ondoren elkarrekin kafea hartzea zen arren, katilurik onenaren bila joan zarete. Eta lortu ez duzuenek besteekiko inbidia sentitu duzue.

Bizitza kafea da. Pertsonarik zoriontsuenak ez dira katilurik onenak dituztenak, baizik eta daukatenarekin onena egiten dakitenak. Daukaten horri balioa ematen dakitenak, eguneroko gauza txikiez disfrutatzen dakitenak. Azken finean, zaharkitutako katiluan dagoen kafe goxoaz dastatu eta gozatzen dakitenak.

Ba al dakigu gure bizitzako kafea eta katiluak ondo bereizten? Saia gaitezen behintzat!

## USTEAK USTE

**MIREIA BIKUÑA** | mbikuna@goiena.eus

# Aloña, Bigarren Mailara

Eskubaloi jokalari ohi eta zale naizen aldetik idazten ditut ondorengo lerroak. Eskubaloiko Izarraitz Aloña Mendi taldea zoriondu gura dut Euskadiko Txapelketara lortutako igoerarengatik, eta aurreko aste bukaeran Zubikoan egondako zale guztiak, erakutsitako jarrerarengatik. Baina, batez ere, igoera lortu duen taldean diharduten kuadrillako bi lagun zoriondu gura ditut. Badakit zer den kirol talde batekin lanean ibiltzea: ordu asko, une gaziak eta gozoak... Horiek guztiak bizi izan dituzte Txusek eta *Otxua*-k, eta igoera merezita zuten. Orain, zaleoi dagokigu taldeak Euskadiko Txapelketan egingo duen bidean lagun izatea. *#aurtenbai!*

## MARRAZKIZ

**UNAI BUSTURIA** | goiena.eus/komunitatea/




## HANDIK ETA HEMENDIK

### Telebistaz

**Goizalde Landabaso**
http://goo.gl/j7EmdZ

Egunotan harritu nauen albistea irakurri dut: Jorge Mario Bergogliok, hau da, Frantzisko I.a moduan ezagutzen den Aita Sainduak onartu du 1990az geroztik ez duela telebistarik ikusten.

Antza denez, auskalo zein bekatuk eraginda, Karmengo ama birjinari egin zion promesa da, 1990eko uztailean.

Dioena egia bada, hogeita bost urte daramatza telebistarik ikusi gabe.

Zuzena ez zen zerbait egiten genuenean gurasoek telebistarik gabe zigortzen gintuzten sasoiak etorri zaizkit akordura.

Bergogliok *mea culpa* aitortu zion gorpu eta gorputzik ez duen izaki bati, eta harrezkero bere burua zigor eternalean dago.

Zein bekatu egingo zuen, bada, gizon honek? Pitokeria horiek nik ez ditut ulertzen.

Badakit moda kontuak ere izan litezkeela, eta batzuentzat telebistarik ikusten ez dutela esatea guay gelditzeko ariketa baino ez dela.

Itsasoari edo aireari mugarriak jartzea begitantzen zaizkit txatxukeriok. Telebistaren erabileran dagoelako gakoa, eta hor ergela ez da kutxa, erabiltzailea baizik.

Bergogliok ez omen ditu hain maite dituen futbol partidak ikusten, ez ei du New Yorkeko dorre bikien erasoa ikusi, eta ezta Islandiako Eyjafjallajökull sumendiaren iratzartzea ere.

Eta harro dago.

Federico Felliniren hitzak ezin egokiagoak dira Bergogliorentzat. "Telebista kondenatzea elektrizitatea edo grabitatearen teoria eskumikatzea bezain barregarria da".

Bergogliok bekatu larri hura egin aurretik, zapatu goizetan, Averia Sorgina ikusteko baimena ematen ziguten etxean.

Uste dut hor hasi nintzela telebista maitatzen. "Albistegiek benetako informazioa emango dute; kirolak, meteorologia eta eguneko burtsaren indizea. Gora plusbalia! Gora ekonomia!", zioen 80ko hamarkadan Averia Sorginak.

Bergogliok bere burua zigortzen jarraituko du, baina, edozein jainkoren ordezkaria izan arren, mundua ez da gelditukо.

### Nahigabea

**Anjel Lertxundi**
http://goo.gl/YPKI0b

"Nahigabean hirekin eta heureekin" hitzekin bukatu du lagun alargundu berriari bidali nahi dion mezua. Testu osoa errepasatu du okerrak zuzentzeko. Nahigabe hitzean gelditu da.

Formula konbentzional bateko hitz fosil bat da berarentzat.

Doluminetan ez bada, erabiltzen ez duena.

Baina, bat-batean, inoiz ikusi ez zion distiratxo bat –konposaketarena– nagusitu zaio. Nahigabea, nahi gabea. Inork deitu gabe etortzen da atsekabea.

Bi formen ezberdintasunak sakonera du. Nahi eta gabe batzen badira edo aparte idatziz gero, doluaren bi alde nagusiak dauzkagu. Nahigabea –zoritxarra, mindura, atsekabea, bihotzeko iluna–, ez dator inoren interbentzioaren eskutik. Ez dago kulparik. Ez dago Jainkorik edo paturik istripu baten edo gaitz larri baten atzean, halabeharra baizik, eta horra non beste hitz eder batek egin digun distira, *hala beharko zuen* etsipenak piztuta.

goiena"
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea Otalora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HERRIAK

# Oñatiko 11 aztarnategi, euskal kultura ondarearen zerrendan

- Eusko Jaurlaritzak zerrendan sartzeko espedienteari hasiera eman dio
- Haitzulo-aztarnategiei monumentu multzo kategoria emango diete

DATUA

**103**

AZTARNATEGI

Gipuzkoako aztarnategi horiei monumentu multzo kategoria emango diete.

ESANAK

**"Aspaldi eman beharreko pauso garrantzitsua da"**

IKERNE ALTUBE | OÑATIKO GARAPEN ETA TURISMO AGENTZIA

**"Eskalatzaileok neurriak errespetatu egingo ditugu"**

SERGIO MAIZTEGI | ALOÑA MENDI MENDI ELKARTEA

JOSU BILBAO | OÑATI

Oñatin dauden hamaika aztarnategi euskal kultura ondarearen zerrenda orokorrean sartzeko espedienteari hasiera eman dio Eusko Jaurlaritzak. Aztarnategi horiek dira Aitzabal 33, Aizkirri, Arrikrutz, Kobailun, Madinakozubieta, Otalora I, Potorrosin VI eta VII, San Elias, Txomenkoba Erdikua eta Urtaopotolueta.

Guztira, Gipuzkoako lurralde historikoan, 103 haitzulo-aztarnategiri monumentu multzo kategoria eman nahi diete. Beraz, aztarnategia bera eta inguruak duen balioa babestea eta eremu bakoitzeko jarduerak mugatzea aurreikusten da. Haitzulo-aztarnategiak monumentu-multzo kategoriarekin inbentariatutako ondasun modura jaso beharko dira planeamendu tresnetako kultur ondarearen katalogoan.

Hori guztiori, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak izenpetu duen ebazpenean jaso da. Ebazpena Euskal Herriko Aldizkarian argitaratuko dute, eta alegazioak aurkezteko hogei eguneko epea ireki. Horren aurretik, Oñatiko Udalari egitasmoaren berri eman diote, dagozkion neurriak har ditzan. Gaia agintaldiko azkenengo tokiko gobernu batzarrean aztertu zuten, eta Udalak interesa izan dezaketen herriko eragileei horren berri ematea erabaki zuen. Hala ere, Aloña Mendi Mendi Elkarteko eskalada taldekoek ez dutela inolako informaziorik jaso azaldu dute.



Sandailiko haitzuloa eta ermita. | JAGOBA DOMINGO



Arrikrutzeko haitzuloan bertsolaritza ekitaldia izan zen martxoan. | GOIENA

### Kultura jarduerak sustatu

Erabilera eta jarduerei dagokienez, kobazuloetan eta aztarnategietan batez ere ikerketa eta kontserbazioa sustatzeko jarduerak egin ahal izango dira. Irizpide nagusia aztarnategietan gordetzen diren hondakin eta mailen egoera alda dezaketen giza jarduerak ahalik eta gehien murriztea izango da. Hori dela eta, kobazuloaren barruan eskalada eta kanpaldia egitea, haitzuloa okupatzea edo bertan bizi izatea debekatuta egongo da. Aztarnategien inguruan, berriz, bertako ondasunen kontserbazioa arriskuan jar dezaketen jarduera guztiak debekatuta egongo dira eta kultur jarduerekin zerikusia duten erabilerak bakarrik sustatuko dira.

Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziak begi onez hartu du berria: "Pozten gara, noski. Pauso garrantzitsua da, agian aspaldi eman beharrekoa, baina inoiz ez da berandu", azaldu du Ikerne Altube zerbitzuburuak.

"Bertan daukagun ondare garrantzitsuari errekonozimendua ematea da, azkenean. Bertako aztarnategiak pixka bat babesteko eta euskal kulturaren ondarea kontuan hartzeko. Gure ondarearekin eta inguruarekin oso kontzientziatuta gaude. Bertako jendeak oso esanguratsuak diren harribitxi batzuk ondoan dituela jakinaraztea da helburua. Hain berezia den Arrikrutzeko lehoia bertan dugu, adibidez. Garrantzia ematea ezinbestekoa da", adierazi du Altubek.

Izan ere, Arrikrutz eta bertako ondarea beste modu batera ezagutzera emateko, haitzuloan bertso emanaldia egin zuten martxoan. Bertan izan ziren Amets Artzallus eta Aitor Mendiluze bertsolariak, Maider Arregi eta Andoni Goitia oñatiarrekin batera, eta bisitariek, haitzuloa eta aztarnategiak ikusteaz gain, bertsoez gozatzeko aukera izan zuten. Gainera, Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziatik, saguzarrekin, armiarmekin eta beste animalia batzuekin ikerketak eta proiektuak ere bultzatu dituzte. Agentziatik, aztarnategiak eta haitzuloak eta bertan dauden "ondareak errespetatzen eta ezagutzera ematen dituzten kultur ekintzak antolatzen jarraitzeko asmoa" dute, Ikerne Altubek adierazi duen moduan.

### Espeleologoak pozik

Aloña Mendi Espeleologia Taldekoek ere begi onekin hartu dute berria. Izan ere, azken hilabeteetan haitzuloetan eta aztarnategietan lapurretak egon direla salatu eta babes handiagoa eskatu dute espeleologoek. Lapurreta gehiago ez izateko, Gipuzkoako Foru Aldundiari horren berri eman diote. AMETen ustez, aztarnategiek eta kobazuloek "ahalik eta babes handiena" behar dute. Babes figura handiagoa izatea ondo ikusten dute espeleologia taldeko kideek.

Gaia aztertzeko eta eztabaidatzeko atzo arratsaldean elkartzeko asmoa zuten Aloña Mendi Espeleologia Taldeko kideek.

### Eskalada debekatuta

Kobazuloen barnean eskalatzea debekatuta egongo da, batez ere, euskal kultura ondarearen zerrendan hamaika aztarnategiek monumentu multzo kategoria hartzen badute. Gainera, Oñatiko Udalak neurriak hartu beharko ditu, zerrenda horretan sartzeko prozesua aurrera doan bitartean. Aloña Mendi Mendi Elkarteko eskalada taldeak Sandailiko haitzuloan eskalatzeko gune bat du. Dena dela, hartuko dituzten erabakiak eta neurriak errespetatu egingo dituztela argi utzi du Sergio Maiztegi kideak: "Guk onartu egiten dugu, eta errespetuz jokatuko dugu. Sandailiko kobazuloan eskalatzea debekatu egingo zutela aspalditik genekien. Eskalatzeko tokia desmuntatu egingo zutela bagenekien. Hala ere, komunikazio falta handia egon da. Gu aintzat ez hartzeak pena handia ematen digu".

Eskalada taldekoek erabakien eta hartuko dituzten neurrien zain daudela azaldu dute; izan ere, hamaika aztarnategien zerrendan ez da agertzen eurek Martzenkoba izenez ezagutzen duten haitzuloa: "Agian, zerrendan egon daiteke, eta Eusko Jaurlaritzak beste izen batekin sailkatu du", azaldu du Sergio Maiztegik.

## Nagusien Astea ospatuko dute datorren astean Iturbide egoitzan

Ekainaren 10a izango da egoitzako egun berezia

J.B. | ARRASATE

Ekaina hilabete berezia izaten da Iturbideko egoiliarrendako. Izan ere, bigarren astean ospatu ohi dute urtero Nagusien Astea, askotariko ekintzekin. Arrasate San Juan jaien atarian dagoela gogoratzeko, adibidez, danborradarako entsegua egiten dute urtero. Aurtengoa hilaren 11n izango da, 10:00etan. Hala ere, egoitzarendako egun handia ekainaren 10ean ospatuko dute. Etxaluzen bazkaria eta dantzaldia izango dute. Bestalde, oso harrera ona izan ohi duen bingo berezia azken ekintza izango da, ekainaren 12an.

### EGITARAUA

**EKAINAK 8, ASTELEHENA**

**10:00** Diana.

**18:00** Iturbide egoitzako abesbatzaren emanaldia.

**EKAINAK 9, MARTITZENA**

**10:00** Arizmendiko Olarte guneko umeen jaialdia.

**17:30** Mexikoko jatorria duten abestien errezitaldia Alaitzen taldearekin.

**EKAINAK 10, EGUAZTENA**

**14:00** Egoitzako egun berezia. Bazkaria eta dantza Etxaluzen.

**EKAINAK 11, EGUENA**

**10:00** Danborradaren entsegua.

**18:00** Lore Gazteak–en dantzak.

**EKAINAK 12, EGUBAKOITZA**

**10:00** Bolo txapelketa.

**17:00** Bingo berezia opariekin.

### Libre Eguna antolatu dute ekainaren 13rako, 35/02 auzia dela-eta Irati taberna ez ixtea eskatzeko

Arrasateko Libre taldeak aldarrikapen eguna antolatu du ekainaren 13rako, Espainiako Auzitegi Gorenak 35/02 auziaren epaia "laster" emango duela-eta. *Herriko tabernen* auzia izenez ezaguna den horretan Irati taberna ere ixteko arriskuan dagoela diote: "Eraso berri honi tamainako erantzuna eman behar zaio, elkartasunetik konpromisora salto txikia eman behar dugu". Seber Altuben ospatuko dute Libre Eguna; hitzaldiak, bazkaria eta herriko musika taldeen parte hartzea egongo dira, besteak beste.

# Jatorri alemaniarra duen Garagardo Azokaz gozatu ahalko da gaur eta bihar

Arrasate Rugby Taldeak babesleekin batera antolatzen duen jaialdiak 17 urte egin ditu aurten, Herriko Plazan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasatearren artean arrakasta itzela izan ohi duen Garagardo Azokaren 17. edizioak atzo ireki zituen karpako ateak. 18:00etan ireki zuten azoka, eta, erdialdeko tabernen pintxo-potearekin bat eginez, afalordura arte mokadutxoa egiteko aukera egon zen. Gainera, Mondragon Unibertsitatearekin elkarlanean, herri kirolen saio bat egitea aurreikusita zegoen atzoko egitarauan. Ondoren, 20:30 aldera, ofizialki ireki zuten azoka Udaleko ordezkari politikoen eskutik. Izan ere, azken urteotako ohitura eutsiz, antolatzaileek, babesleek eta Udaleko ordezkariek batera afaldu zuten karpan bertan.



Familia giroan gozatu ahalko da Herriko Plazako karpan. | JULIO CALLEJA

Bada, azokak egun indartsuenak ditu aurretik. Arrasate Rugby Taldearen urteko aurrekontu osoaren zati handi bat azoka horretan oinarritzen da, eta, horregatik, jokalari, jokalari ohi, entrenatzaile zein zuzendaritzako kideak buru-belarri ibiltzen dira lanean azoka zabalik dagoen bitartean.

**Garagardo pitxarra 4,5 eurotan**

Aurtengo ediziorako 2.190 litro garagardo eskatu dituzte klub zuri-moreko arduradunek, bost markatakoak: "Azoka honetan ohikoena izaten da garagardoa pitxarretatik edatea. Garagardo pitxar bakoitza 4,5 euroren truke eskuratu ahalko da. Dena den, nahi duenak botilan erosteko aukera ere izango du, litro laurdeneko 750 botila eskatuko ditugu-eta", adierazi dute antolatzaileek. Edanaz gain, jatorri alemaniarreko jatekoa ere egongo da; edanaren antzera, kopuru adierazgarriak dira Arrasate Rugby Taldeko arduradunek eskatu dituztenak: 2.700 opil, 375 oilasko, 720 txerri-ukondo eta 140 lata-saltxitxa.

Era berean, zapatuan jokatuko da zazpiko errugbi txapelketa (ikus 27. orria).

**DATUA**

**2.190**

LITRO GARAGARDO

Bost markatako 2.190 litro garagardo eskatu dituzte aurtengo azokarako.






### Banderak astintzeko gogotsu

SUDC

Ekainaren 13an egingo den haurren danborradak baditu banderadunak: Miren Iturbe (Arrasateko bandera), Amalur Arizabaleta (SUDCekoa), Andrea Petite (jenerala; neska izango da lehen aldiz) eta Ane Ormaetxea (ikurrina). Zazpi konpainiak hartuko dute parte, ohiko ibilbidean zehar.

Lore
LURRINDEGIA
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

### Gazteendako joskintza eta urban dantza ikastaroak uztailerako

Gazte Bulegoak bi ikastaro antolatu ditu uztailerako: batetik, oihala erabilita josiz sortzeko hainbat aukera proposatuko ditu Dunixe Royok; eta, bestetik, hip hop kulturaren barruan dagoen urban dantza hurbilduko du Mikel Gimenezek. Argibide gehiagorako: 943 25 20 65 edo *gib@arrasate-mondragon.net*.

# Filmekin zerikusia duten opariak Ibai-Arteri esker

G.A./J.B. | ARRASATE

Ibai-Arte merkataritza elkarteak *Zinema opari, umorearekin* kanpaina abiatu du bezeroak fidelizatzeko eta xaxatzeko. Bezeroek ordainketa egiten duten unean bertan –Visa Arrasate txartel berria pasatzerakoan– jakingo dute saririk egokitu zaien edo ez: makinatik ateratzen den papertxoak film baten izenburua badakar, saritua izango da, eta bestela, ez. Eta baiezko kasuan, titulu hori izango da opariaren nondik norakoak asmatzeko pista bakarra.

Kanpainak uztailaren 2ra arte iraungo du. Egun horretan, eguena, Seber Altube plazan egingo da sari banaketa (20:30), animatzaile eta guzti.

**Visa Arrasate txartela, ondo**

Bestalde, Visa Arrasate txartelaren gainean oso balorazio ona egin du Ibai-Artek. 4.016k atera dute txartel berria eta horietatik 1.700 inguru hilero erabiltzen dira. Otsail bukaera ezkero funtzionamenduan txartela, eta erabiltzaileek %10 eta %15eko deskontuez gozatu ahal izan zuten, martxo hasieratik apiril bukaerara arteko kanpaina baten bidez.

Txartela bera ezagutaraztea eta Arrasateko bezero fidelak saritzea izan dira helburuak eta asmoa da irailean beste kanpaina bat egitea. Ildo horretatik, Ibai-Arte elkartetik azaldu dute erabiltzaileek ongi erantzuten dietela halako kanpainei.



Ibai-Arteko Gabino Iartza, Yolanda Sanchez eta Maria Luisa Via. | GOIATZ ARANA


JOKIN BEREZIARTUA

## Erabakiaren beharraz berbetan

PSE-EEko politikari ohi Gemma Zabaleta eta *Gazta zati bat* lanaren egile Jon Maia gonbidatu genituen Kulturatera. Zabaletak "oinarrizko balio demokratiko" moduan definitu zuen erabakitzeko eskubidea. Maiak uste du "beharrezkoa" dela ekimena bera: "Garrantzitsuena ez du lortu oraindik. Alegia, denok gure etorkizuna bozkatzera joango garen eguna, hori da helburua". Ekainaren 21ean goazen denok Donostiara!

KOMUNITATEA GOIENA
GURE ESKU DAGO | ARRASATE

## Hirune Iribekanposena izango da sanjuanetako esaldia: 'Euskaraz ta moreak, guztiontzat hobeak'

Hirune Iribekanpos arrasatearrak irabazi du AEDk, AEK-k, EHEk eta Arrasateko Udalak antolatu dugun San Juan jaietako esaldi lehiaketa. Honako hau da aurtengo esaldi irabazlea: *Euskaraz ta moreak, guztiontzat hobeak*. Horrenbestez, esaldi hori eramango dute datozen jaietan soinean eramango ditugun zapi eta pegatinek. Iribekanposek ehun euroko saria eskuratu du, eta lehiaketen hirugarren edizio honetan 23 lan aurkeztu dira guztira.

KOMUNITATEA GOIENA
AED, EHE ETA AEK | ARRASATE

## Herri Eskolak ikasturte amaierako jaia ospatuko du gaur

Arrasate Herri Eskolako Gurasoen Elkarteak antolatuta, ikasturte amaierako jaia ospatuko dute gaur Biteri plazan eta Zaldibar pilotalekuan. Jaia 17:00etan hasiko da, eta askotariko ekintzak antolatu dituzte: ipuin kontalaria, magia ikuskizuna, zirku tailerra... Gainera, eskulanetarako eta aurpegia margotzeko tailerrak egongo dira, eta baita jateko zein edateko postuak ere. Antolatzaileek gonbidapen zabala egin diete arrasatearrei ospakizunarekin bat egin dezaten.

## 'Zapa', Aranburu eta Larrea erail zituzteneko kasuan, lekuko bila

1978ko azaroaren 15ean Guardia Zibilak tiroz hil zituen ETAko kide Jose Mari Iturriotz *Zapa*-ren, Komando Autonomo Antikapitalistako kide Roberto Aranbururen eta Emili Larrea herritarraren auzia dela-eta, eta polizia gehiegikerien biktimak izan direnei segurtasun juridikoa eskaintzeko Jaurlaritzako komisioak eskatuta, kasuaren gaineko ahalik eta argibide gehien izateko lekuko bila ari dira. Bi bide daude: *arrasatenegia@gmail.com* edo 635 75 94 73.




Zure **ibilgailuaren azterketa** egingo dugu **DEBALDE!**

Zure autoa edo motorra beti puntuan, MAPFREko bezero izan edo ez.

Zure ibilgailuaren puntu garrantzitsuenak azter itzazu.

Egunak:
**Ekainak 9, 10, 11, 12 eta 13an.**

Ordutegia:
**10:00etatik 13:00etara**
**eta 14:30etik 19:30era izango da.**

Arrasaten, Eroski-ko gasolindegi ondoan.

MAPFRE
ARRASATE



Jateko eta edateko postua Aiba! martxaren azken edizioan, 2012an. 2006an antolatu zuten lehenengoz. | GOIENA

# Aiba! martxarako izen-ematea 400 lagunera zabaldu behar izan dute

Domekan egingo den mendi ibilaldiak aurreikuspenak gainditu ditu parte hartzeari dagokionez: "Eguraldi ona egiten badu, egun borobila izan daiteke"

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Domekan egingo den Aiba! mendi martxak aurreikusi gabeko arrakasta izan du, aurrez izena eman duten mendizaleei dagokienez. Maiatzaren 31n amaitu zen aurrez izena emateko epea, eta martxa antolatzen dihardunen Besaide Mendizale Elkarteak erabaki du parte hartzaileen gehienezko muga zabaltzea: "Izen-ematea itxi zenean ia 290 parte hartzaile zeuden, eta, horregatik, badaezpada, erabaki dugu 400 lagunera zabaltzea. Egunean bertan ere izena emateko aukera eskaini gura dugu", dio Besaideko kide Mikel Nuñok.

**"Martxa da, ez da lasterketa"**

Domekan izena ematea garestiagoa izango da. Aurrez izena eman duten federatuek zazpi euro ordaindu dute eta federatuak ez direnek hamabi euro. Egunean bertan hamar euro ordaindu beharko dute federatuek eta hamabost euro gainerakoek: "Domekan bertan izena eman gura dutenak etor daitezela 06:15 inguruan Monterronera". Era berean, puntualtasuna eskatu dute antolatzaileek eta gaineratu dute euren argibideak jarraitzeko: "Eskertuko genuke antolatzaileen argibideei adi egotea eta ibilbidea jarraitzea, ondo egongo da-eta seinaleztatuta. Gogora ekarri nahi dugu martxa bat dela, ez lasterketa bat. Gozatzeko eguna da".

Aiba! mendi martxak bi ibilbide ditu, Aramaio ibarrari bira emanda: luzea, 41 kilometro eta 2.821 metroko igoera metatua duena, eta laburra, 34 kilometro eta 1.906 metroko igoera metatua duena –jateko eta edateko launa postu egongo dira–. Biak Monterronen hasi eta Seber Altuben amaituko dira: "Benetan ederra da ibilbidea. Eguraldi ona egiten badu, egun borobila izan daiteke". adierazi dute Besaidekoek. Bestalde, hasiera baten opariak zozketatzeko asmoa zuten arren –horregatik jarri dute kuota merkeago, besteak beste–, parte hartzaile guztiek eramango dute etxera mendirako erabilgarria izango den "zerbait".




# Astigarraga baino gutxiago izanda, amaitu da Herri Arteko Txapelketa

**J.B.** | ARRASATE

"Hobeak izan dira". Argi eta garbi egin du berba Ibai Bolinaga pilotari eta entrenatzaile arrasatearrak Herri Arteko Pilota Txapelketaren barruan Astigarragaren aurka jokatutako kanporaketaz. Hori bai, sei partidutatik bakarra irabazi duten arren, Bolinaga pozik dago txapelketan egindakoarekin: "Lehen kanporaketa ondo gainditu genuen eta bigarrenean faborito argietako bat izan dugu aurrean. Azken urteetako talderik onena izan dugu".

Astigarragaren aurkako bueltako kanporaketan hiru norgehiagokak galdu zituzten arrasatearrek. Kadetetan 22-17 galdu zuten: "Partidu hori irabaztea ezinbestekoa zen aurrera egiteko aukerak izateko; ondo joan ginen, 2-10 irabazten, baina markagailuari buelta ematea lortu zuten eta hor amaitu ziren gure aukerak", azaldu du Bolinagak.

**Aurkaria txalotu behar**

Gazte mailan eta seniorretan 22-12 eta 22-16 galdu zuten, hurrenez hurren: "Astigarragako frontoia oso ezberdina da eta igarri egin dugu. Hobeak direnean ez dago besterik, aurkaria txalotu behar".

Datorren urtera begira egungo taldea sendotzea espero du Arrasate Pilota Taldeak. Kadete mailakoak, batez ere, aurten lehen urtekoak izan dira-eta.

# Dribling eta Aldatz taldeen artean erabakiko da zein den txapelduna

**J.B.** | ARRASATE

Bihar jokatuko da Zaldibarko Areto Futbol Txapelketako finala, Dribling eta Aldatz taldeen artean (17:30). Orain arteko ibilbidea ikusita, Dribling da faborito, baina Eskoriatzako Aldatz taldeak, ohikoa duenez, azkenera arte borrokatuko du. Berdinketa izanez gero luzapena jokatuko da, bost minutuko bina zati, eta berdinketak jarraitzen badu bost penalti jaurtiko dira taldeko. Finalaren aurretik, hirugarren postua lortzeko lehia jokatuko dute Betrayer eta Lasagabaster taldeek (16:30); ez da luzapenik egongo: berdinketa egonez gero hiru penalti jaurtiko dira taldeko. Finala amaitu ostean, hainbat sari banatuko ditu antolakuntzak.



Betrayer–Dribling finalerdia. | I.S.

## NIRE USTEZ

**ITSASO ERRETOLATZA**



# Arrastoak

Ondo merezitako Donostia saria eman zaio aurten Dejavu taldeari. Jadanik bizitakoak dira gure genetan gelditzen diren markak eta eurek ere arrastoa utzi dutelako bederen. Taula gainean mezua ezin argiago ozen hedatzen zen bitartean, hosto sikua oparitu ziguten haren zainen erliebean sumatu eta sentitu genezan gure arbasoek gugan utzitako arrastoa... Aitor Mazo ere bertan zen eta orain arrastoa da. Soinua harago baitoa.

Taulatik ikuslera bueltatuz, aurreko batean amamarekin lo egitea egokitu zaidala otu zait. Baserrian bizi den 95 urteko amamak ematen dit aldioro lezioa eta haren arrastoak izango ditudan harrotasunez hartu nuen lo.

Eskarmentu handikoa da, gogor lanean baina esan beharrekoak isildu gabe, beti egin du aurrera tirri-tarra. Oraindik ere oiloei kasu eman, txakurrarekin eztabaidatu eta katuak mimatuz bizi da. Ortutik eguneroko itzulia ematen du, eta, noizean behin, autobusa dagoenetan behinik behin, azokara joan-etorria egiten du. "Nagusitan bera bezalako izan gura nuke!". Tamalez, orain buruko muskuluari eragiten diogu lan eta ez gorputzekoei, lehengoen legez. Horregatik diot lehenago iraungiko garela minez ala buruhausteez jota. Zer pentsa eman zidaten, dejá bizitakoaren hausnarra. Gure arbasoek bizi izan duten eboluzio, zein bizimodu gogorrago ala goxoagoek, gugan utzi duten aztarnaz jositako bide orriaz, guri ere isuri digutena nahigabe. Guraso bi, hauen laurak eta haien zortzi sortzaileek... milaka arbasoren gaurkoa gara.

Finean, egiten duguna garenez, ea nolako arrastoa uzten diguten hautatuek!



Barikuan aurkeztu zuten film laburren lehiaketa. | AED ELKARTEA

# Udako film laburren lehiaketa antolatu du Eusberdin taldeak

## Gazteen sormena bultzatzea da helburua eta jende amateurrari zuzenduta dago, bereziki

**KOMUNITATEA GOIENA**
AED ELKARTEA | ARRASATE

2014ko abenduan Topaguneak antolatzen duen Kameratoia lehiaketan lehenengoz parte hartu genuen Eusberdineko taldekideok. Ekimena primeran baloratu genuen arren, esperientzia falta nabarmena zen guk aurkeztu genuen lanean. Horren harrira, ideia bat izan genuen: herrian amateurragoentzat lehiaketa bat antolatzea.

Barikuan aurkeztu genuen lehiaketan gorpuztu dugu gure ideia hau. Rally formatua albo batera utziz, epe luzeko lehiaketa deitu dugu, grabazioak egiteko uda eta opor garaia primerakoak direla iritzita.

**Lehiaketaren oinarriak**

Talde bakoitzak bere ekipo propioa erabili beharko du filma egiteko. Bestalde, antolatzaileak ez dira ekipoen galeraren edota kalteen erantzule izango.

Lanek euskara hutsean egon beharko dute, eta horien iraupena gehienez bost minutukoa izango da, izenburuak eta kredituak barne. Derrigorrezkoa izango da egileen eta erabilitako musikaren informazioa eta kanten eta musika taldeen izenak jasotzea.

Filmek formatu digitalean egon beharko dute (artxibo mota: MPG4/AVI/MOV). Bestalde, lanek originalak izan beharko dute, ezin izango da aurrez argitaratutako edota dagoeneko saritua izan den film laburrik aurkeztu.

Ezinbestekoa izango da lanetan *Euskarak 365 egun* gaia islatzea. Gai horretaz aparte, ondoren zerrendatutakoetatik gutxienez beste bi ere jorratu beharko dira: uda, oporrak, parrandak, kirola, hondartza, udako maitasunak, hizkuntza, udako kantua, sanjuanetako pegatina eta aniztasuna dira aukerako gaiak.

**Lanen aurkezpena**

Lanak banaka zein taldeka aurkez daitezke, eta *eusberdin@aedelkartea.com* helbidera bidali beharko dira irailaren 4a baino lehen.

Aurkeztutako film laburren emanaldia eta sari banaketa irailaren 18an egingo dute, Jai Zale tabernan, eta egunean bertan aukeratuko dituzte lan sarituak. Sari nagusia hiru aditük aukeratuko lanak jasoko du. Ikusleen saria, aldiz, ekitaldira bertaratzen diren ikusleen esku egongo da. Sari nagusiaren irabazleak 200 euroko bonua jasoko du Ibai Arteko dendetan erabiltzeko eta ikusleen sariarenak, berriz, 100 eurokoa.

# Familien arteko kontzertuak gaur Kulturaten, Arrasate Musikalen udaberriko zikloaren baitan

**MAITE TXINTXURRETA** | ARRASATE

18:30ean izango da emanaldia, Kulturaten. Musika eskolako haur eta gurasoek elkarrekin joko dute lehen aldiz, baita aitonaren batek edo bestek ere. Sarrera doakoa izango da.

**Datorren asteko emanaldiak**

Datorren astean zehar ere emanaldi ugari izango dira udaberriko zikloaren baitan.

Astelehenean, hilak 8, tronpa kontzertua egongo da musika eskolan, eta 9an klarinete kontzertua, 18:30ean, Kulturaten.

Eguaztenean, 18:00etan hasita, piano doinuak izango dira musika eskolan, eta eguenean, tuba eta bonbardino kontzertua, 18:30ean, Kulturaten. Azkenik, egubakoitzean, hezkuntza bereziko kontzertua izango da, ordu berean, musika eskolan.


Abarrategi familia. | ARRASATE MUSIKAL

## Kontzertuak izango dira zapatuan gaztetxean, herriko zein kanpoko musikarien eskutik

22:30etatik aurrera hasiko dira emanaldiak, eta bi musika talde arituko dira taula gainean. Batetik, kontzertu honetarako espreski batu diren musikari arrasatearren talde bat, zeinek abesti akustikoak joko dituen, Mikel Laboa eta Doctor Deseoren bertsioak, besteak beste. Ondoren, erritmo gogorragoek hartuko dute gaztetxea; izan ere, hurrengo taldea durangoko The Yellow Marsupials da, eta musika heavya egiten dute. "Giro ona" egongo dela eta, jendea bertaratzera animatu dute AGAKOtik.

# Angel Mario Fernandezek liburua kaleratu berri du

**M. T.** | ARRASATE

Idazlea izateaz gain, San Andres auzoko Meca gasolindegiko langilea da Angel Mario Fernandez. Argentinarra da, baina Soraluzen bizi da. Hogei bat liburu idatzi ditu dagoeneko, antzezlan eta dokumentalez gain.

Tandaia argitaletxeak publikatu duen *Hijos del corralito* fikziozko eleberria da. 2001ean Argentinan kokatzen da, *corralito* izenez ezagututako ekonomia krisiaren testuinguruan, eta kalean bizi diren neska-mutikoak ditu protagonista.

Idazleak azpimarratu duenez, "gaurkotasun handia" duen istorioa kontatzen du, gaur egun hemen bizi den egoerarekiko "antzekotasun handia" baitauka.

Liburuaren aurkezpen ofiziala Soraluzeko udaletxean egingo du Fernandezek hilaren 10ean.

txatxilipurdi

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**

**Eguna:** 2015eko ekainaren 11n.
**Tokia:** Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan.
**Ordua:** 17:30ean, lehenengo deialdian eta 18:00etan, bigarren deialdian.

**GAI-ZERRENDA**

1. 2014ko Batzar Nagusiko aktaren onarpena.
2. 2014ko jardueraren eta diru-kontuen azalpena eta, hala badagokio, onarpena.
3. 2015ko bazkide ekarpenaren zenbatekoa finkatzea.
4. 2015ko egitasmoak eta aurrekontua, eta hala badagokio, onarpena.
5. Zuzenbide Batzordearen berritzea
6. Elkartearen jakinarazpenak.
7. Galdera eta erreguak.

*Batzar Nagusirako dokumentazioa Txatxilipurdiko egoitzan egongo da bazkideen eskura. Nahi duenari, etxera bidali diezaiokegu dokumentazio hori.*

Irati Pagoaga / Lehendakaria
Arrasaten, 2015eko maiatzaren 25ean.

aed arrasate euskaldun dezagun

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**

**Eguna:** 2015eko ekainaren 11n.
**Tokia:** Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan.
**Ordua:** 17:30ean, lehenengo deialdian eta 18:00etan, bigarrenean.

**GAI-ZERRENDA**

1. 2014ko Batzar Nagusiko aktaren onarpena, hala badagokio.
2. 2014ko jarduera eta diru-kontuen azalpena eta onarpena, hala badagokio.
3. 2015eko bazkide ekarpenaren zenbatekoari buruzko proposamena.
4. 2015eko egitasmo eta aurrekontuaren azalpena eta onarpena, hala badagokio.
5. Zuzendaritza Batzordearen berriztapena
6. Galdera eta erreguak.

*Batzarrean onartu behar diren dokumentu guztiak aldez aurretik elkartearen egoitzan eskuragarri izango dituzue.*

Eñaut Muxika / Lehendakaria
Arrasaten, 2015eko maiatzaren 25ean.

Ekin Emakumeak • AED

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**

**Eguna:** 2015eko ekainaren 11n.
**Tokia:** Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan.
**Ordua:** 17:30ean, lehenengo deialdian eta 18:00etan, bigarrenean.

**GAI ORDENA**

1. 2014ko Batzar Nagusiko aktaren onarpena.
2. 2014ko jardueraren eta diru-kontuen azalpena eta onarpena, hala badagokio.
3. 2015eko bazkide ekarpenaren zenbatekoa finkatzea.
4. 2015eko egitasmoa eta aurrekontuaren onarpena, hala badagokio.
5. Zuzendaritza Batzordearen berritzea.
6. Galdera eta erreguak.

**EZOHIKO BATZAR NAGUSIA**

**Eguna:** 2015eko ekainaren 11n.
**Tokia:** Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan.
**Ordua:** 18:30ean lehenengo deialdian eta 19:00etan, bigarrenean.

**GAI ORDENA**

1. Estatutuen aldaketa.
2. Galdera eta erreguak.

*Onartu beharreko gaiei buruzko dokumentazioa aldez aurretik eskura dezakezue elkartean.*

Jasone Giraldo / Lehendakaria
Arrasaten, 2015eko maiatzaren 25ean.

# Fraiskozurin hasi dira saneamendu lanak egiten

## Lehenengo faseko hauek amaituta, bigarrenarekin joango dira inguruko etxeetako ur zikinak araztegira

**JULEN IRIONDO** | BERGARA

Bergarako Udalak ur zikinek ibaian bukatzen duten 212 puntu ditu identifikatuta herrian. Gehienak puntu isolatuak dira, ur zikin kopuru esanguratsurik isurtzen ez dutenak; baina badira sei puntu garrantzitsu, eta horietako bat da Fraiskozuri plaza ingurukoa. Puntu nagusietatik hasita, guztiei eman nahi die konponbidea Udalak, eta Fraiskozuriko lanak berriki hasi dituzte, horrela –Ibargarai kalean ere badihardute.


Fraiskozuri plazan lanean, martitzenean. | JULEN IRIONDO

Fraiskozuriko lanek bi fase izango dituzte, eta aurreneko honetan egingo dutena da lau atariri –30 bat etxebizitzari– eragingo dien hoditeria sartu. Etxeotako ur zikinak araztegira bidera daitezen, baina, lanen bigarren fasea amaitu arte itxaron beharko da, eta hori noiz izango den aurreratzerik ez du Udalak, udalbatzaren osaketa berriaren araberakoa ere bada-eta erabakia. Besteak beste, lanon kostu osoa handia dela eta erabaki berriak agintaldi berrian hartu beharko direla diote Udaletik. Lehenengo fase honetako lanek hilabete eta sei aste artean iraungo dute.

### Erregetxon ezin aparkatu

Hilaren 15ean hasiko dituzte, bestalde, Bidekurutzetako irisgarritasun lanak, eta Udalak jakinarazi du ekainaren 8ko gauerditik aurrera ezingo dela Erregetxo plazan autorik utzi, lanetarako kasetak eta materiala egongo dira-eta bertan.

### Asfaltatze lanak

Maiatzean atzeratutako lanak, berriz, datorren astean egingo dituzte: Bolun, astelehen goizean fresatze lanak eta hurrengo bi gauetan asfaltatzea eta pintaketa; Leizeagan –herri sarrera–, asteazken eta ostegun gauetan dena.

### Gure Esku Dagoren saioa ekainaren 21eko festaren gainean

Joste Egunaren gaineko bideo erreportajea eman eta bilera informatiboa egingo du Gure Esku Dagok martitzenean, 19:00etan, Irizarren. Ekainaren 21eko Donostiako ekitaldirako eta autobusetako sarrerak, berriz, Igaron eta Lazkanon eros daitezke. Azkenik, gaur bertan *Jostunak* emango dute gaztetxean, 18:00etan.

### Emakumeen Mundu Martxaren asanblada, eguaztenean Irizarren

2015eko Emakumeen Mundu Martxaren asanblada informatiboa egingo dute eguaztenean, hilak 10, Irizar jauregian. 18:30ean hasiko da, eta bertan parte hartzeko gonbidapena egin dute Martxanterak taldekoek. Asanbladaren ondoren, 19:30ean, kaleko ekintza bat ere egingo dute. Emakumeen Mundu Martxa zer den ezagutzeko aukera egongo da, beraz.

### Ondarea Bertatik Bertara: Errekaldeko lorategira bisitak

Gipuzkoako Foru Aldundiaren programaren barruan, eta Laboratorium museoak antolatuta, Xabier Aranburuk gidatuko ditu asteburuko bisitak: zapatuan euskaraz eta domekan gazteleraz, biak 12:00etan. Erdi Aroan jatorria duen Errekaldeko dorrearen inguruko lorategi ingelesa izango da protagonista.

## OHARRAK

**SAN MARTZIAL**
Ekainaren 8ko 12:00ak aurretik eskatu behar dira erromeriarako kantina eta txosna.

**BERGARA HIRIA**
Hilaren 10a artekoa da argazki lehiaketarako onarpen epea.

**KAFE KONPON**
Hilaren 10ean, 16:00etatik aurrera, San Joxepen.

**IGERILEKUAK**
Ekainaren 12an hasiko da udako denboraldia.

**SOLSTIZIO GAUA**
Solstizio gaua antolatzeko bilera irekia, hilaren 9an, Oxirondon, Xaxauren eskutik.

# Otaba jaiak ospatuko dituzte bihartik aurrera Elosuan

**J.I.** | BERGARA

Zapatuan hasi eta astelehena bitartean ospatuko dituzte festak Elosuan. 16:00etan etxafuegoak jaurti eta kanpaiak jo, eta 16:30etik aurrera mus txapelketa egingo dute bihar.

Domekan, 12:00etan, pilota partidua egongo da, eta ordubete geroago hasiko da meza. 14:30ean, berriz, erretiratuen bazkaria egingo dute Elurmendi elkartean; Epelde eta Lutxurdio trikitilariak ibiliko dira giroa alaitzen.

Eguneko egitarauari amaiera emateko, 18:00etatik aurrera dema izango da: *Koatei*-ren astoa 550 kiloko *Lutxurdio* harriarekin eta Inazio Arregi *Burni* 62 kiloko burdinarekin, hogei minutuko lanean.

### Astelehena, Otaba Txiki

Astelehenean, berriz, auzoan hildakoen aldeko meza egingo dute, 12:00etan; *piskolabitx*-a 13:00etan; 15:00etan, auzo bazkaria; 17:30ean, ume zahar (sic) eta gazteentzat jolasak; triki-poteoa 19:00etan; eta 21:00etan, auzo afaria eta erromeria. Lajak eta Lutxurdiok jarriko dute giroa egun osoan.

Jaiek irauten duten egunetan taberna zerbitzua egongo da.


Etxebizitza eraikina eta eguneko zentroa hartuko dituen gunea. | J.I.

# Hitzarmena sinatu eta eguneko zentroa Ernai kaletik gertuago

**J.I.** | BERGARA

Udalak eta Grupo Eibarrek sinatutako hitzarmenarekin, Ernai kaleko etxeen sustatzaileak hurrengo egingo dituen etxebizitzak –41– aurreikusitakoa baino handiagoak izango dira; bezeroek eurek adierazi ei dute azalera handiagokoak nahi lituzketela etxeak, eta horregatik egin zuen eskaria sustatzaileak. Baimenaren truke, eraikin berri horren beheko solairuan guztiz ekipatutako 500 metro koadroko lokala jasoko du Udalak –eta babes ofizialeko 22 bat etxebizitza, han edo beste nonbait–, eta eguneko zentro berria bertan jartzeko asmoa du. Gaur egunekoak 25 lagunentzako du lekua, eta beteta dago. Berriak 40 lagun hartu ahal izango ditu.

### Irialde Mekolaldera

Bestalde, Udalak Irialde enpresarekin ere sinatu du beste hitzarmen bat, Mekolaldeko gunea urbanizatu eta enpresak bertan jar dezan ekoizpena: "Bergarako ekonomiarentzat oso garrantzitsua izan daiteke, ze etorriko da-eta enpresa berri bat proiektu indartsu batekin", zioen jarduneko alkateak.


J.I.

## Bidea zabaldu egingo dute

Urdangarin eta Alkabieta kale tarteko argazkiko bide zatia zabaldu egingo du Udalak, bihurgunea egiten duen lorategi zatia –42 metro koadro– haren jabe komunitateari erosi eta gero. Egungo egoeran, puntu deserosoa da bihurgune itxia hartu behar duten ibilgailuentzat, eta arriskutsua oinezkoentzat –bizikletan doazenentzat...–.


IMANOL SORIANO

## Ofizialki ireki dute loratategia

Domekan egin zuten Olaso Dorreko lorategiaren irekiera ofiziala, Udaleko eta Olaso Fundazioko ordezkariekin. Jarduneko alkate Jaione Isazelaiak eta Jose Luis Elkorok zinta moztu eta, behin lorategian, haren gaineko azalpenak jaso zituzten bertaratutakoek, Jon Arroitaren eskutik. Dorre barruko gela bat bisitatu zuten.

**Julen Azkoaga Biritxinaga** | Nekazaria

# "Azoka berreskuratzea eta bultzatzea inportantea da"

JULEN IRIONDO | BERGARA

Urtebete da hileko lehen eguaztenetan azoka egiten hasi zirela, Azoka Bergaratzen ekimenaren barruan –ospakizuna egin dute astean–. Ekimen horretan dihardute, besteak beste, herriko kontsumo taldea hornitzen duten Eskubaratz taldeko nekazariek.

**Zein da urte honen balorazioa?**

Helburu bat zen Bergarako eta inguruko ekoizleak laguntzea, eta beste bat, azokari indarra ematea herritarrentzako gune bezala, eta ekoizle eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzena bultzatzea bertan, garaiko eta bertako produktuekin, beste kontsumo eredu batera bidean. Bestalde, nahi izan da, baita ere, asteburuan azokan ohikoak ez direnak, gazteak eta umeak, batez ere, bertaratu daitezela; pentsatu zen litekeena zela jende hori astean zehar eta arratsaldez azokara joaten hastea. Gauza batzuk lortu dira eta beste batzuk ez. Jendeak hartu du ohitura hileko lehen eguaztenean azokara etortzeko, baina gainerako eguaztenetan ere bizpahiru ekoizle egoten dira, eta ez da nahi beste jende joaten. Bestetik, ekoizleon arteko harremana ere bultzatu nahi da, baina oraindik gutxi gara azokara joaten garen ekoizle eta saltzaileak. Alde baikorretik, umeak-eta ere etortzen dira, eta umeentzako oso interesgarriak dira egiten diren tailerrak-eta.



Julen Azkoaga. | JULEN AZKOAGA

**Orain arteko Udal Gobernuarekin jardun duzue elkarlanean; zer nahi zenukete arduradun berriengandik?**

Ekoizleok ikusten dugu azoka berreskuratzea eta bultzatzea garrantzitsua dela. Pentsatzen dugu datozenak ere batuko direla ekoizleokin, eta ea ze ideia duten; gauza da bakoitzak ze kontsumo eredu bultzatu nahi duen, ez da-eta gune bati bizia ematea bakarrik, kontzientziazioa ere bada helburua. Gure esperantza da nahiko dutela honi jarraipena ematea.

# Bi bidaia aukeran, zuzendaritza berriarekin

Martxan jarraitzen dugu San Joxepen: Lisboa eta Aiala bailara ezagutzeko izena eman daiteke

KOMUNITATEA GOIENA
SAN JOXEPE | BERGARA

Ekainaren 15ean bukatuko da irailaren 17tik 23ra Lisboara egingo dugun bidaiarako izena emateko epea. San Joxeperen bulegoan eskuratu ahalko duzue informazio gehiago.

**Aiala bailara**

Ekainaren 16an Aiala bailarara (Araba) egingo dugu irteera. 09:00etan irtengo gara autobus geltokitik, eta ikusiko dugu Angosto eta egingo dugu bisita gidatua Orduñan. Amurrion bazkaldu eta arratsaldean Gasteizen egingo dugu geldialdia.

**87 urteko omenduak**

Beste ohar bat ere eman nahi dugu: oroigarriak jaso ez dituzten 87 urteko omenduak edo senideak pasa daitezela haien bila San Joxepetik.

**Zuzendaritza berria**

Martxan ari da zuzendaritza berria. Jose Ramon Eguren presidentea, Ignacio Illarra, Emilio Gutierrez eta Aderito Prieto dira kide berriak.



San Joxepeko zuzendaritza berria. | SAN JOXEPE

## Hitzaldi-tailerra bihar sendabelarren gainean Uberan

Ubera Natura zikloari amaiera emateko, Idurre Arangurenek eta Itziar Egidazuk gidatutako tailerra izango da bihar, zapatua, auzoko elkarte ondoko lokalean, 11:00etatik aurrera. *Sustarretatik sendabelarretara* izenburupean, sendabelarrak nola identifikatu, jaso eta lehortu azalduko dute, eta erabileraren gaineko azalpenak emango dituzte. Gainera, ukenduak egingo dituzte, eta etxera eramateko aukera izango dute parte-hartzaileek.

## Hilaren 9ra arte eman daiteke izena Domeka Azokan parte hartzeko

Oraingoan, hilaren 14an izango da bi hilean behingo azoka –hirugarren domekan, 21ean, Gure Esku Dagoren hiriburuetako ekimena dagoelako–. Hilaren 9ra arte eman daiteke izena, eta, postua jartzeko gero eta eskaera gehiago dagoela-eta, irizpide batzuk finkatu dituzte: bigarren eskuko materiala saltzen dutenek eta trukea bultzatzen dutenek izango dute lehentasuna. Artisauen artean, berriz, lehenik herrikoek, gero bailarakoek, eta, azkenik, kanpokoek.



# Kirola kalera aterako dute asteburu honetan Bergaran

## Herritarrengan aktibotasuna eta kirolaren praktika sustatzea da helburua

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Badira lau urte Bergaran *Kirola kalera* egunak antolatzen hasi zirela, eta hala egin dute asteburu honetarako ere.

Zapatuan, spinningeko eskola magistrala egingo dute Agorrosinen, baina domeka izango da egun handia. *Nordic walking* eta irristaketa ikastaroak egongo dira, besteak beste.

**Triatloi txikia**

Edizio honetako nobedaderik garrantzitsuena gaztetxoentzako triatloia da. Antxintxikan taldeko Aitor Rementeriaren esanetan, "kirol gogorraren irudi hori" kendu nahi diote triatloiari, guztiendako egokia dela erakutsita.

Hiru maila izango dira: benjaminak, alebinak eta infantilak. Hasi aurretik, 09:00etarako hitzordua egin dute Agorrosinen, araudia eta behar den materiala ezagutzeko. Izen-emate epea bihar proba hasi arte egongo da zabalik.



Udaleko eta Antxintxikan–eko ordezkariak ekimena aurkezten. | GOIATZ ARANA

### EGITARAUA

**EKAINAK 6, ZAPATUA**

**16:30-19:30** Areto txirrindularitzako eskola magistrala.

**EKAINAK 7, DOMEKA**

**10:30** Triatloi txikia.

**10:00-11:00** Nordic walking ikastaroa.

**11:00** Nordic walking irteera.

**11:00-13:00** Familia irristaketako ikastaroa.

**13:00** Mosaiko erraldoia.

# 3x3-ko txapelketa itzuliko da ekainaren 20 eta 21ean

## Lehenago, hilaren 14an, uretako 4x4 saskibaloi txapelketa antolatu dute Agorrosineko igerilekuan

M.T. | BERGARA

Bergara Kirol Elkarteko Saskibaloi sailak jada ohitura bilakatu den 3x3ko txapelketa antolatu du beste behin ere.

Partiduak San Martin plazan izango dira hilaren 20 eta 21ean. Lehen egunean, infantil eta kadetez osatutako taldeek jokatuko dute goizeko hamarretatik aurrera. Arratsaldean, berriz, junior eta seniorren txanda izango da 16:00etan hasita, eta domekan gainontzeko kategorietakoak arituko dira 10:00etatik aurrera.

Izen emateko azken eguna ekainaren 17a izango da. Taldeak hiru edo lau pertsonakoak izango dira, eta federatutako bi jokalari egon daitezke gehienez. Eskaerak Agorrosinen, Labegaraietan, kirol elkartearen lokalean eta ikastetxeetan egongo dira eskuragarri.

**4x4 uretan**

Datorren egubakoitzean, hilak 12, uretako 4x4 txapelketa ere aurkeztu dute BKEkoek. Benjamin, alebin eta infantil kategorietako neska-mutikoei zuzenduta dago, eta izen ematea eguaztenera arte egongo da zabalik.



Iaz txapelketako irudia. | IMANOL SORIANO

### Pol-poleko beteranoek mendi irteera egingo dute Palentziara asteburu honetan

Bihar goizeko seietan abiatuko dira frontoitik. Interesatuek gaur eman dezakete izena, 19:00etatik 20:00etara, mendizale taldearen egoitzan, 75 euro ordainduta. Biharbertan Peña Redondara joango dira Castrejon de la Peñatik abiatuta, eta etzi, berriz, Mave-Las Tuerces-Villaescusa de las Torres ibilbidea egingo dute.

### Juan Luis Goikolearen erakusketa ikusgai Aroztegi aretoan

Margolari arrasatearraren koadroak hilaren 14ra bitartean egongo dira erakustokian. Askotariko teknika eta materialak erabilita eginiko hamazortzi margolanez osatuta dago *Bidetik zehar* izeneko erakusketa, eta kolore biziak dira nagusi margolan gehienetan. Aretoa 18:00etatik 20:30era egongo da zabalik martitzenetik egubakoitzera, eta asteburuan baita eguerdiz ere. Domeka arratsaldez, aldiz, itxita. egongo da.

### Musika eskolaren udaberriko jai-kontzertua bihar

Hasteko, eguerdiko ordu batean, kalejira egingo dute San Martin, plazan hasita. 19:00etan, berriz, emanaldiak egingo dituzte eskolako hainbat taldek Udal Pilotalekuan. Bukatzeko, 21:00etan, herri afaria eta jaialdia egingo dute. Sarrerak musika eskolan daude salgai, 4 eurotan nagusiendako eta 2 eurotan haurrendako. Bihar bertan (zapatua) frontoiko leihatilan ere eskuratu ahal izango dira.

### Stoltz-Frères organoaren aldeko kontzertua etzi Orfeoi Gaztearen eskutik

Bergarako Stoltz-Freres Organoaren Lagunak Elkarteak antolatu du emanaldia. Talde horrek San Pedro parrokiako organoaren konponketarako dirua batzea eta hura babestu eta ezagutaraztea du helburu. Domekan arituko den orfeoia 13 eta 16 urte bitarteko gaztez osatuta dago, eta Nagore Sanzen zuzendaritzapean jardungo dute. Kontzertua 19:00etan izango da, Mariaren Lagundiko elizan.

NIRE USTEZ



ANDER BOLIBAR

## Juan zan sua

Surik gabeko solstizioa aurkitu genuen plazara gerturatutako bergarar askok aurreko urtean. Astroek dakarzkiguten exo-aldaketek ez digute barru berotasunik ematen.

Zaila begiratuz soilik sortzen den su bat aurkitzea gure inguruan. Euskalgintza, udako futbol torneoa, Kartzela Zaharreko egitaraua, 3x3 txapelketa, Martxanterak, Gorlako igoera, Txapa irratiaren emisioa, Lokatzaren oparotasuna, Xaxau konpartsa, presoekiko elkartasuna, Pol-Pol mendi elkartea, *fracking*-aren eta AHTaren aurkako ekimenak, Zibergara, elikagaien bankua, Gure Esku Dago, Arranoko pilota eta frontenis txapelketa, herri musikalak, Libre dinamika… Boluntarioen lan eta ametsetan errotzen diren hamaika su ditugu herrian.

Kalebistan ezkor sumatzen dira garrak, suaroa itzuli da udalera. Sute perfektua, kontrolatua. Fahrenheit 451 brigada. Txapel makurra erro aldaketetarako. Hausnartzeko, eraldatzeko eta erraustetatik birsortzeko aukerak baliatu behar dira, ordea. Instituzioak lehengai izan daitezke, baina ez su.

Aldaketen bezpera betikotuaren sentipen garai hauetara bueltan da herri sua. Xaxau konpartsak Haur eta Guraso Asanbladarekin batera piztuko du gaua. Eguzki geldiaz argitzea baino gehiago, tximistetatik babestea. Askok dantzatuko dugu berotasuna, itzali arte balioetsi ez dugun bezala.

**"Suaroa itzuli da udalera. Sute perfektua, kontrolatua"**



# Mendeetako tradizioa beteko da domekan

San Migel eta dantzari kapitain berriekin aterako da aurtengo prozesioa

MIREN ARREGI | OÑATI

Apostoluen eta San Migelen jantziak eta ileordeak atonduta, santuen irudiak ermita eta elizetatik ateratzeko prest, eta dantzariak oinak astintzen hasteko gertu, beste behin ere, mendeetako tradizioa beteko da etzi, domekan, Oñatin. Eliza katolikoaren egutegian Corpus Cristi eguna atzo, eguena, izan bazen ere, urteak dira eukaristiaren omenezko prozesioa domekan egiten dela.

Goizeko hamarretan ekingo zaio egunari, Oñatz dantza taldeko dantzariek lagunduta, prozesioko irudiak San Migel parrokiara ekartzen hasiko diren unean bertan. Parrokian sartuko den azken irudia izango da San Migelena, eta hori, 11:00etako meza nagusia hasi baino minutu gutxi batzuk lehenago egingo da. Meza hastearekin batera, Santa Ana antzokian, apostoluak eta San Migel nola janzten dituzten ikusteko aukera egongo da. Mezaren ondoren hasiko da prozesioa.



Kofradiako bi kide eta Santa Ana komentuko moja, martitzenean. | J.D

**Berrikuntzak**

Aurten, gainera, bada berrikuntzarik; besteak beste, Fernando Diazen testigua hartuko baitu Ibai Gonzalezek. Hura izango da aurten, San Migelen jantzia gainean eramango duena. Dantzari kapitaina ere, orain arte ez bezala, Iñigo Murgiondo izango da.

Prozesioaren ostean, 13:30ak inguruan, Musika Bandaren kontzertua egongo da plazan.

**Dantzak gaurtik**

Corpus jaien adierazgarrietako bat Corpus dantzak dira, eta, aspaldiko ohiturari jarraituz, Oñatz dantza taldeak herriko auzoetara eroango ditu Corpusetako dantzak eta doinuak. Goizean zehar egingo dute hori, eta arratsaldean, 14:30ean hasita, herriko ikastetxeetan, eta Ugarkalde, San Martin eta Kasablanka auzoetan arituko dira, Txistulari bandak lagunduta. Bihar ere izango dute non dantzatu dantzariek, goizeko bederatzitan herriko plazan eta ondoren kaleetan barrena arituko baitira.

Bestetik, bihar, 19:00etan, Oñatiko XIII. nazioarteko lasterketari emango zaio hasiera, herriko plazatik.

**Turismo Bulegoko eskaintza**

Eskaintza zabala du Turismo Bulegoak egunotara begira; esaterako, hilaren 14ra arte, Jose Luis Ormazabalen lanak ikusi eta erosi ahal izango dira bertan; baita Iñaki Jauregialtzorenak ere.

Biharko, zapatua, 08:45erako, Corpusetako bisita gidatu berezia antolatu du Turismo Bulegoak. Goizeko bederatzietan plazan egingo diren dantzak ikusiko dituzte, lehenik, eta prozesioak egiten duen ibilbidea egingo dute, ondoren.

Azkenik, etzi, domekan, apostoluak eta San Migel nola janzten diren ikustera joateko bisita gidatua antolatu dute. Hiru euro ordaindu beharko dira eta gaur, egubakoitza, da izena emateko azken eguna.

# Oñatin ere, Nepali laguntzeko ekimena

Lurrikaren ostean oso egoera larria bizi dute Nepalen; haiei laguntzeko ekimena martxan da

M.A | OÑATI

Nepal Lagunduz izena ipini diote Oñatiko hainbat eragilek eta norbanakok herrialde asiarrari laguntzeko antolatutako ekimenari. Oñatiko Udala, Turismo Bulegoa, Mendiak eta Herriak Elkartea, Aloña Mendi mendi saila eta beste hainbat eragile eta norbanako daude ekimenaren atzean eta helburua da Nepalen alde dirua batzea.

Helburu horrekin hainbat ekintza antolatu dituzte; esaterako, ekainaren 10ean Eusebio Noboa oñatiarraren argazkiekin diapositiba emanaldia egingo dute kultur etxean, 19:00etan: "Lurrikararen aurretik herrialdea nola zegoen eta ondoren nola gelditu den erakutsiko dute emanaldi horretan", dio Gaizka Galfarsorok, Aloña Mendi mendi saileko kideak. Beste ekintza bat ekainaren 12an egingo dute; "Nepal Lagunduz eguna egingo da egun horretan. Arratsaldeko seietatik aurrera pintxo-pote solidarioa egongo da herriko plazan, eta bertan, Nepalen ohikoak diren *momo* eta *selroti* izeneko jakiak dastatzeko aukera egongo da", diote antolatzaileek. Horretaz gain, diaporama emanaldia ere egingo dute.

Ekainean zehar, diru ekarpenak jasotzeko itsulapikoak ipiniko dituzte herriko hainbat puntutan: Turismo Bulegoan, kultur etxean eta Zubikoa kiroldegian egongo dira horiek. Eta ekainaren 15etik 30era, Felipe Uriarte mendizalearen argazkiz osatutako erakusketa egongo da Turismo Bulegoan.

Ekimenaren bultzatzaileek gogora ekarri dute lurrikaren eta errepliken ondoren egoera oso larria dela Nepalen; urte sasoi hau montzoien garaia dela gogora ekarri dute.



Ekimenaren bultzatzaileak astean, kultur etxean. | TXOMIN MADINA

# Aloña Mendi Espeleologia Taldeak lapurretak salatu ditu

M.A | OÑATI

Oñatiko hainbat kobazulotan lapurretak gertatu eta gertatzen ari direla salatu du Aloña Mendi Espeleologia Taldeak. Foru Aldundiari ekintza horien berri eman diote, behar diren neurriak har ditzan.

Halaxe adierazi dute espeleologia taldetik: "Horretan dabiltzanek lurrean zuloak egin, hezurrak atera, puskatu eta gustukoenak eramaten dituzte euren bilduma pribaturako". Salatu dute lapurretekin hezurrak berak eman dezakeen informazioaz gain hezurraren testuinguruak ematen duena ere desagertzen dela betiko: "Jakina da arkeologian askotan aurkitzen den horrek baino informazio gehiago ematen duela testuinguruak", adierazi dute.

Aurreratu moduan, Aloña Mendi Espeleologia Taldea Foru Aldundiarekin harremanetan da lapurretak izan diren momentutik: "Espeleologia taldeak ekintza negargarri horien berri eman dio Foru Aldundiari, lapurreta gehiago egon ez daitezen hartu beharreko neurriak har ditzan". Espeleologia taldeak adierazi du, gainera, herri ondarearen ikerketa, babesa eta kontserbazioa herri erakundeen ardura dela, kasu horretan Gipuzkoako Foru Aldundiarena, eta, hori horrela, harremanetan daudela haiekin.

**Denon ardura**

Azkenik, espeleologia taldeak herritar guztiei gogora ekarri gura izan die herriko ondare arkeologikoak duen garrantzia: "Oñatiko ondare arkeologikoa aberatsa da eta oñatiarrok harro egon behar dugu horretaz. Denon ardura da, ezin dugu utzi hori galtzen batzuen kapritxo eta zitalkeriarengatik".

# Irazan antzerki-gunea sortu da, diziplinaz gozatu eta interesa duen jendea batzeko

Helburua antzerkia egitea izango da, eta ez antzerkia egiteko ikastea

M.A | OÑATI

"Irazan antzerki-gune bat izango da, ez eskola bat. Ez dugu gura akademia izaerarik, antzerki-gune bat hori izango baita, antzerkia egiteko gune bat". Hala deskribatzen dute Irazaneko kideek sortu berri duten proiektua. Eltzian elkartuko dira, hasiera baten astean behin, eta helburuak dira, besteak beste, antzerkiarekiko interesa duen jendea batu eta talde-giroa sortuta antzerkiaz gozatzea; herriko antzerkia herriari gerturatzea; bestelako elkarteekin ekintzak uztartzea eta formazio saioak jasotzea.



Irazan osatzen duten kideak. | IRAZAN

**Saio irekia ekainaren 11n**

Irazanek hiru ekintza antolatu ditu 2015erako: udan, formazio saio bat, "aditu edo arituek" emandako saioa; Gabon inguruan umeekin prestatutako ikuskizun bat; eta azkenik, antzerkiarekin lotutako jarduerak ikustera joateko irteerak.

Taldearen izaeraren, helburuen, lan egiteko moduen, eta abarren gainean herritarrak informatzeko ekainaren 11n, eguena, 18:00etan, saio irekia egingo dute Eltzian. Interesa izan dezaketen guztiek, bestalde, informazio gehiago eskura dezakete *irazantaldea@gmail.com* helbidera idatzita; eta *@IRAZANgunea* Twitter kontuan.

# Askazubiko Joxe Lizaurrek egindako tresnak ikusgai daude

Erakusketaz gain, liburua eta DVDa ere atera dute Aurrekomendi erakusteko

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

50 urte beteko ditu Aurrekomendiko auzotarren topaleku den Lizargarate elkarteak, eta, urtemuga ospatzeko ekintzen artean, Askazubi baserrian gordeta zegoen tresneria herritarrei erakustea erabaki dute. Erakusketa ekainaren 14ra arte egongo da zabalik, kultura etxean, arratsaldez.

Lizargarate Elkarteak prestatu du erakusketa, Artixa taldearekin batera, eta Aurrekomendin dagoen Askazubi baserriko Joxe Lizaurrek hil aurreko azken 15 urteetan eskuz egindako tresnak batzen ditu: lanabesak, etxerako tresnak, sukalderakoak, lotarakoak... Joan den astelehenean inauguratu zuten, Bixenta Aiastui alargunak farol txiki bat piztu ostean.



Lizaurren senideak, auzotarrak, antolatzaileak eta alkatea inaugurazioan. | M.B.

**Aurrekomendikoak**

Antolatzaileekin batera Joxe Lizaurren senideak egon ziren erakusketaren inaugurazioan. Han ziren, esaterako, emazteaz gain, alabak eta ilobak. Baita Aurrekomendiko auzotar asko ere. Ospakizunetan murgilduta, kantuan egin zuten guztiek elkarekin. Antolatzaileek eskerrak eman zizkieten Joxe Lizaurren senideei erakusketa prestatzeko emandako prestutasunagatik. Mikel Biain jarduneko alkateak, berriz, horrelako tresneria guztion patrimonioa dela esan zuen, eta zaindu egin behar dela.

Erakusketa kultura etxeko erakusketa gelan dago ikusgai hilaren 14ra arte.

**XABIER UGARTE**
ARTIXA ELKARTEA

## "Auzotarrek kontatutako bitxikeriak ditu"



GOIENA

*Aurrekomendiko kontuak* liburua atera dute elkarlanean Aurrekomendiko auzotarrek, Lizargarate Elkarteak eta Artixa taldeak. Xabier Ugarte Artixako kide da.

**Zer jasotzen du liburuak?**

185 orri ditu eta Lizargarate Elkartearen 50 urteko errepasoa eta izen bereko trikiti elkartearen sorrera dakar, batetik. Baita auzoari buruzko bitxikeriak eta kontuak ere, auzotarrek eurek kontatuta. Argazki zaharrak ere baditu.

**Non eros daiteke liburua?**

Turismo Bulegoan eta Txokolaterixan dago salgai, 10 eurotan. Zapatuan eta domekan ziurrenik Foruen plazan ere jarriko dugu mahaitxo bat liburua saltzeko.

## Protokolo artxiboa ikusteko aukera bihar

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

Bihar, zapatua, Artxiboen Nazioarteko Eguna da, eta Oñatiko unibertsitatean dagoen Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoak ate irekien eguna ospatuko du. Hala, bi bisita egingo dituzte bihar goizean, protokoloen artxiboan zer dagoen ikusteko: 11:00etan euskaraz eta 12:30ean gazteleraz.

Bisita gidatu horretan herritarrak bertatik bertara ikusi ahal izango ditu artxiboan gordetzen diren dokumentu asko; tartean, *Gipuzkoako historia ezagutu egunez egun dokumentuetan zehar*. Horietan, antzinako gipuzkoarren bizitza egunez egun jarrai daiteke. Artxiboan, kontsulta daitezke XV. eta XX. mendeen bitartean notarioek emandako dokumentuak, Gipuzkoako biztanleen jarduera partikularren lekukotza ematen dutenak... Bisitak hogei pertsonarendako izango dira, gehienez.

## Sotora doan arrapala egokitu egingo dute

**O.E.** | OÑATI

Gaztelekuko sotora sartzeko arrapala irisgarritasun neurrietara egokituko dute. Lanak aste honetan ziren hastekoak, eta bi aste iraun dezakete; hilaren 17ra arte iraun dezakete.

Gaur egungo sarrerak ez ditu irisgarritasun neurriak betetzen, eta, egokitze hori egiteko, arrapalaren maila leundu egingo dute, luzatu egingo dute. Eguaztena ezkero itxita dago sotorako sarrera hori eta lanak iraun bitartean horrelaxe egongo da.

NIRE USTEZ

**MARINA ETXEGOIEN**



## 'Cool'

*Best seller*-ak irakurtzen ditugu, agian *outlet* batean erositakoak. Etxera heltzen garenean *zapping* egiten dugu *prime time*-an zer dagoen ikusteko. Lehen *footing* egiten genuen, gero *jogging* eta gaur egun *running*, behar bada *personal trainer* baten laguntzarekin, gainera. *Peeling* edo *lifting* bat eginez, gure *look*-a aldatu dezakegu eta zortea badugu oporretarako erreserbatu dugun hegaldiak ez du *overbooking*-ik izango.

Ingelesetik jaso ditugun hitz hauek dagoeneko ez zaizkigu arrotzak egiten, sarri erabiltzen ditugu euskaraz zein gaztelaniaz mintzo garenean eta gure eguneroko hiztegia osatzen dute. Baina azkenaldi honetan, teknologiari lotuta batez ere, ingelesetik datozen hitz berri mordoa heltzen ari dira eta hauek azkar berenganatu behar ditugu, entzuten edo irakurtzen duguna ulertu ahal izateko. Adibidez, nork ez ditu *selfie*-ak atera edota eguneko *hashtag*-aren inguruan hitz egin? Beste arlo batzuetan ere oso modan dauden hitz berri ugari daude: *spoiler*, *hipster*, *it-girl*, *trendy*, *coach*... zerrenda luzea da.

**"Ingelesetik datozen hitz berri mordoa heltzen ari dira "**

Beti egon dira maileguak hizkuntza ezberdinen artean, baina, seguru aski, globalizatutako mundu honetan, hizkuntza boteretsuek errazegi aurkitzen dute bidea txikiagoak diren hizkuntzetara heldu eta bertan errotzeko. Eta hau *cool* edo aproposa ote den zalantza daukat.

## Hogeiko bobinatan josiko dituzten oihalak bihar Foruen plazan

Gure Esku Dagok ekainaren 21erako prestatu duen ekintzarako Oñatin pertsonalizatu diren oihalak hogeiko bobinatan josiko dira eta plazako arkupeetan jarriko dituzte zapatuan, 13:00etan, Foruen plazan. Kamisetak eta autobus nahiz Anoetarako sarrerak ere erosi ahal izango dira.

## EGA ikastaroa eskainiko du udan Udal Euskaltegiak

Aurten ere EGA ikastaroa antolatu dute udarako Udal Euskaltegian, eta izen-ematea zabalik dago hilaren 20ra arte. Udako eskola horiek izango dira ekainaren 29tik uztailaren 17ra eta irailaren 1etik 18ra; 112 ordu guztira. Interesa duenak euskaltegian eman behar du izena. Matrikularen prezioa 152 euro da.

## Datorren ikasturteko aurre-matrikula epea zabalik dago EPAn

Oñatiko Helduen Eskolak zabalik du 2015-2016 ikasturterako aurre-matrikulazio epea. Interesa duenak inskripzio-orri bat bete behar du, bere datu pertsonalekin eta matrikula ze ikasgaitan egin gura duen azalduz. Formulario hori helbide honetan dago: *epaonati.blogspot.com*.

## 80 urteko 44 oñatiar elkartu dira bazkaltzeko

1935ean jaiotakoek kintada ospatu zuten joan den maiatzaren 23an. "Aurten 80 urte egingo ditugun 44 oñatiar elkartu ginen eta oso ondo pasa genuen. Dantzarik ez genuen izan, baina ederki egon ginen elkarrekin", esan du Jesus Errastik.



SORALUZE OSTATUA

**Rafa Zulueta** | Izarraitz-Aloña Mendi eskubaloi taldeko entrenatzailea

# "Zaleen jarrera ikaragarria izan da, oilo-ipurdia jartzeko modukoa"

- Euskadiko Txapelketa mailan jokatuko du Aloña Mendik datorren urtean
- Bi jokalarik eta egungo entrenatzaileak ez dute taldean jarraituko

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

Euskadiko Txapelketa mailan jokatuko du datorren denboraldian Izarraitz-Aloña Mendi eskubaloi taldeak. Jendez goraino bete den Zubikoako kantxan 25-31 irabazi zion Barakaldori zapatuan.

**Zorionak!**

Eskerrik asko.

**Dagoeneko sinetsita lortu duzuena?**

Bai, egun batzuk pasa eta gero, lortu dugula sinetsi dugu.

**Nolakoa izan zen zapatuko partidua? Eta irabazi osteko momentua?**

Oso partidu ona izan zen, hasierako nerbioak alde batera utzita, izugarrizko partidua jokatu genuen. Duda barik, denboraldiko partidu onena denboraldiko egun garrantzitsuenean egin genuen eta hori lortzea ez da batere erraza. Irabazi osteko momentua oso hunkigarria izan zen. Oñatin gure zaleen aurrean igoera lortzea ametsa zen.

Domekakoan, jokalari guztiek jokatzeko aukera izan zuten, eta oso partidu parekatua izan zen bukaera arte; 28-29 galdu genuen.

**Zubikoa lepo bete zen.**

Zaleen jarrera ikaragarria izan zen, oilo-ipurdia jartzeko modukoa. Oñatin eskubaloiak zale asko ditu, eta asteburuan ikusi zen hori horrela dela. Lehenengo minututik zaleen animoak jaso genituen, eta taldeari emandako indarra neurtu ezina izan zen. Eskerrik asko, benetan.

**Zein da denboraldiaren balorazioa?**

Gorabeherak izan ditugu denboraldian, batez ere entrenatzeko izan ditugun arazoak, eta presio puntu hori genuelako. Bigarren itzulian, Elgoibarren jokatu genuen partidua, inflexio-puntua izan zen, eta hortik aurrera konfiantza handia hartu genuen.

**Jarri zarete datorren denboraldiari begira?**

Ez, oraindik asteburuan bizitakoa dugu buruan, eta aurrerago egongo da horretarako denbora.

**Ze itxura hartzen diozu?**

Zaila izango da kategoria aldaketa, joko eta erritmoan nabarituko da, baina taldea sendo ikusten dut eta konfiantza osoa dut.

**Aldaketarik egongo da taldean?**

Bai, aldaketa batzuk egongo dira. Taldean urte askoan eta erreferente izan diren Joxe Gartziak eta Aitor Aranburuk eskubaloia utziko dute, eta ni neu ere baja izango naiz entrenatzaile moduan.

**Zer eskatuko dio kategoria horretan jokatzeak taldeari?**

Entrenamendu aldetik antzera izango da, taldekide gehienak Oñatitik kanpo ikasten daude-eta. Bidaia aldetik, Bizkaian eta Araban egongo dira partiduak, baina Bergararen eta Legazpiren kontrako derbiak ere bai.

**Eskerrak eman gura dituzu.**

Bai. Izarraitz tabernari, eman digun babesagatik. Eskubaloi sailari, finala Oñatin jokatzeko egin duen esfortzuagatik. Tolosako jokalariei, Aloñako jarraitzaile amorratuen pare animatzearren gu. Igoera fasean egon garen taldeen arteko giro ona ere aipatu gura dut.



Rafa Zulueta, martitzenean Oñatin. | O.E.



PATXI BLAZQUEZ

**OSPAKIZUNAK** Partidua jokatu aurretik zuten erabakita ospakizunak domekan egitea, galdu edo irabazi. Garaipena lortuta, zapatuan kalean buelta bat egin arren, domekan bazkaria egin zuten taldekideek igoera ospatzeko. Udaletxeko balkoitik zaleak agurtu zituzten.

## 29 bikote ari dira lehiatzen herriko pilota txapelketan

**O.E.** | OÑATI

Aste honetan hasi da herri mailako pilota txapelketa. Martitzenean jokatu zituzten lehen partiduak eta gaur, egubakoitza, izango dira aste honetako azkenak, 18:30ean hasita, plazako pilotalekuan.

Guztira, 29 bikote aurkeztu dira aurtengo herriko pilota txapelketara, eta antolatzaileak, txosna batzordea eta Aloña Mendi, oso pozik daude. Maila berean jokatuko dute guztiek, zozketa bidez bost taldetan banatuta. Kanporaketa partiduak martitzen eta egubakoitzetan jokatuko dituzte ekainean eta uztailean, eta finalak, berriz, San Migel jaien barruan izango dira. Antolatzaileek indarra eman gura izan diote txapelketari, eta erantzunarekin pozik daude.

## Eskola jasangarriaren ziurtagiria jaso dugu

**KOMUNITATEA GOIENA** | OÑATI
ZUAZOLA LARRAÑA INSTITUTUA

Jasangarritasunaren eta ingurumenaren alde orain arte egin dugun lanagatik jaso dugu eskola jasangarriaren ziurtagiria. Lehendakariaren eskutik jaso genuen, hilaren 2an, Busturian. Nazioarteko Ingurumen Eguna da gaur, egubakoitza, eta gaur ospatuko dugu eskolan lortutakoa.



Ziurtagiria eskuetan. | ZUAZOLA

## 340 ume inguru lehiatuko dira zapatuan igeriketako Txantxiku Saria proban

**O.E.** | OÑATI

Igeriketako Txantxiku Saria jokatuko dute zapatu arratsaldean Zubikoa kiroldegiko igerilekuan. Oñatiko, Azpeitiko, Azkoitiko, Bergarako, Legazpiko, Eibarko, Donostiako, Irungo, Logroñoko eta Gasteizko igerilariak etorriko dira proban parte hartzera: 340 ume inguru guztira. 15:30ean hasiko da proba eta bi ordu eta erdi iraungo du, gutxi gorabehera.

### Itxita

Igeriketa probak direla-eta arratsaldean itxita egongo dira igerilekuak eta sauna. Igeriketa saiorik ez da izango.



Aloña Mendiko igerilariak Aretxabaletan joan den zapatuan | O.E.



ONINTZA NEGERUELA

## Saria ilustrazio onagatik

Aetz Larreak Haur Hezkuntzako bere kategorian bigarren saria lortu du Elkarrek Irrien Lagunak Klubarekin batera antolatu duen VII. ilustrazio eta ipuin lehiaketan. Pintura–estutxe osatua eta 50 euroko opari txartela irabazi ditu. Epaimahaiari gehien gustatu zaizkion 30 ilustrazioak *www.irrienlagunak.com* atarian daude ikusgai; tartean, Aetz Larrea eta Jokin Zubillaga oñatiarrenak.

## Zentro guztien topagune izan gura du bihar Urgain egunak

Urgaingo ikastetxe guztien topagune izateko asmoarekin antolatu dute biharko Urgain eguna, eta zentro guztietatik pasako den jolasez beteriko ibilbidea egingo dute, 11:00etan plazan hasita. Institutu aurrean izango da bazkaria, eta antzerkia, tailerrak eta musika ere egongo dira.



Aratzeko, Basotxoko, Arizmendiko eta UDAko kideak *Kirolez busti* ekimenaren berri ematen. | MIRARI ALTUBE

# Kirolez busti-busti egiteko aukera eskainiko du UDAk aste bukaeran

▶ Bizikleta lasterketak egingo dituzte gaztetxoek gaur Durana kalean

▶ Getxoko eta herriko sukaldariek paella eskainiko dute domeka eguerdian

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

*Aretxabaleta kirolez busti* ekimenak kirol mordoa ezagutzeko aukera eskainiko die herritarrei, bigarrenez. Aretxabaleta kirol elkarteak antolatuta, futbola ez den beste kirol batzuetara gerturatu gura dituzte helduak, gazteak eta umeak: "Ez dago sexu bereizketarik, ez dago adin mugarik, eta ez da lehiaketa; hortaz, etor daitezela beldur barik. Kirola egitea, ondo pasatzea eta gozatzea da kontua", jakinarazi du UDAko kide Oihana Matak. Eta herriko elkarte askoren laguntza izango dute horretan; besteak beste, Basotxorena, Arizmendirena eta Loramendirena.

### Goi mailako pala partidua

Bizikleta lasterketak eginda hasiko dituzte ekitaldiak gaur. 2 eta 14 urte arteko neska-mutikoen esprintak izango dira: "Orain dela urte batzuk Marino Lejarreta lagunarteak antolatzen zituen lasterketa horiek berreskuratu gura izan ditugu", dio Matak.

Gauean, ostera, Aratz elkarteko kideek egindako film laburrak emango dituzte; hainbat sari jasotako filmak, hain zuzen ere.

Zapaturako ere ekitaldi mordoa iragarri dituzte. Basotxoko erretiratuen eta UDAko kideen artean jokatu izan duten doke txapelketak beste bi talde izango ditu aurten norgehiagoka jokatzeko: Aretxarte eta Loramendi. Iturrigorri pilotalekuan, ostera, lehenengo, neska-mutikoek jardungo dute pilotan, eta gero, emakumeen goi mailako pala partiduak izango dira: "Gasteizko bikotea eta Mallabitik eta Urnietatik datozen kideak elkartuko dira. Ikustekoa izango da erakustaldia".

Eta zapatua bukatzeko, kirol jardueretan parte hartutakoen artean 30 euroko 10 txartel zozketatuko dituzte.

Domekan, mendi buelta egin ostean paella dastaketa izango da, Herriko Plazan. *Atxabalta ez da gatz bako herrixe* leloarekin, Getxotik etorritako sukaldariek eta Aretxabaletako Iñaki Uribetxebarriak eta Jesus Mari Errastik 200 lagunek probatzeko paella egingo dute –kiroletan jardundakoek debalde; gainerakoek 2 euroren truke–.

Eta kirolez bustitako aste bukaera agurtzeko, Aspaceko kirolariek erakustaldia egingo dute domeka arratsaldean, plazan.

## EGITARAUA

**EGUBAKOITZA**

- **17:00** Bizikleta esprintak, Durana kalean.
- **18:00** Gimnasia erritmikoa, Herriko Plazan.
- **19:00** Xunba, Herriko Plazan.
- **19:30** Bertso emanaldia, udaletxe zaharrean.
- **22:00** Film laburren emanaldia, Herriko Plazan.

**ZAPATUA**

- **08:00** Mendi bizikleta irteera, Herriko Plazatik.
- **10:00** Squasheko frontoi mugikorra, Kurtzebarriko kantxan.
- **10:30** Doke txapelketa, Basotxo aurreko lorategian.
- **11:00** Esku pilota, Iturrigorrin.
- **12:00** Goi mailako emakumeen pala partidua, Iturrigorrin.
- **13:00** Street boulderra, herriko eraikinetan.
- **13:00** Bertso poteoa.
- **17:00** Cricketa, Iturrigorrin.
- **17:30** Saskibaloia: jaurtiketak eta 3x3, Arlutzeko kantxan.
- **19:00** Trialsin erakustaldia, Mitarte plazan.
- **20:30** Zozketa, Mitarte plazan.

**DOMEKA**

- **08:00** Mendi irteera Leixargaratera, Herriko Plazatik.
- **13:00** Triki-poteoa.
- **13:00** Ziba erakustaldia, Herriko Plazan.
- **13:30** Getxoko eta Aretxabaletako sukaldariek egindako paellaren dastaketa, Herriko Plazan.
- **16:30** Kirol egokituen erakustaldia, Herriko Plazan.



Esther Sanchez eta *Zeus* txakurra aske-gunean. | AMAIA TXINTXURRETA

# Txakurren aske-gunea abian da MUren atzeko aldean

1.731 metro koadro ditu eta hesia jarri dute inguru osoan; jarlekuak eta zakarrontziak ere badaude

**M.A.** | ARETXABALETA

Txakurrendako aske-gunea abian dago. Maiatzean zabalik izateko konpromisoa hartu zuen Udaleko Ingurumen Sailak, eta halaxe da. 1.731 metro koadro ditu eta Mondragon Unibertsitatearen fakultatearen atzeko partean dago, Deba ibaiaren alboan.

Bilera bi egin zituzten udal ordezkariek herriko txakurren jabeekin, eta bertan egin zieten eskaera: "Txakurren jabeek eskatu ziguten aske ibiltzeko tokia behar dutela animaliek, eta hortik etorri da gunea. Txukundu egin dugu inguru guztia, hesia jarri eta baita jarlekuak eta zakarrontziak ere", jakinarazi du Lore Martinez Axpek, jarduneko zinegotziak. Eta han bete beharreko arauak gogorarazi ditu: "Txakurrak aske ibili ahal izango du, baina jabeak bertan egon beharko du. Eta txakurren kakak jaso egin beharko dira, beste edozein tokitan legez". Aurrerago herriaren iparraldean beste gune bat gertatu gurako luke Martinez Axpek: "Eta txakurren heziketa sustatu ere bai, jabeek hala eskatu zigutelako. Hori guztia, baina, hurrengo datozenei utziko diegu".

### Gero eta jende gehiago

*Zeus* txakurrak dagoeneko estreinatu du aske-gunea eta haren jabe Esther Sanchez pozik dago gunearekin: "Lekua oso ondo ezagutzen dugu, inguruan bizi garelako. Paraje ederra da, gainera, ibaia bertan dago freskatu bat hartzeko. Orain, beste txakur batzuekin egoteko aukera dauka; hortaz, oso gustura etortzen gara", dio, eta gaineratu du: "Gero eta jende gehiago dator".



Herritarrak, Pausokan ibilitako umeen argazkiei begira. | IRATXE BENGOA

# Bideoklipa aurkeztuta hasi ditu Pausokak 25. urteurreneko ospakizunak

**M.A.** | ARETXABALETA

Pausoka haur eskolak 25 urte bete ditu, eta astean hasi dira hori ospatzen. Pausokan ibilitako hainbat neska-mutikoren eta gurasoren laguntzarekin bideoklipa egin dute eta eguaztenean aurkeztu zuten jendaurrean. Datorren egubakoitzean, hilak 12, Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin batera abestuko dute, Herriko Plazan.

Bestetik, 25 urteotan haur eskolatik pasatutako ume guztien argazkiak jarri dituzte Arkupen ikusgai.

Ospakizunen barruan hitzaldia ere antolatu dute. Nerea Mendizalek egingo du, honako lelo honekin: *Oinez ibiltzen ikasi edo irakatsi*. Ekainaren 18an da, Arkupen, 18:00etan.

Eta jaiegun nagusia uztailaren 4an egingo dute.

# Joste Eguna bihar, zapiak josteko eta erabakitzeko eskubidea eskatzeko

Mitarte kaletik Herriko Plazara giza–zapi katea egingo dute, 12:30ean, eta han egin ekitaldiak

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Gure Esku Dago Aretxabaletako lantaldeak deituta Joste Eguna egingo dute bihar, zapatua. Erabakitzeko eskubidea aldarrikatu gura dute aretxabaletarrek ere eta ekainaren 21eko ekitaldiak gertatuko dituzte.

**Kalejira eta joste ekitaldia**

Azken asteotan eskuratutako zapiak gertatu dituzte herritarrek eta bihar, 12:30ean, kalejira egingo dute zapi horiekin Mitarte kalean hasi eta Herriko Plazaraino. "Zapia apainduta eraman guztiok eta gogoratu txartela ere eraman behar dela", jakinarazi dute antolatzaileek. Ondoren, 13:00ak aldera, zapi horiek guztiak josi egingo dituzte Herriko Plazan, eta Gu Haziak Gara elkarteko kideen laguntza izango dute horretarako. "Eta behin lan horiek bukatutakoan, erabakitzeko eskubidearen aldeko olatua egingo dugu guztion artean".

**Ekainaren 21erako sarrerak**

Bestetik, bihar, ekainaren 21eko ekitaldietarako sarrerak salduko dituzte. Antolatzaileek gogorarazi dute sarrerak zenbakituak direla eta taldean joan gura izanez gero kopuru zehatza hartu behar dela. Hona prezioak: 0 eta 2 urte artekoek, debalde; 3 eta 14 urte artekoek, bost euro; eta gainerakoek, 10 euro. Ekitaldi horietarako egin dituzten kamiseta laranjak ere izango dituzte salgai bihar, plazan.

# Oskar Estanga bertsotan gaur Gazte Eguakotxetan

Jon Martin izango du lagun udaletxe zaharrean

**M.A.** | ARETXABALETA

Gazte Eguakotxek bertsoak ekarriko dituzte gaur Durana kalera; bertso musikatuak, hain zuzen, Oskar Estangaren (Gaintza, 1978) eta Jon Martinen (Oiartzun, 1981) eskutik. Gazte Ekimenak antolatu du Lekaixoka musika eskolakoen laguntzarekin eta 19:30ean izango da. "Joan den astean etxeko Theskarga taldeak herrian egiten dabilen biraren barruko kontzertua eskaini zigun eta giro ezin hobea sortu kalean. Oraingoan, ostera, estiloa aldatu eta bertsoak datoz musikarekin girotuta", jakinarazi du Ibai Zangituk, antolatzaileak.

**Andramaixetarako dirua**

Jatekoa eta edatekoa ere eskaintzen dituzte gazteek kontzertuek iraun bitartean: "Horren asmoa da dirua batzea gero gazteon gustuko ekitaldiak antolatzeko, Andramaixetan esaterako", argitu du Zangituk. Hala, Def Con Dos taldearen kontzertua izango dela jaietan txosnagunean iragarri du, baita herriko taldeen kontzertuak ere, eta Zopilotes Txirriaos nafarrak ekartzeko ahaleginetan dabiltzala.



Theskarga taldea joan den egubakoitzean Durana kalean. | ANDER LARRAÑAGA

## Musika eskolako bandaren saioa gaur Arlutzeko kantxan

**M.A.** | ARETXABALETA

Ekainarekin batera jarri da abian Kultura Sailak antolatutako *7x7* ekimena, eta eguaztenean txotxongiloak izan ziren Gipuzkoa plazan. Gaur, ostera, musika izango da protagonista; Leizarra musika eskolako bandak kontzertua eskainiko du, 19:00etan, Arlutzeko kantxan. Musika eskolako ikasleekin osatutako banda gazteari txistulari taldeak egingo dio lagun hainbat abestitan.

Datorren eguaztenean ere, ekainaren 10ean, musikarekin jarraitu eta Madagaskarko Yves Rakotomalada *Rakoto* etorriko da beste bi musikarirekin batera Mitarte plazara, 19:00etan. Aditeuk *world music* izena jarri diote haren musika estiloari; Europakoen eta *malgash* doinuen nahasteari, hain zuzen.

## Irati Urkia Galartzak eskuratu du Aretxarteren 500 euroko txartela

**M.A.** | ARETXABALETA

Azken bi asteotan Aretxarte merkatarien elkartean erosketak egiteagatik zozketa txartelak bete dituzte bezeroek 500 euroko bonua eskuratzeko. Astean egin dute zozketa, eta Irati Urkia Galartza aretxabaletarrarendako izan da 500 euroko bonu hori.

Diru hori Aretxarteko komertzioetan erabili beharko du Urkiak, eta erosketak bihar goizean egin beharko ditu derrigorrean.

Bestetik, Aretxarteko tabernariek 20 euroko bost bonu zozketatu dituzte. Bonu horiek ere bertako tabernetan erabiltzeko izango dira.

## Hego Amerikaren eta Asiaren gainean jardungo du Mirari Arandok eguenean

**M.A.** | ARETXABALETA

Mirari Arando aretxabaletarra eta Koldo Balantzategi arrasatearra izango dira kontu kontari datorren eguenean, hilak 11, *Ostegun Bidaiariak* ekimenaren barruan. Orly tabernan, elkartuko dira 21:30ean.

Bidaia hasi zuten Argentinan Round The World txartelarekin eta Txiletik eta Boliviatik pasatu ostean Zeelanda Berria zeharkatu zuten furgonetan. Australia ikusi eta Asiako herrialdeetan galdu ziren ondoren: Thailandia, Laos, Camboya, Nepal… Argazki dotoreak erakutsiko dituzte eta bizipen zirraragarriekin osatuko dute emanaldia.

## Bolo txapelketa, bazkariak eta kontzertuak 'Elkartuz herrira' eguna ospatzeko

**M.A.** | ARETXABALETA

*Elkartuz herrira* leloarekin jai eguna egingo dute bihar, zapatua, Elkartasun Batzordeak antolatuta. Bolo txapelketarekin hasiko dituzte ekitaldiak, 11:00etan, eta 13:00etan kalejira egingo dute, Urbaltzen hasita, trikitilariak lagun hartuta.

**Bazkariak eta kontzertuak**

Bazkaltzeko elkartuko dira, gero, Mitarte plazan; 14:00etan haurrek eta gaztetxoek bazkalduko dute eta 14:30ean, helduek. Eguna borobiltzeko kontzertuak egongo dira, 18:00etan: Theskarga eta Drop! aretxabaletarrak eta Fly Shit bergararrak.

### OHARRAK

**GITARRA EMANALDIA**

Leizarra musika eskolako ikasleek gitarra emanaldia eskainiko dute gaur, 18:00etan, Arkupen.

**NEPALGO IRUDIEN PROIEKZIOA**

Nepalgo argazkiekin osatutako emanaldia eskainiko du Murrukixo mendizale elkarteak datorren eguenean, ekainak 11, 19:00etan, Arkupen.

**ESKULANEN ERAKUSKETA**

Rosa del Aguila irakasle duten ikasleen eskulanak izango dira ikusgai hilabete osoan Arkupeko erakusketa aretoan.

**ZIRKU TAILERRA ARKUPEN**

Zirku tailerra izango dute gaztetxoek ekainaren 13an, 11:00etan.



KURTZEBARRI ESKOLA

## Gaztetxoenak ere dantzan

Kurtzebarri eskolako gaztetxoenek, 2 eta 6 urte artekoek, Haurren Astea ospatu dute astelehenetik eguenera bitartean. Dantzan eta kantuan egin dute ikaskideen eta gurasoen aurrean hainbat egunetan, eta atzo, zirkua ekarri zuten eskolako aretora. Ekilibristen, magoen, pailazoen eta beste hainbaten saioekin gozatu zuten.



IMANOL SORIANO

## 250 trikitilaritik gora herrian

"Oso pozik gaude Trikitixa Egunak emandakoarekin; giro ona izan zen, trikitilari mordoa elkartu ziren eta herriko bazter askotan entzun ziren trikiti doinuak", esan du Mariatxen Urkiak, Leizarra musika eskolako zuzendariak. Debagoieneko trikitilariez gain, Zumarragakoek, Getariakoek eta Soraluzekoek ere bat egin zuten jaialdiarekin.

# Bihar, zapatua, XIX. Ferixie ospatuko dute Eskoriatzan

- Zazpigarren aldiz antolatuko dute gazta dastaketa eta lehiaketa
- Arizmendi Ikastolako abesbatzak 'Herrixa kantuen' emanaldia egingo du

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Bihar, zapatua, hemeretzigarrenez ospatuko dute Eskoriatzako Ferixie. Aurten ere Euskal Herri osoko baserritar eta artisauak batuko dira –100 postu–, eta postuetan baserriko produktuak, artisautza-lanak eta tresneria ugari ikusi eta erosi ahal izango dira.

Eskoriatzako Ferixie Arizmendi Ikastolak antolatzen du, hainbat eta hainbat elkarteren eta herritarren laguntzari esker, hala nola Eskoriatzako Udala, herriko elkarteak, komertzioak eta ikastolako irakasleak eta familiak.



Iaz jende asko izan zen postuak ikusten. | IMANOL SORIANO

Goizean goiz, 10:00etan irekiko dituzte postuak, etxafuego jaurtiketarekin eta txistularien kalejirarekin. Ondoren, Urkabustaizko joaldunek eta trikitilariek jarraituko dute jaia girotzen, eta txistorra eta taloa jateko aukera egongo da eliza azpiko arkupeetan, boluntarioen eskutik. Gaztetxoek ondo pasa dezaten, berriz, tailerrak eta puzgarriak izango dira goiz osoan Santa Marina plazan. Urteroko txapelketek ere ez dute hutsik egingo: gazta dastatzea eta lehiaketa ikastola parean izango da, 11:30ean, aurten zazpigarren aldiz –zortzi partaide–. Txorimalo lehiaketa –41 txorimalo eta 197 ume– ere izango da, hemezortzigarrenez, eta feriako postuentzat ere izango da saririk. Horiek guztiak 14:00etan banatuko dituzte herriko plazan.

**Ikuskizunik ez da falta izango**

Arizmendi Ikastolako abesbatzak *Herrixa kantuan* emanaldia egingo du, 12:30ean, ikastola parean. Maider Belategiren Art-Fusion erakusketa ere ikusgai izango da eta Eskoriatzako dantza taldea herriko plazan izango da, 13:00etan.

Ikuskizunez gozatu ondoren, herri bazkaria izango da, pilotalekuan, 15:00etan, eta, bapo jan ondoren, AZ gaubelako Ibai Zangitu eta Mikel Alberdi aretxabaletarrek emanaldia eskainiko dute bazkalondoan.

**Bosgarren txapel jaurtiketa**

Arratsaldean, txapel jaurtiketa izango da, bosgarrenez, plaza aurrean. Haizea, indarra eta teknika kontuan hartu beharko dituzte parte-hartzaileek.

Hala, abileziaz, txapela urrunen eta mugen barruan jaurtitzen duenak jantziko du txapela.

NIRE USTEZ



MARISOL ANDRADE

## Ispilu baten atzean

Kontsulta baten barnean, ispilu baten aurrean.

Zatika dagoen ispiluaren aitzinean hauxe aurki dezakegu: zati batean bularra ikusten da, beste zatian hankak, hurrengo ataletan besoak, gaineko porroskan burua. Gorputzaren zatiak ikusiz gero, zati bakoitza mediku batekin irudika dezakegu. Ze espezialitate den arabera, hain zuzen; pneumologoa, traumatologoa, fisioterapeuta… psikologoa edota psikiatra. Horien guztien artean, azken hau, psikiatra, geure gizartean ez dago guztiz ondo ikusita. *Tabu* asko metatzen dira kontsulta honetara joaten garenon eta ez garenon artean.

Ahultasun uneak pasatzeak pertsona ahul bihurtzen zaituela ematen baitu. Urruti gelditzen da hori, geure garaian indartsuak eta perfektuak izatea eskatzen baita. Beraz, ez dugu ikusten batzuetan geure garunak ere mediku bat behar duela, eta ez ahula delako, guztiz kontrakoa. Zeure gorputzaren zein buruaren mandoa berriro eskuratzeko, bat izateko. Bizitza ez da bide erraza, eta, medikazioa behar dugunean, Hipokrates ekarrarazi behar diogu buruari: "Egiozu zeure janaritik zeure medikazioa eta zeure medikazioa janari bihur ezazu". Horrela, ispiluak esango diguna hauxe da: garrantzitsuena da geure gorputzaren atalak bere espezialistarekin lotzea, baina integral bihurtu behar dugu irudia, geure burua; pertsona fisikoki, psikologikoki eta espiritualki sentitzeko, izateko.

**"Ez dugu ikusten gure garunak ere mediku bat behar duela"**



I.B

## Arantza Salegiren erakusketa

Arantza Salegi eskoriatzarrak errealismoko *Ametsa* izeneko koadro erakusketa jarri du Ibarraundi museoan. Lehen aldiz egiten du, eta, emakumearen gorputza oinarri izanik, hogei koadro inguru izango dira ikusgai. Martitzenera arte iraungo du erakusketak.

## Udalak hainbat tramite 'on line' egiteko aukera eskainiko du webgunearen bidez

I.B | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak, herritarrei tramite-bideak errazteko, udaletxera bertara joan gabe, eta eguneko 24 orduetan hainbat tramite egiteko eskaintza jarri du udal webgunean.

Herritarren ataria, zerbitzu telematikoak, ordainketak, fakturak, diru laguntzak eta kontratatzailearen profila dira tramiteen barruan aurki daitezkeen atalak. Baina, batez ere, hiru erabiliko dituzte herritarrek:

Herritarren ataria; Udalarekin tramite gehienak *on line* egiteko ataria da. Bertan, diru laguntzak nahiz obra lizentziak eskatu ahal izango dira, hirigintza kontsultak egin; mota guztietako eskaerak, kexak edo iradokizunak… Horretarako, herritarrak bere datuak eman beharko ditu. Bi modutara egin dezake: pasahitzarekin edo txartel digitalarekin. Pasahitza lortzeko, herritarrak udaletxera joan beharko du bere datuak egiaztatzera.

Zerbitzu telematikoen atala, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen du, eta bertan, herritarrak udal errolda agiria eskuratu dezake, eta erroldako bestelako datuak; bizikidetza, altak, bajak…

**Ordainketak Internetez**

Edozein administraziotan ordainketak Internetez egiteko zerbitzua da, baita Eskoriatzako Udalean ere; beraz, bertatik, isunak, kiroldegiko tasak… ordain daitezke, besteak beste.

## San Pedro auzoko obrak hilabete barru hasiko ditu Sasoi enpresak

I.B | ESKORIATZA

San Pedro auzoko hirugarren faseko berrurbanizazio proiektua Sasoi eraikuntza enpresari esleitu dio Udalak; bestalde, Zaldibar antzokiaren obrako likidazioan 10.000 euroko gain-kostu bat izan da. Horiexek jakinarazi zituen, besteak beste, udalbatzak asteon egin duen ezohiko osoko bilkuran.

San Pedro auzoko obrak egiteko bost enpresa aurkeztu dira, eta horietatik Sasoi eraikuntza enpresak, puntu gehien lortuta, egingo ditu lanak. Aurrekontua 247.000 euro da, BEZik gabe, baina 212.000 eurotan esleitu diote.

Gainera, baldintza guztiak betetzen dituen Sasoi eraikuntza enpresak langabezian dauden bi langile kontratatuko ditu jardun osora, eta obrak hilabete barru hasiko dira, gutxi gorabehera. Lanek hiru hilabete eta erdi iraungo dute, eta denbora horretan hainbat eragozpen sortuko dira auzoan. Beñat Herce jarduneko alkateak hauxe azaldu du: "Ura moztuko dute, aparkaleku batzuk ezin izango dira erabili, ezta etxeetarako sarrera batzuk ere… baina Udaletik pazientzia eskatzen diegu herritarrei".

**Zaldibarko obraren likidazioa**

Zaldibar antzokia lau urtetan egindako azpiegiturarik garrantzitsuena izan da Eskoriatzan. Milioi bat eta seiehun mila euroko kostua izan du, eta, horrez gain, 10.000 euroko gain-kostua egon da.

Herceren esanetan, "kostu hori justifikatuta dago; izan ere, Udalak obran bertan hainbat aldaketa eskatu ditu. Aldagela ez zen obra barruan sartu, aretoko sarreran aldaketa batzuk izan dira, eta anfiteatroan ere bai. Hala, diru gehiago jarri behar izan da lanak egiteko".



Ekaineko ezohiko osoko bilkuran talde-argazkia egin du udalbatzak. | GOIENA

## Hasi dira danborradarako entseguak

Aste honetan hasi dira Eskoriatzako San Pedro jaietarako danborradarako entseguak, eta hilabete osoan egingo dituzte Eskoriatzako pilotalekuan. Umeen danborradako entseguak 18:00etan izango dira, astelehenetan eta eguaztenetan, eta nagusien danborradakoak, berriz, 21:30ean, leku berean.

## Corpus jaiak ospatuko dituzte Ondarre auzoan

**M.A.** | ANTZUOLA

Asteburuan Gorpuzti jaiak ospatuko dituzte Ondarren. Auzotarrek herritar guztiendako festa antolatu dute. Hala, bihar, zapatua, 12:00etan emango zaio hasiera festari. Ginkana egingo dute, Peña Aiastuik antolatuta. 16:30ean umeendako jolasak izango dira eta 17:30ean krosa. 18:00etan, aldiz, Kidam magoaz disfrutatzeko aukera izango dute gaztetxoek eta gurasoek; ondoren, merienda banatuko diete.

21:00etan auzo afaria. Herriko jendearendako ere jarriko dituzte mahaiak; etxetik janaria eroan beharko dute Ondarren afaldu gura dutenek. Gau giroa alaitzeko erromeria trikitilariekin; atsedenaldian zozketa izango da.

Domeka goizean, prozesioa egingo dute mezaren ostean. 12:00etan dantzarien saioa. Ondoren, salda eta pintxoak gerturatzen direnendako.

# Puntuz puntu, ohitura zaharrak transmititzen eta eraikitzen

### Astelehenero emakume talde bat elkartzen da kakorratz-lana egiteko

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Tomasa, Juanita, Maritxu, Mariluz, Tere eta Joxepi, astero, hutsik egin gabe, astelehen arratsaldeetan elkartzen dira. "Hamabost bat lagun elkartu izan gara batzuetan", diote. Diruz ordaindu ezin daitezkeen lanorduak sartzen dituzte askotariko artisau lanak eginez: bainika, kakorratz-lana (gantxilloa), Mallorcako eta Jugoslaviako puntua… askotariko lanak egiten dituzte haria soilik oinarri dutela.

Artista hutsak dira. Pazientzia eta mimo handiko lana dela diote, baina, betiere, etxerako egiten dute lan, ez saltzeko. "San Isidro azokan gure lanak ikusgai jartzen ditugu. 'Ze prezio dute?', galdetzen digute herritar askok. Ez daudela saltzeko erantzuten diegu. Etxerako egiten ditugula", azaldu du Maritxu Mondragonek. 84 urte ditu Mondragonek eta dio oso gustura elkartzen direla astelehen arratsaldeetan. "Eguneroko kontuak kontatzen ditugu eta gero gure lanei heltzen diegu. Tere irakasleak asko laguntzen digu; urrezko eskuak ditu! Asko dakita. Niri eskolan zerbait irakatsi zidaten, baina ahaztu egiten da. Horregatik, berriro hasi naiz puntu berriak ikasten".



Astelehenero Olaran etxean elkartzen da emakume taldea. | MAIDER ARREGI

Izan ere, garai batean eskolan ikasitakoa berriro gogoratzen dihardute batzuek; beste batzuek, berriz, ikasten. Autodidaktak direla diote, aldizkarietatik ikasten joaten direla. Tere Agirrezabal irakaslearen gidaritzapean arratsalde ederrak pasatzen dituzte solasean. 20 urte baino gehiago daramatza Agirrezabalek taldean elkartuz ikasten eta irakasten. "Lehen, denda neukan, eta handik ikusten nituenean nola elkartzen ziren emakumeak josteko, inbidiatan egoten nintzen. Beti izan dut buruan eta dagoeneko hogei bat urte daramatzat", esan du Agirrezabalek. Esku artean beti pare bat lan hasita izaten ditu. "Hiru lan batera ere izaten ditut. Bat bukatu orduko beste batekin hasten naiz. txikitan askorik ez ziguten irakatsi, baina aldizkarietatik ikasiz joan gara gure kasa".

**Mila ordu urtean**

Batez beste, urtean, bakoitzak mila ordu inguruko eskulana egiten du. Ondoren, antzuolarrek San Isidro azokan egindako lan guztia ikusteko aukera izaten dute urtero. Baina tradizio horrek jarraipenik izango du? Gazteek erreleboa hartuko duten esperantza badutela diote.

## Burgosera irteera antolatu du Landatxopek

Ekainaren 17an Burgosera irteera egingo dute Landatxopeko erretiratuek. Izena emateko interesa dutenek hilaren 9an eta 10ean eman beharko dute elkarteko bulegoan, 16:00etatik 18:00etara bitartean. Prezioa 30 euro da. Autobusak 60 eserleku ditu eta plazak mugatuak dira. Autobusa 08:15ean aterako da Antiguako geltokitik.

## Umeek patinatzen ikasteko bi saio izango dira uztailean

Ikastaroa uztail osoan zehar egingo dute, martitzen eta eguenetan –Antzuolako jaietako eguenean izan ezik–. Guztira, zortzi saio. Kanpo beltzean edo eskolako patioan egingo dira, bi txandatan: 19:00etan, 5-7 urte bitartekoak; 20:00etan, 8-10 urte bitartekoak. Informazio gehiago Udal Gimnasioan edo 943 766 661 telefonora deituta.

## Secundino Esnaola musika eskolako ikasleen zuzenekoak

Bi rock kontzertu entzuteko aukera izango da Secundino Esnaola Zumarragako musika eskolako ikasleen eskutik. Gaur, ekainak 5, Zurrategin izango da lehena, 19:15ean. Ekainaren 8an, astelehena, gitarra klasikoaz, gitarra elektrikoaz eta trikitiaz zuzenean gozatzeko aukera izango da, 19:00etan, Torresoroan.

# Gaztetxoen artean senidetza errotuz

**M.A.** | ANTZUOLA

Pasa den barikuan, maiatzaren 29an, Aiherratik 37 gaztetxo etorri ziren Antzuolara. Helburua, orain dela 30 urte abiatutako harremana Antzuola eta Aiherrako gaztetxoen artean sendotzea da. Euskararen erabilera zabaltzea ere baduela helburua anaitze honek azaldu du Aiherrako eskolako Humayou Soizik irakasleak: "Bi herrien artean harreman bat atxikitzea da helburua. Baita ere beste kultura bat ezagutzea eta euskara hegoaldera zabaltzea eta gehiago erabiltzea".



Aiherrako umeak Antzuolako Herri Eskolan. | MAIDER ARREGI

Pozik eta urduri zeunden gaztetxo antzuolarrak. Ilusioz egin zieten harrera Aiherrako ikasleei. "Lagunak egin ditugu eta espero dugu hurrengoan gu Aiherrara joatea", zioten gaztetxoek.

Antigua auzoan dagoen errota bertatik bertara ikusteko aukera izan zuten. Irina nola egiten zen azaldu zien Florentino Lamarianok bertan. Arratsaldean, aldiz, jokoak egin zituzten pilotalekuan eta eskolako patioan.

Egun pasa etorri ziren; orain antzuolarren txanda izango da Aiherrara bisita egiteko.

## Patxiko Txerren ipuingintzaren emaitzak eguenean

**M.A.** | ANTZUOLA

Azkeneko urteetako ohiturari jarraituz, Patxiko Txerren ipuingintzaren emaitza jakinaraziko dituzte eguenean, ekainaren 11n. Torresoroan izango da ekitaldia 18:00etan hasita. Apika antzerki taldeak ipuin saioa eskainiko du eta barre algara ziurtatua izango da. Laugarren mailatik seigarren mailara arteko umeek (9tik 12 urtera) egindako ipuinak entzuteko aukera izango da. Azkeneko asteetan haurrek eskolan landu dute ipuingintza; hala, egin dituzten ipuinak aurkeztuko dituzte Torresoroako ekitaldian.

## 15 lagunek egin dugu irteera lubakietara

Oketan eta Larragorrin dauden lubakiak eta fronteko lekuak bertatik bertara ikusteko irteera egin genuen. 15 lagun batu ginen; bederatzi antzuolar, bi gasteiztar, bi legutiar eta bi bermeotar.



JABI ETXANIZ



2014ko irailean B3 Dixieland taldeak Sastiñan eskainitako kontzertua. | IMANOL SORIANO

# Jon Gartzia del Val arrasatearrak zabalduko du Sastiñako zikloa

Jazz musika eskainiko du taldekideekin batera, gaur, 20:00etan hasita

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Jon Gartzia del Val Quartet taldeak irekiko du ekaineko Kontzertuak Sastiñan musika zikloa. Gartzia arrasatearra da eta goi mailako musika ikasketak egiten dihardu Iruñan. "Musika modernoan goi mailako zikloa, pianoan espezialitatea", azaldu du. "Ikasketa amaierako proiektua da egiten nabilena, eta hori da aurkeztuko dudana", gaineratu du. Jazz estiloko abestiak eskainiko dituzte, gehienak arrasatearrak konposatuak, bertsio pare bat izan ezik.

**Bebop eta hard bop estiloak**

Arrasatearrak azaldu du 40ko hamarkadako bebop jazz estiloan eta 50eko hamarkadako hard bop estiloan oinarritzen dela euren musika. Bederatzi abesti dira musikariak konposatu dituenak, azkeneko bi urteetan.

### KONTZERTUAK SASTIÑAN

**EKAINAK 5**

**20:00** Jon Gartzia del Val Quartet (jazz musika).

**EKAINAK 12**

**20:00** Amaia Arregi, Maialen Ballina eta Maider Gardoki.

**EKAINAK 19**

**20:00** Sustrai.

**EKAINAK 26**

**20:00** Zarzamora, Manex Arriolagengoa, Maria Izaga eta Sabin Aranburu.

Laukotea osatzen dute arrasatearrak (gitarra), Juan Carlos Hormigok (bateria), German Ruiz de Alejosek (baxua) eta Rafa Gonzalezek (saxofoia). Orain dela lau bat hilabete hasi ziren talde moduan kontzertuak eskaintzen.

**Ekaineko zikloa, etxekoekin**

Dagoeneko ezaguna da Aramaion ekaineko Kontzertuak Sastiñan musika zikloa –irailean ere egiten dute–. Aurten, herriko musikariei aukera eman nahi izan diete: datorren astean Amaia Arregi, Maialen Ballina eta Maider Gardoki hirukotea izango dira Sastiñan; ekainaren 19an Sustrai taldea; eta, ekainaren 26an bi talde elkartuko dira: Zarzamora eta Manex Arriolabengoa, Maria Izaga eta Sabin Aranburu. Elkarrekin joko dute Arriolabengoa bi taldeetako kide delako. Saio guztiak 20:00etan izango dira.

IRITZIA



RAMON AJURIA

## Aramaioarrei...

Heldu zait agur esateko momentua, aramaioarren alkate bezala agur esateko unea.

Azkenaldian ez naiz hedabideetan atera inongo baloraziorik egiten, ez hauteskunde aurretik, ez ondoren. Horrelaxe erabaki bainuen: aurrerantzean Udalean protagonistak izango direnei txanda ematea.

Orain dela lau urte sartu ginen, isilik, lanerako gogo handiaz, herriaren alde gauza asko egiteko asmoz. Epe honetan Udalean egon garen zinegotzi taldearen kudeaketa egokiena egiten ahalegindu gara. Bai, kudeaketa diot, horixe izan baita gure asmoa, helburua eta erronka; horretarako izan ginen aukeratuak! Eta oraingo nire asmoa ere horixe zen, ezer esan gabe, isilik joatea. Baina azken asteotan herritar asko hurbildu zait, batzuk eskerrak emateko, eta beste batzuk zelan nagoen galdetzeko, besterik gabe. Gehienak harritu egin dira baloraziorik egin ez izanagatik hauteskundeen ondoren, eta Goienak alkateei eskainitako programan ez agertu izanagatik.

Berriro diot, ez dut inongo balorazio politikorik egiteko asmorik, baina zuekin, herritarrokin, zorretan nagoela sentitzen dut, nolabaiteko azalpena emateko beharra sentitzen dut. Izan ere, lau urte hauetan gustura sentitu naiz, zuen laguntza eta hurbiltasuna sumatu ditut eta herriaren alde lan egiten ahalegindu naiz, ahalik eta ondoen.

Niretzat, Aramaioko alkate izatea ohorea izan da. Ardura asko duen postua da, eta baita presioa ere, baina, niretzat, aberasgarria izan da, asko ikasi dut: nik neuk ditudan gaitasunak eta mugak identifikatzen ikasi dut, inguruan izan ditudan pertsonak ezagutzeko aukera eman dit, politikak nola funtzionatzen duen ikasi dut...

Joko politikoan bi Ramon izan ditut nire baitan: bata pertsona bera eta bestea ordezkari politikoa. Baina pozik eta harro nago, pertsonak menderatu baitu Ramon politikoa! Zoriontsu izatera bueltatzen naiz orain, maite nauten pertsonez inguratuta, eta urte hauetan ezagutu ditudan aramaioarrekin.

Ez dakit urte hauetan gauza guztiak ondo egin ditudan, baina batzuek modu egokian baloratu dute egindakoa. Orain dela lau urte nire negozioa utzi nuen kargu publiko bezala lan egiteko eta momentu honetan bestelako lan eskaintzak jaso ditut, zuek guztiok ni aukeratzearren sortu direnak.

Gogoeta hau nahi dut konpartitu zuekin. Alderdi politikoek funtzio publikoa betetzen duten/dugun pertsonekin duten trataera, sakrifizio pertsonala egiteko prest dauden pertsonekin. Ez dago sentsibilizazio berezirik, ez esker berezirik. Momentu hauetan dakigu benetan zeintzuk diren lagunak, nork maite gaituen.

Nire ustez, pertsonak oso garrantzitsuak dira erakunde publikoen gestioan, eta, horregatik, alderdi politikoek bigarren maila batera pasatu beharko lukete.

Hemendik omenaldi beroena egin nahi diet orain dela lau urte anonimatua utzi eta protagonismo publikoa hartu zutenei gure herrien alde lan egiteko. Zorionak!

Amaitzeko, bi mezu aramaioarrei: atsegina izan dela zuekin lau urte konpartitzea; eta zuek laguntzeko prest izango nauzuela beti. Eskerrik asko.

**"Atsegina izan da zuekin lau urte konpartitzea"**

## Barikuetan atxikimendua jasotzen ibiliko dira



GOIENA

Ekainaren 21eko ekitaldi handiari begira jarrita daude Gure Esku Dagoko kideak. Egubakoitzean kamisetak saltzen ibili ziren, jaialdian parte hartu nahi dutenak kamiseta jantzita joan daitezen. Horrez gain, Gure Esku Dagorekiko atxikimendu gehiago jasotzen ere ibili dira, eta hala jarraituko dute datozen asteotan.

## Eska daitezke Aldundiak ematen dituen garraiorako diru laguntzak

A.E. | ARAMAIO

Arabako Foru Aldundiak garraio diru laguntzak argitaratu ditu. Ikasketa direla-eta euren herritik mugitu behar duten ikasleei zuzendutako laguntzak dira. Eskaera egiteko epea dagoeneko zabalik dago. Hauek izango dira bete beharreko baldintzak: batetik, 2014/2015 ikasturtean batxilergoko, erdi mailako edo goi mailako prestakuntza zikloetako ikasketak egin dituzten ikasleak; eta ikasketa horiek egiteko bizi diren udalerritik beste udalerri batera joan behar izan duten gazteak. Bestetik, 2014/2015 ikasturtean unibertsitate ikasketak egiteko eurak bizi diren udalerritik beste udalerri batera joan behar izan duten ikasleak. Horiei zuzendutako diru laguntzak izango dira aipatutakoak.

**Epea ekainaren 30era arte**

Eskaerak egiteko epea dagoeneko zabalik dute herritarrek. Hala, interesatuek ekainaren 30era arte –martitzena– izango dute aukera diru laguntzak eskatzeko.

ELGETA

# Guztiendako moduko ekintzak Ozkarbiren 50. urteurrenean

Gaur pilota izango da protagonista eta domekan mendia, dantza eta musika

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Adin askotariko elgetarrak ariko dira gaur, barikua, 19.00etan, pilotan. Soraluzetik eta Zaldibartik ere etorriko dira pilotan egitera. Pilota sail oso garrantzitsua izan du Ozkarbi elkarteak hamarkadetan, eta horren omenez izango da gaurko jaialdia.

Domekarako mendi irteera proposatu dute Ozkarbitik. 09:30ean elkartuko dira, Ozkarbipean, eta parte hartzaileen adinaren arabera erabakiko dute ibilbidea. Ekintza horrekin, Ozkarbiko mendi sailetik egindako lana izango dute gogoan. Ozkarbiko dantza eta musika sailak ere oso garrantzitsuak izan dira. Argazki eta jantzi erakusketa egingo dute domekan, 12:00etan, plazan. Jantziak soinean izango dituzte herriko hainbat neska-mutikok. Eta dantza saioa egingo dute, 13:00etan. Ehiza eta arrantza saila ere izan du Ozkarbik, eta materiala egongo da ikusgai plazan.

Musika Jose Gardokiren ardura izango da. Txikiteoa, bazkaria eta erromeria egingo ditu Beñat Leanizbarrutia lagun duela.



Dantzari gazteak zezentxoetan. | JOAQUIN GASTESIREN ARTXIBOA

## Eta bihar, zapatua, Kuadrilla Eguna

Gisatu lehiaketarekin emango diote hasiera, 10:30ean, Elgetako VII. Kuadrilla Egunari. Gutxienez hamar lagunendako gisatua prestatu beharko du talde bakoitzak, eta 14:00etarako aurkeztu beharko dute lana Udalak ipinitako kazoletan. Herriko plazan egingo dute lehiaketa, baita sari banaketa ere, 14:30ean. Herri bazkariarekin eta Haitzama taldearen erromeriarekin jarraituko du festak.

Domekan, berriz, jaunartzea egingo dute Elgetako parrokian lau neskatilak. Ospakizuna 12:00etan izango da.

## Uztailean sormen tailerra izango da 10 urtetik gorako neska-mutikoendako

L.Z. | ELGETA

Urtebete da Maite Barrainkua tailerra prestatzen ari dela. Berraondokoan hartu du lokala eta haren asmoa da salmentarako zeramika artikuluak egitea. Arte Ederrak eta Barne Diseinua ikasi ditu, eta sormen tailerrak eskaintzea ere interesgarria iruditzen zaio. Uztailerako egin du lehen proposamena: 10 urtetik gorako neska-mutikoendako hiruzpalau orduko sormen tailerra, goizez. Jorratuko dituzte zeramika, marrazketa, argazkigintza, bideogintza... "Diziplina anitzeko sormen toki bat izango da, non askotariko teknikak eta modalitateak nahasteko aukera egongo den", azaldu du Barrainkuak. Asmoa da nork bere gustuko diziplinak egitea eta, batez ere sormena lantzea. Prezioa, asteko, 40 euro da.

Aritutakoa da Barrainkua. Elorrioko ludotekan eta Arrasateko gaztelekuan hartu-emana izan du umeekin zein gazteekin eta sormena lantzeari oso garrantzitsu deritzo. "Artea eta sormena gutxietsita daude, orokorrean, eta sormena landu beharreko erreminta garrantzitsua da. Edozein eremu edo irakasgaitan erabili beharrekoa", adierazi du.

Batzarra antolatu du Barrainkuak ekainaren 12rako, 18:30ean, tailerrean. Asmoa da interesatuak elkartu, tailerra erakutsi eta zalantzak argitzea.



Maite Barrainkua tailerrean. | L.Z.



IMANOL SORIANO

## Baserritarren bazkaria

Elgetako baserritarren elkarteak urteko batzar orokorra eta bazkaria egin ditu. 62 bazkide dira, eta domekan hamazazpi lagun elkartu ziren bazkaria egiteko. Zuzendaritza batzordeari dagokionez, Luis Mari Arantzeta Zabala da presidentea. Datorren urtean berrituko dute zuzendaritza.

## EH Bildu eta Gu Geu Elgeta hasita daude lehenengo lan bilerak egiten

L.Z. | ELGETA

Talde biek jakitera eman dutenez astelehenean elkartu ziren. "Bi taldeon programan puntu komun batzuk genituenez horiek identifikatu, lehentasunak markatu eta hurrengo lau urteotan egin beharrekoak zehaztea adostu genuen", adierazi du EH Bilduko Iraitz Lazkanok. "Datorren astean berriz elkartuko gara, eta gai hauetaz zehaztasun gehiagorekin hitz egingo dugu", gaineratu du.

Lazkanok argitu du EH Bilduren asmoa dela gobernu batzorderik ez osatzea, eta erabakiak gainerako batzordeetan hartzea". Batzordeak sinplifikatu egin nahi dituzte gaika, eta helburua da herritarrek batzorde horietan parte hartzea eta erabakiak hartzea. "Gu Geu-koei proposamen hau transmititu genien, baita batzorde batzuen koordinazioa burutu nahi duten galdetu ere. (...) Lanerako gogotsu ikusten ditugu, eta begi onez ikusiko genuke hori horrela izatea".

Elgetako EH Bildutik eskerrak eman dituzte. "Elgetako historian bozka kopuru handiena lortu duen bigarren zerrenda-taldea gara, konfiantza maila hau eskertzekoa da benetan. Emaitza hau ongi eginiko lanaren ondorioa dela uste dugu. Eskerrak, bidenabar, azken hilabete eta urteetan guzti hau posible egiteko lanean aritu direnei".

LEINTZ GATZAGA

# Udal ordezkarien kargu-hartze eguna Auzolan Eguna ere izango da

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Ekainaren 13an, 13:30ean. Orduantxe hartuko dituzte datozen lau urteotarako karguak maiatzaren 24ko hautetsiek. Eta jakina, orduantxe utziko dituzte azkeneko lau urteotan alkate eta zinegotzi izan direnek euren karguak.

Bada, hitzordu esanguratsu hori herritarrena ere badela iritzita, hori horrela izanda, haiekin partekatzea garrantzitsua dela uste izanda, eta ekitaldia bera irekia dela kontuan hartuta, Auzolan Eguna antolatu dute herritar talde batek eta Udalak ekainaren 13rako, egun betea antolatu ere. "Leintz Gatzagan auzolanak tradizio handia duenez, proposatu da kargu-hartze/lagatzea bera udal ordezkarien artean bakarrik egin beharrean, bi kontuak batu eta Auzolan Eguna egitea. Goizean (09:00etan) elkartuko gara, eta Udaletik zehaztuko dituzte eginbeharreko auzolanak, eta beharren arabera antolatuko ditugu taldeak –Bengoerreka, bideen garbiketa...–", esan dute. Umeek ere izango dute euren auzolantxoa.

### Herri bazkaria

Auzolanaren ondoren, 13:30ean udaletxean egingo den kargu-hartze ekitaldira joatea litzateke asmoa. Eta eguna borobiltzeko, 14:30erako herri bazkaria antolatu dute. "Komeni da jendea lehenbailehen animatzea; nahiko genuke 60-70 bat laguneko bazkaria egin, eta, horiendako guztiendako janaria *catering* bitartez ekarri behar dugunez –Trikikupela–, jakin beharra dugu zenbat lagun etorriko diren bazkarira. Hain zuzen, martitzena da –ekainaren 9a– bazkarirako izena emateko azkeneko eguna", azaldu dute. Labidean eman behar da izena; eta prezioa 20 euro da (10 euro umeendako). Gainera, bazkalosterako musika iragarri dute, eta egunean sorpresa politen bat egongo dela ere bai.



IMANOL SORIANO

LEINTZ GATZAGA

## Gatzagarrak argazkitan

Leintz Gatzagako bizilagunen *errolda grafikoa* aurkeztu zuen joan den eguenean haren egileak, Jose Felix Diaz de Tuesta argazkilari arrasatearrak, Leintz Gatzagako kultura etxean. Hainbat gatzagar joan ziren aurkezpen ekitaldira eta bertatik bertara ikusi ahal izan zuten egunotan kultura etxean jarritako erakusketa ere.

# KIROLA

ATLETISMOA

# Euskal Herriko atleta onenak batuko ditu Oñatiko Herri Lasterketak

- Hamazortzi atleta batuko ditu Antxintxiketan Kirol Elkarteak Oñatin zapatuan (19:00)
- Distantzian ez dago aldaketarik: 10 kilometro, zirkuitu homologatuan

**XABIER URZELAI** | ARRASATE

Dagoeneko hamahiru urte pasa dira Oñatin atletismo-zale lagun talde bati, Jexux Arregi buru, mundu mailako atleta onentsuenak herrira ekartzea okurritu zitzaionetik. Eta hainbat urtez helburua bete zuten, Oñatiko kaleetan herritarrek lasterkari afrikarrez osatutako –eurak ziren azkarrenak– lasterketak ikusi ahal izan zituzten-eta; tartean, Zerzenay Tadesse, Peter Kirui, Peter Kamais eta maila horretako atletak.

Hala, badira bizpahiru urte lasterketa moldatu egin behar izan zutela: "Halako mailako korrikalariak ekartzeko aurrekontu handia behar zen", dio Asier Osinagak. Eta, beharrak bultzatuta, lasterketari beste ukitu bat eman zioten, Euskal Herriko atleta onenak batzeko ardura hartuta. 2013an, esaterako, Ivan Fernandezek erakutsi zuen afrikar askoren parean dagoela –29:31, 10.000 metroko proban–, baina egia da salbuespena izan zela, gainontzekoei tarte polita atera zien-eta: "Aurten Ivan ez da lasterketan egongo, Gasteizkoa beste maila bateko atleta delako, eta baita gainontzekoak baino garestiagoa ere. Gainera, lehenengo itzulitik aparteko abantaila hartzeak emozioa kenduko lioke probari. Gainontzekoen artean, baina, lehia estua egongo da".


Lasterkariak, iaz, Oñatiko Herri Lasterketako lehenengo metroetan. | IMANOL SORIANO

**Debagoieneko onenak**

Zapatuan (19:00) Oñatiko irteera puntuan egongo diren atletak aipatzerakoan, Osinaga herrikoak nabarmentzen hasi da: "Sergio Gartzia eta Yeray Varela oso mailan onean dabiltza". Horrekin batera, iazko irabazle Imanol Cruz Oñatin egongo da, eta baita iaz ere podiumean egon zen Antonio Casado nafarra, eta Ander Sagartzazu. Eta Bizkaiko kros txapeldun Aingeru Gutierrezek ere baiezkoa eman du. "Horiekin ikuskizuna ziurtatuta dago". Antxintxiketan-ekoek bailarako atleta onenak ere gonbidatu dituzte: "Aloña Mendi taldeko Tasio Gomez, Bergarako Ander Agirre, Arrasateko Endika Donnay eta Aretxabaletako Beñat Arnaiz. Daukaten mailarekin lasterketan egoteko meritu guztiak dituzte".

## Torreauzoko krosa ate joka dator

Antxintxiketan-ek antolatuta, ekainaren 28an egingo dute Torreauzo krosaren 18. edizioa (11:00), eta lasterketa hori herri mailako atletei zuzenduta dago. Ibilbidea urterokoa izango da, Etxeaundi jatetxe paretik Olatera egingo dute joan-etorria (7,5 kilometro).

Dagoeneko zabalik dago izen-ematea (*www.kirolprobak.com* edo Mendizabal kirol dendan), baina egunean bertan ere egongo da izena emateko aukera, 12 euro ordainduta.



Torreauzoko krosa, 2013an. | GOIENA


GOIENA

**ASIER OSINAGA**
ANTXINTXIKETAN KE

## "Baliteke lasterketa hau bi urtean behin antolatzera pasatzea"

**Ez da izango erraza maila horretako atletak egun konkretu batean Oñatin batzea. Batez ere, egutegian horrenbeste lasterketa egonda.**

Bai, geroago eta gehiago daude, eta ez da erraza. Maila horretako korrikalari guztiek entrenatzaileak izaten dituzte, eta denboraldia oso zehaztuta izaten dute. Hala, Oñatin egon gura izaten dute, baina txapelketak ere izaten dituzte, eta baita herri mailako beste lasterketa entzutetsu batzuk ere. Horrenbestez, onenak batzea ez da erraza izaten.

**Nahiko lan urtean zehar antolatzen dituzuen lau lasterketak aurrera ateratzen.**

Bai, San Silvestre abenduaren 31n, Oñatiko Nazioarteko Herri Lasterketa, Torreauzoko krosa eta Arrasate-Oñati antolatzen ditugu, eta, askotan, denboraz justu samar ibiltzen gara. Hausnarketa prozesuan gaudela esango nuke, Arrasate-Oñati gehiago zaindu gurako genuke, baina ez da erraza. Akaso, Nazioarteko Herri Lasterketa bi urtean behin egitea izan daiteke soluzioa, atletak motibatuago etorriko lirateke, eta antolatzaileok ere arnasa hartuko genuke, baina berba egin behar dugu, ez dugu erabakirik hartu oraindik.

ERRUGBIA

# Garagardoa eta errugbia eskutik

## Zazpiko txapelketa eta azoka egingo dituzte bihar, zapatua


Easo taldeko jokalaria baloia eskuetan, arrasatearrei aurre egin guran, iazko txapelketan. | IMANOL SORIANO

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Hamazazpigarrenez egingo dute Arrasaten zazpiko errugbi txapelketa eta garagardo azoka, bihar, zapatua. Biak batera. Elkarrekin. Errugbiak eta garagardoak bat egingo dute Mojategin eta Herriko Plazan, hurrenez hurren.

**Bi fasetan banatuta**

Liga txapelketa bukatu ostean, berriro ere protagonista izango da errugbia: 15:00etan hasita partiduak jokatuko dituzte Mojategin. Erredakzioa ixteko orduan bost taldek zuten izena emanda: Ordiziak, Eibarrek, Gaztedik, Elorriok eta ARTk.

Lehen fasean zazpi minutuko bi zati jokatuko dituzte. Multzo bakoitzeko bi talde onenak bigarren faserako sailkatuko dira. Finalerdietan eta finalean hamar minutuko bi zati jokatuko dituzte taldeek.

Sari banaketa ekitaldia 21:00etan egingo dute, Herriko Plazan dagoen garagardo azokako karpan. Eta, horren ostean, han afalduko dute zazpiko txapelketan parte hartu duten jokalari guztiek.

**Garagardo azokako datuak**

Garagardo azoka atzo, eguena, zabaldu zuten eta domekara arte egongo da karpa Herriko Plazan. ARTko kideek 2.190 litro garagardo, 375 oilasko, 720 txerri-ukondo eta 130 pote saltxitxa eskatu dituzte.

**Lehenengo Mailari, bai**

Denboraldi bikaina jokatu eta igoera lortu ostean, Lehen Mailan jokatzeko erabakia hartu dute arrasatearrek. Zazpiko txapelketa bukatu ostean, bi asteko oporraldia hartuko dute denboraldi-aurrea prestatzen hasi aurretik. "Arlo fisikoa asko landu beharko dugu, eta baita abiadura ere. Bi arlo horiek dira lehenengo eta bigarren mailen arteko ezberdintasun handienak", dio Igor Isasi entrenatzaileak.


Andy Wozniak, Ander Arizaleta, Jokin Dolara eta Julen Barrutia, Ourenseko partiduan. | ART

## ARTko lau jokalari Euskal Herriko Selekzioarekin jokatzen

Arrasate Rugby Taldeko jokalari Andy Wozniakek, Ander Arizaletak, Jokin Dolarak eta Julen Barrutiak Euskal Herriko Selekzioaren elastikoa jantzi zuten Galizia aldean jokatutako *Galeuscat Cup* txapelketaren bigarren aldian. Pello Urkidi hautatzailearen aginduetara Ourensen jokatu, eta esku-hutsik itzuli ziren, 24-17 galduta. Oraingo aste bukaeran, baina, lehen garaipena lortzeko aukera izango dute: Hernaniko Landare zelaian jokatuko dute Kataluniaren kontra, bihar, zapatua.

TXIRRINDULARITZA

# Evelyn Stevens eta Anna van der Breggen dira Emakumeen Euskal Bira irabazteko hautagaietako bi

M.B. | ARRASATE

Emakumeen Euskal Bira astebete barru, hilaren 12an, helduko da Debagoienera. Itzuliaren eta Arrasaten hasi eta bukatuko den etaparen aurkezpena egin dute asteon. Guztira, hamahiru talde lehiatuko dira eta hautagai nagusiak Anna van der Breggen, Ashleigh Moolman, Emma Johansson eta Evelyn Stevens dira. "Goi mailako ziklistak izango dituen punta-puntako ikuskizuna izango da. Oso pozik gaude berriro, Debagoienera etortzearekin", esan zuen aurkezpenean Emakumeen Euskal Birako koordinatzaile Agustin Ruizek.


Agustin Ruiz eta Juani Errasti aurkezpen ekitaldian. | J. BEREZIARTUA

**Bi tarteko helmuga**

Debagoiena alderik alde zeharkatuko duen etapa Garibai etorbidean hasi eta bukatuko da. Guztira, 96,8 kilometro izango ditu. "Iaz Oñatin egindako etaparen antzekoa da. Oraingoan, baina, Kruzeta igo beharko dute. Puntu horretan apurtuko da tropela. Leintz Gatzagara sakabanatuta helduko dira", esan du Ruizek. Emakumeen Euskal Birako lehen etapak bi tarteko helmuga izango ditu, Oñatin eta Arrasaten, eta mendiko saria Kruzetan.

**Emakumeak eta kirola bultzatu**

Emakumeen Euskal Birak 28 urte bete ditu, eta Espainiako Estatuan dagoen emakumeendako probarik zaharrena da. "Emakumea eta kirola sustatzeko helburuarekin hasi ginen, eta, emaitzak ikusita, helburu berberarekin dihardugu lanean", diote.





Jose Javier Barkero, Getxoren kontrako partiduan, baloia oinetan duela. | IMANOL SORIANO

ESANAK

**"Etzi irabaztea zaila izango da: talde indartsua da eta euren etxean jokatzen dugu"**

**"Getxoren kontra puntu bakarra lortu arren, jokalariak gogotsu daude"**

GORKA VALLE | ENTRENATZAILEA

FUTBOLA

# UDAk ezinbestean irabazi beharko du Gasteizen

## Hirugarren Mailarako igoerako azken lehia jokatuko dute aretxabaletarrek etzi, domeka, 17:00etan

MIREIA BIKUÑA | ARETXABALETA

Getxoren kontra bana berdindu ostean, irabazteko premia dauka UDAk aste bukaeran. Igoera faseko bigarren eta azken lehia jokatuko du Gasteizen Elgorriagaren kontra (17:00), eta Hirugarren Mailan jokatu ahal izateko aukera bizirik mantentzeko irabazi egin behar du Gorka Valleren taldeak. Irabazi, eta ostean zain egon. "Etxeko-lanak egiten baditugu, Getxok irabazi egin beharko du azken partidua gasteiztarren kontra", esan du aretxabaletarren entrenatzaileak.

Puntu berdinketa badago, aldeko eta kontrako golak hartuko dituzte aintzat, eta berdinketak segitzen badu, elkarren kontra jokatutako partidu bukaeran jaurtitako penaltiak: aretxabaletarrek 4-3 irabazi zuten penaltietan, Ibarran.

**Jokalariak "gogotsu"**

Baina orain arte aipatutako kontu horiek guztiek ez dute zentzurik izango Elgorriaga menderatzen ez badute. "Badakigu zaila izango dela. Elgorriaga bigarren lekuan sailkatu da ligan eta talde indartsua da. Gainera, euren zelaian jokatzen dugu", dio entrenatzaileak.

Haritz Igartua izan ezik, gainerako jokalariak gertu ditu Gorka Vallek domekarako. "Jokalariak gogotsu daude. Getxoren kontrako lehia oso parekatua eta lehiatua izan zen. Akaso ez genuen joko onik erakutsi, baina badakigu zer egin behar dugun Gasteizen irabazteko", diote.

Partiduaren garrantziaz jabetuta, zaleen laguntza ez zaie faltako. Autobusetan joateko deialdia egin dute asteon, eta animoak izango dituzte harmailetan.

ATLETISMOA

# Ruiz de Azua, Axpe, Uribarren eta Agiriano urrezkoarekin eta Carrascal zilarrezkoarekin

## Gipuzkoako Txapelketan emaitza bikainak lortu dituzte Arrasateko atletismo taldeko kideek

M.B. | ARRASATE

Aire zabaleko denboraldia bikain hasi dute Arrasateko atletismo taldeko kideek. Anoetan jokatutako Gipuzkoako txapelketatik urrezko lau domina eta zilarrezko bat jantzita itzuli ziren.

Maialen Axpek eta Malen Ruiz de Azuak podiumeko lehen lekua partekatu zuten. Biek ala biek egin zuten 3,80 metroko pertika-jauzia. Hori horrela, urrezko domina jantzi zuten.

Bestalde, salto hirukoitzean, Iñigo Uribarrenek eta Eneko Carrascalek egindako lana aipatu behar da. Bereziki azken horrek egindakoa: Carrascalek probako bigarren salto onena egin zuen 14,66 metroko markarekin. Zilarrezko domina lortzeaz gain, Espainiako Estatuko junior mailako marka onena ezarri zuen. Podiumaren lehen lekura Realean diharduen Uribarren igo zen 15,72ko saltoa eginda. Era berean, Gipuzkoako Txapelketan parte hartu zuten Ibai Fernandezek eta David Gartziak 200 metroko lasterketan eta Daniel Martinezek 800 metrokoan. Dominak jantzi barik, emaitza onak lortu zituzten hirurek.

**Eskolartekoak**

Bestalde, Alex Agirianok Euskal Herriko eskolarteko txapelketan parte hartu zuen. Arrasatearrak 5,42 metroko luzera-jauziarekin urrezko domina lortu zuen eta Espainiako Estatuko marka onenarengatik zazpi zentimetrora geratu zen.



Malen Ruiz de Azua eta Maialen Axpe, Anoetako podiumean. | FERNANDO ZUFIRIA



Iñigo Uribarren eta Eneko Carrascal dominekin | F.Z.

TRIATLOIA

# 100 bat neska-mutiko Bergarako triatloi txikian

M.B. | BERGARA

Antxintxika Triatloi Taldeak gaztetxoendako triatloia egingo du etzi, domeka, Bergaran, 09:00etan. Debagoieneko ikastetxeetan egindako deialdiari erantzunez, 100 bat neska-mutiko lehiatuko dira benjamin, alebin eta infantil mailetan. "Gure aurreikuspenak gainditu egin dira. Oso pozik gaude gaztetxoen erantzunarekin", esan du Antxintxika taldeko kide Mikel Labakak.

Hauek dira adinaren arabera egin beharreko distantziak: benjaminek 50 metro igerian, 2.000 bizikletan eta 400 korrika; alebinek 100 igerian, 4.000 bizikletan eta 800 korrika; eta infantilek 150 korrika, 4.000 bizikletan eta 800 korrika.

**Bizikletan herrian zehar**

Igeriketako probak Agorrosingo igerilekuan egingo dituzte. Ostean, bizikletako ibilbidea egin beharko dute: Agorrosin-San Lorentzo zubia-Mugertza gaina-Zubieta kalea-Infernukua taberna-Ibargarai kalea-Zurradero zubia-Oxirondo azoka-Matxiategi kalea-Agorrosin. Adinaren arabera, itzuli bakarra edo bi eman beharko dute.

Azkenik, bizikleta utzi eta korrika egiteko zapatilak jantzita, azken proba egingo dute Agorrosin futbol zelaian dagoen atletismo pistan.

Triatloia bukatu ostean, sari banaketa ekitaldia egingo dute. Maila bakoitzeko onena sarituko dute.

**Triatloira gerturatu**

Multikirolean diharduten neska-mutikoak triatloi mundura gerturatzeko asmoz egingo dute domekako proba.

ATLETISMOA

# Gabez Takarraran lasterketako izen-ematea zabalik

Gabez Takarraran lasterketan parte hartzeko izen-emate epea zabalik dago. Helduendako edo gazteendako proban parte hartu gura dutenek *Kirolprobak.com* atarian eman dezakete izena. Gehienez 250 korrikalari onartuko dituzte helduen lasterketan, eta 100 gazteenean.

Helduek 23,7 kilometroko lasterketa egin beharko dute, eta gazteenek bederatzi kilometrokoa. Parte-hartzaileek mendian korrika egiteko zapatilak eta frontala edo linterna eraman beharko dituzte.

Lasterketak ekainaren 13an izango dira, Fernando Eskoriatza plazan hasita.

# Maiatzeko sari nagusien irabazleak

**TELEBISTA**
- Albina Arregi (Arrasate)

**OTARRA**
- Edurne Balzategi Juldain (Arrasate)

**ARRIKRUTZ**
- Miren Arregi Zuazubiskar (Arrasate)
- Kristina Atxa Gallastegi (Bergara)
- Jose Mari Altube Guridi (Oñati)

**JOKOAK**
- Amaia Iturbe Galdos (Arrasate)
- Iñaki Idigoras Igartua (Oñati)

**GOVERNORS diska**
- Aitor Aranzabal Gallastegi (Bergara)

**LIBURUA**
- Trini Galdos Urzelai (Oñati)
- Maite Larrañaga Olabarria (Bergara)

**SARIAK JASOTZEKO:**
**Arrikrutzeko sarrerak**. Zuetako bakoitzak, GOIENA KLUBeko txartela erakutsita, BINA sarrera izango dituzue ARRIKRUTZ-eko txarteldegian. Sarrerek 3 hilabeteko epe muga izango dute. ARRIKRUTZ KOBAK. Araotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00. Ordutegia: Asteartetik Igandera 10:00 – 17:00
**Beste sariak**. Saria jasotzeko zatoz, GOIENAren egoitzara etor zaitez.
Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da.
GOIENA. Otalora Lizentziaduna 31, Arrasate. 943 25 05 05
Ordutegia: Astelehenetik eguenera: 09:00 – 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 – 14:00.

# Goiena Klubeko ekaineko zozketak!

**Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!**

## E-BOOK bat

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI




Parte hartzeko sariaren izena: E-book




**Kalekantoi liburuxka**
**Txatxilipurdik argitaratutakoa.**
Parte hartzeko sariaren izena: Kalekantoi




**Diska**
**Korrontzi&BOSek argitaratutakoa.**
Parte hartzeko sariaren izena: Korrontzi




**Otarra**
**Bidezko merkataritzako produktuez osaturiko otarra.**
Parte hartzeko sariaren izena: Otarra



ARRIKRUTZ

**Sarrerak**
**Arrikrutz kobak bisitatzeko, 6 sarreren zozketa.**
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz

**PARTE HARTZEKO: Telefonoz:** 943 25 05 05 **E-postaz:** kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
**SMS:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla.
Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

# Maiatzean banatutako sariak

**ALTXORRAREN UHARTEA musikala**
- Mikel Orobengoa Kruzalaegi (Arrasate)
- Beñardo Balerdi Gomez (Arrasate)
- Zelia Jauregi (Arrasate)

**ZEA MAYS kontzertua**
- Nerea Garai Kortabarria (Arrasate)
- Maider Perez Martinez (Eskoriatza)

**ERDIBANA antzezlana**
- Margarita Oregi Alberdi (Bergara)
- Jasone Barandiaran Osuna (Eskoriatza)

**AMILAMI antzezlana**
- Bilaitz Marzan Usandizaga (Bergara)
- Edurne Elkoroiribe Izurrategi (Oñati)

**EDIPO antzezlana**
- Jose Ignacio Martinez Obetegi (Bergara)
- Eukene Mondragon Arregi (Arrasate)
- Loli Zeziaga Bengoa (Arrasate)

**MAGIA MOSTRA**
- Ainara Inuntziaga Ugarte (Aramaio)
- Maider Perez Martinez (Eskoriatza)
- Oihane Agirre Unzueta (Aretxabaleta)
- Iñaki Iturbe Beldarrain(Bergara)
- Nati Arrieta (Elgeta)
- Joxe Arantzabal (Elgeta)

**CAPACHOS ikuskizuna**
- Juan Ramon Balenziaga (Arrasate)
- Loli Zeziaga Bengoa (Arrasate)

**LABORAL KUTXA BASKONIA-UNICAJA**
- Eneko Fernandez de Luzuriaga (Arrasate)
- Luis Jesus Arenaza Zurbano (Bergara)
- Eluska Irazu Hernandez (Eskoriatza)
- Gotzon Arzelus Garai (Bergara)

**LABORAL KUTXA BASKONIA-R.MADRIL**
- Muxika Olasagasti sendia (Arrasate)
- Esther Merino Madariaga (Arrasate)
- Ekaitz Osa Zabaleta (Oñati)
- Ainhoa Urkia Agirre (Oñati)

**GURE AMETSA jatetxean otordua**
- Pilar Uranga Iraegi (Arrasate)

**MAULANDA jatetxean otordua**
- Nerea Garai Kortabarria (Arrasate)

**ERREKA jatetxean otordua**
- Iker Altuna Arenaza (Aretxabaleta)

**TXARRANTXA jatetxean otordua**
- Maria Visitacion Zabaleta (Bergara)

# KULTURA

# Iragandako denboraz, Markuletaren azken poemak

- 'Denbora bere lekura' (Erein) bilduma aurkeztu du astean
- Hamar urtean idatzi dituen askotariko poemen hautaketa da

**ESANAK**

**"Oroitutakoari bere pisu doia ematea da nik nahiko nukeena"**

G.MARKULETA | IDAZLEA




Liburu berriaren azala. | G.M.



Gerardo Markuleta azkeneko lana irakurtzen. | G.M.

**AITZIBER ARANBURUZABALA** | OÑATI

Bederatzi urteren ostean seigarren poema-liburua argitaratu du Gerardo Markuleta oñatiarrak: *Denbora bere lekura* (Erein).

Azken hamar urteetan idatzitako poemen hautaketa da eta izenburuak garden azaltzen du liburuaren asmo nagusia. "Iruditzen zait iraganak, denbora joanak, batzuetan gehiegizko pisua hartzen duela gure bizitzan, gure denbora presentean. Nik, behintzat, hala bizi izan dut: nerabezaro gatazkatsua, lehen gaztaro gorabeheratsua, traba astunegia gertatu zaizkit urte askoan. Baina ez naiz ahazteaz ari, ezta bizi izandakoa bazter batera uzteaz ere. Nire lehen ideia zen berrogeita hamar urte betetzean argitaratzea; orain bi urte, bada. Sinbolikoki bada ere, adin horrekin oso garbi ikusten dugu denbora gehiago utzi dugula atzean, aurretik duguna baino. Gero, hau dela eta bestea dela, atzeratu egin da argitaratzeko unea".

### Lau atal, elkarrekin josiak

Berrogeita hamar poema dira; aurreko liburu guztietan moduan, itxura eta luzera askotarikoak: "Komikian esan ohi den bezala, *marra garbiko* poemak dira, muturreko lirismorik eta surrealismo edo bestelako abangoardiakeriarik gabekoak. Lehen irakurraldian zuzen burmuinera eta bihotzera jotzen dutenak, gero bestelako interpretazioak egiteko bidea eskaintzen badute ere".

Lau ataletan banatu du liburua. "Esango nuke, baina, guztiak batzen dituztela doinu bakar batek, asmo jakin batek eta testuak tolesteko molde batek". Lehen atalean, Oñatin eman zituen haurtzaroko eta nerabezaroko eszenak dira nagusi; haren esanetan, atzera begira jarriz gero, hara jotzen dute bizkor burmuinak eta bihotzak, anabasa orekatsu honetara nola iritsi garen ulertu guran. Herriko tokiak eta pertsonak batu ditu horietan; tartean daude gurasoei eskainitakoak.

Iragan kolektiboaz jardun du *Ezkutuko tiradera* izeneko bigarren atalean. "Iraganak gu guztioi bizkarrean ezarri digun zamaz aritu naiz; soziologo batek, beharbada, *bortxa identitarioa* esango lioke eta kazetari batek, berriz, *gatazka*, eta gure Iban Zalduak *La Cosa*. Sendagarria izateko esperantzarekin idatzitako poemak batu ditut, horien artean".

Hirugarren atalean –*Altzari japoniarra* du izena– duen labur zaletasunari eman dio lekua. "Labur aritu beharrez, hitzak luzeran ezin eta, sakontasunean, oihartzunetan, zabaldu behar dira; eta, berba gutxi direnez gero, erabateko doitasunez aukeratu eta erabili beharra dago. Gehienak *haiku* tankerakoak dira, hau da, Japoniako poesia motakoak; baina ez guztiak".

Azken atalerako utzi ditu "amodio-poema" kontzeptuarekin antz handien izan dezaketen testuak. "Atal honetakoak biltzean, neure buruarekin harritu naiz. Amodiozko anti-poema asko idatzia naiz ni; oraingoan ia ezkon poemak ere idatzi ditut, baina umore puntua ahaztu gabe".

### Lehen irakurlea, norbera

Poesiarik irakurtzen ez dutenentzako ere liburu egokia dela dio, "poesiakeria gutxi dakarrelako", baina lehen irakurlea norbera dela aitortzen du, gusturen irakurtzen dituen poemen tankerakoak idazteko nahiari erantzun guran. Idazterakoan, adiskideen zirkulua ere buruan izan duela dio, batzuk poetak eta beste batzuk poesia-zaleak. "Zirkulu hori nahi adina zabal daiteke. Seguru nago kantautoreren bat animatzen bada poemaren batekin kanturen bat egiten, jende askok buruz ere ikasiko duela, poema denik ere ohartu gabe".

Hainbat dira Markuletaren poemekin kantuan egin dutenak: Jabier Mugurutza, Anje Duhalde, Mikel Urdangarin eta Josetxo Goia-Aribe, besteak beste.

### Onenak emateko garaian dago

Denborarekin, testuak tolesteko molde baten jabe eginda, heldutasuna lortu duela dio, eta narratibarako pausoa emateko tentatzen dutela ere bai: "Baina irakurle eta idazle moduan laburren zalea naiz. Izatekotan, ipuin laburrak, mikro-ipuinak edo eleberri motzen bat idatziko nuke".



Mugurutzarekin martitzean egin zuen poema musikatu errezitaldia. | EREIN

## Zergatik aukeratu dituzu Gerardo Markuletaren poemak musikatzeko?



**JABIER MUGURUTZA**
MUSIKARIA

"Aspaldiko elkarlana da bion artekoa. Haren hitz asko musikatu izan ditut, disko guztietan dut haren kanturen bat. Azkeneko bildumatik ere aukeratua dut bat. Horrez gainera, poesia musikatu errezitaldiak ere egin izan ditugu; martitzeneko aurkezpenean, azkena. Gauzak ikusteko eta adierazteko modu antzerakoa dugu Gerardok eta biok".



**ANJE DUHALDE**
MUSIKARIA

"Orain urte asko ezagutu genuen elkar. Bi kantu egin ditut haren hitzekin: *Heldu artean* eta *Ezin koplak*. Irrikan nago bilduma berria hartzeko, ea hortik ere zerbait ateratzen dudan. Gauza oso sentikorrak eta zuzenak egiten ditu; poesia modernoa da, baina jatorri herrikoiarekin. Metafora asko erabiltzen ditu eta hori oso gustuko dut".

# 'Hazparneko anderea' gaur Zabalotegin

## Telesforo Monzonek idatzi zuen antzezlana taularatuko dute gaur, Ander Lipusek zuzenduta

**MIREN ARREGI** | BERGARA

Telesforo Monzonek 60ko hamarkadan idatzitako *Hazparneko anderea* lana antzeztuko dute gaur, egubakoitza, 22:00etan Zabalotegin. Iduzkilore konpainiak ekarriko du hori Bergarara, Ander Lipusek zuzenduta. Monzonen idatzi klasikoari umorea erantsi dio Lipusek eta ikuspuntua erabat aldatu dio antzezlanari. protagonisten esanetan, jendeak antzezlanarekin barre egitea lortu dute.

Hazparneko familia baten istorioa kontatzen da antzezlanean, parodia eginez. XX. mendearen hasieran Amerikara dirua egitera joandako familia baten gora beherak kontatzen dira bertan. Hazparnera itzuli eta lortutako aberastasuna erakustea izango da familiaren helburua eta handinahi horrek eragindako egoerak kontatzen dira. Gai askotarikoak ukitzen dira antzezlanean; nahia eta itxurakeria, maitasuna, tradizioa...

Eszenografia berezia du antzezlanak; izan ere, eszenan parte hartzen ez duten aktoreak ez dira ezkutuan egongo, baizik eta taularen atzealdean, sare baten barruan.

### Sortzailearen herrian

2013an hasi zen Iduzkilore antzerki taldea antzezlana prestatzen eta 2014ko urriaz geroztik emanaldi mordoxka egin dituzte. Horietatik gehienak izan dira Iparraldean, baina, Seguran eta Azpeitian ere izan dira, eta esandako moduan, gaur Bergaran egongo dira, hain zuzen ere, antzezlanaren sortzaile Telesforo Monzonen herrian.

Lapurteraz idatzi zuen Telesforo Monzonek lana, baina, hori ez da oztopo izango, izan ere, Lipusek eta antzezlaneko kideek, oso ulerterraz egiten dute.



Iduzkilore antzerki taldea, *Hazparneko anderea* lana antzezten. | GOIENA

# 'Sin rumbo y a lo loco' antzeztuko du Ausartak taldeak Zaldibarren

## Bi saio egingo dira, 20:00etan eta 22:00etan; bigarren saiorako gonbidapenak eskuragarri daude

**M.A** | ESKORIATZA

Amuska emakume elkartearen baitako Ausartak antzerki tailerreko kideek *Sin rumbo y a lo loco delako* antzezlana aurkeztuko dute bihar, zapatua, Zaldibar antzokian. Bi saio egingo dituzte; lehena 20:00etan eta bigarrena 22:00etan. Lehenengo saiorako gonbidapenak agortuta daude, baina 22:00etako saiora joateko gonbidapenak eskuragarri daude kiroldegian.

*Extra, extra, extraordinarias* obra estreinatu zuten iaz eta aurten, eurek sortutako beste batekin aho zabalik utziko dituzte herritarrak: "Egin ditugun saioetan sortutako ideiekin osatutako lana da *Sin rumbo y a lo loco*", dio zuzendari Arantxa Lopez de Letonak.

Eskoriatzako zazpi emakume dira antzezlaneko protagonistak. Guztiak ere antzerkizaleak eta lanean gogotsu dihardutenak: "Adin desberdinetakoak dira; nahiz eta gehientsuenak helduak diren", dio Lopez de Letonak. Hegazkin konpainia berezi batek hegazkin bat hartzera gonbidatuko ditu protagonistak; hegazkinak, baina, helmuga berezi bat izango du. Protagonistek, beti umorez, ukitu berezi bat emango diote bidaiari.



Aulestia, Ormaetxea, Etxezarreta, Gutierrez eta Junkera. | AMETS ORMAETXEA

# Kepa Junkeraren eta Organik taldearen 'Txapeldun' bihar Amaia antzokian

## Gizartearen lehiakortasuna eta horrek berarekin dakarren presioa ditu hizpide ikuskizunak

**MAITE TXINTXURRETA** | ARRASATE

Dantza garaikidea, trikiti doinuak eta antzerkia uztartzen ditu zapatu honetan Arrasateko Amaia Udal Antzokian egingo duten *Txapeldun* izeneko ikuskizunak. Kepa Junkera, berak sortutako Sorginak taldeko kideak eta Organik-eko dantzariak bilduko dira agertokian, Natalia Mongeren zuzendaritzapean eta haren ekimenez.

Euskal tradizioarekin lotutako gaiak modernitatearekin jorratuko dituzte taula gainean arituko diren artistek, horretarako hainbat diziplinaren arteko nahasketa baliatuz.

19:30ean hasiko da ikuskizuna eta ordubete inguru iraungo du. Sarreraren prezioa 10 euro izango da.

### Txapeldunaren ajeak

Organik taldeak hamar urte bete ditu aurten, eta, urteurrena ospatzeko, jende guztiarengana iristeko moduko obra bat egin nahi izan du Natalia Mongek. Horretarako, guztientzat gertukoak diren egunerokotasuneko istorioak kontatu nahi izan ditu.

Eneko Balerdi dantzariak egingo ditu bihar protagonista lanak, kirolari txapeldun bat interpretatuta. Bere papera prestatzeko, 2008an Kolonbian eginiko bira batean ezagutu zituen Valentziako El Pont Flotant antzerki taldeko partaideen laguntza izan du.

Herri kirolak eta esku pilotaren mundua izango dira kontakizunaren testuinguru nagusia, eta horren bueltan istorio eta gai ugari landuko dituzte. Ospakizun eta arrakasta uneez gain, bakardadea, presioa, beldurra eta halako sentimenduak irudikatuko ditu Balerdik dantza mugimenduen bitartez. Ironia puntua ere ez zaio faltako biharko ikuskizunari.

Publikoarengan txapeldun izatearen eta irabaztearen esanahiari buruzko hausnarketa bultzatu nahi dute proiektu berritzaile horren bitartez.

### Arrasateko 'sorginak'

Zazpi neska gaztek osatzen dute, guztira, Junkeraren eskutik sortutako Sorginak musika taldea, eta horietako hiru arrasatearrak dira: Amets Ormaetxea, Leire Etxezarreta eta Irati Gutierrez –argazkian Eneritz Aulestia zarauztarrarekin batera agertzen dira.

Orain arte *Txapeldun* ikuskizunean Junkerarekin batera bi *sorgin* bakarrik aritu izan diren arren, oraingoan hiru izango dira; hiru mondragoetarrak, hain justu ere.

# Jul Bolinaga omentzeko jaialdia ekainaren 27an

▶ Bidelagun izan zituen musikariek haren ibilbidearen errepasoa egingo dute

▶ The Potes taldearekin taula gainean zela hil zen joan den azaroan



Agerraldi jendetsua egin zuten jaialdia iragartzeko. | JOKIN BEREZIARTUA

**MAITE TXINTXURRETA** | ARRASATE

Joan den azaroan hil zen RIP taldeko gitarra-jole izandako Jul Bolinaga Bergarako gaztetxean, The Potes taldearekin kontzertuan ari zela bihotzekoak jota.

Horren harira, familiaren, lagunen eta kideen artean Jul Lagunak taldea sortu zuten haren oroimena gordetzeko asmoz. Orain, Arrasateko Udalarekin elkarlanean, Bolinaga omentzeko jaialdi handia antolatu dute, hilaren 27an, Monterron parkean.

Bertan, RIPeko gitarra-joleaaren kantutegiaren errepasoa egingo dute bidelagun izan zituen hainbat musikarik. Hala ere, talde guztiak ezin izango dira ordezkatuta egon. "Horrek, gutxienez, hiru eguneko ekitaldia egitea eskatuko luke", antolatzaileen taldeko Iker Barandiaranek martitzeneko aurkezpen prentsaurrekoan adierazi zuenez.

Kontzertua 21:30ean hasiko da; Karrocerias Betoño, The Potes, Teclash, Piztu Punk eta RIP taldeen abestien doinuak entzun ahal izango dira, besteak beste.

Ekitaldiaren helburua "Jul musikarekin, alaitasunez eta jai giroan gogoratzea" da.

**Kartela eta kamisetak**

Egun handirako kartel eta kamiseta bereziak egin dituzte Jul Lagunak taldekoek. Bertan, *JULHN-E27* inskripzioa agertzen da (Jul Harro Nago -Ekainak 27), matrikula antzeko bat osatuz, "Julek motorrarekiko zuen zaletasuna islatzeko asmoz".

*Amaierarik gabeko bidea* esaldia ere irakur daiteke kartelean, musikariak proiektu eta kolaborazio berrietan etengabe parte hartzeko zuen grinari erreferentzia eginez. Hala azaldu du Bolinagaren lagun taldeko Kepa Altube *Kopi*-k.

Kamisetak salgai daude DAT tabernan eta Lazkano musika dendan, eta kontzertuaren egunean Monterronen bertan eskuratzeko aukera ere izango du hala nahi duenak.

**Ibilbide luzeko musikaria**

Gaztea zela, RIP taldearekin ospe handia lortu zuen Jul Bolinagak; izan ere, laukote arrasatearra punkaren erreferente bihurtu zen 80ko hamarkadan, euren soinu indartsu eta abesti gordinekin.

Edozelan ere, taldea desagertu ostean, Bolinagak ez zituen agertokiak alde batera utzi nahi izan, bizitza osoa eman baitzuen musikari lotuta. Iker Barandiaranek adierazi duenez, "mundua aldatzeko zuen grina musikarekin azaltzen zuen".

Talde askotan aritu ostean, azken urteetan The Potesekin ibili zen hara-hona banjoa jotzen, eta haiekin eman zuen azken kontzertua.

**San Juan jaien luzapena**

Omenaldia aitzakia hartuta, aurtengo San Juan jaiek egun bat gehiago izango dutela azaldu zuten prentsaurrekoan; izan ere, arratsaldean zabalik mantenduko dute Monterrongo txosnagunea. Hori dela eta, jai batzordearen laguntasuna eskertu dute Jul Lagunak taldekoek.



Eguaztenean egin zuten kontzertuen aurkezpena. | ANDER LARRAÑAGA

## Rheinbergerren eta Faureren lanekin kontzertuak Oñatin eta Bergaran

**M.T.** | DEBAGOIENA

Oñatiko Abesbatzak eta Bergarako Orfeoiak bi kontzertu emango dituzte ekainean bi musikariren azken obrak interpretatuz. Bergara, Arrasate eta, oro har, Gipuzkoako musikariekin osatutako Ganbara orkestraren laguntza ere izango dute proiektuan; guztira, 130 musikarik parte hartuko dute.

Lehen emanaldia ekainaren 14an izango da, Oñatiko Mikel Goiangeruaren elizan, eta bigarrena Bergaran, San Pedro parrokian.

**'Requiem' eta 'Mass in C'**

Gabriel Faureren *Requiem* eta Josef Rheinbergerren *Don* meza abestuko dituzte, biak ala biak konpositoreen bizitzaren amaieran idatzitakoak.

Aitor Biain zuzendariaren esanetan, orkestra "musikalki oso potentea da, harizko, haizezko zein metalezko instrumentuak batzen ditu eta".

## Uztailean Oriol Mirorekin kaligrafia ikastaroa egingo dute Arantzazuko Gandiaga zentroan

Uztailaren 16an eta 17an izango da ikastaroa, eta ortografia italikoa edo kurtsiba landuko dute bertan, metalezko idazluma erabiliz. Bartzelonako kaligrafo profesionala da Oriol Miro, eta hogei urte baino gehiago daramatza arlo horretan lanean. Izen-ematea ekainaren 30a baino lehen egin beharko da, *info@arantzazugandiaga.com* helbidera idatzita edo 943 71 65 75 telefonora deituta. Plaza mugatuak daude eta 100 euro ordaindu beharko dira.

# Egitarau potoloa Bergarako gaztetxearen XV. urteurrenerako

Gaur bertan hasiko dira ospakizunak eta datorren domekara arte iraungo dute; besteak beste, Fiachras–en eta Goseren kontzertuak izango dira




Gazte Asanbladako kideak kartzela zaharraren kanpoaldean. | BERGARAKO GAZTETXEA

**M.T.** | BERGARA

Musika, hitzaldiak, jolasak... denetarik prestatu dute Bergarako Gazte Asanbladakoek aurtengo urtebetetze borobila ospatzeko.

**Txapa Jaia**

Gaztetxeak bezala, Txapak ere urteurren borobila bete du aurten: hogeita hamar urte, hain justu ere. Hori dela eta, urte osoan ekintza ugari antolatu dituzte, eta zapatu honetarako ere kontzertu berezia iragarri dute.

22:30ean hasita, Fiachras taldekoek *Amnesia eta argia* disko berria aurkeztuko dute. Ondoren, Cabezafuego y los Brutales taldea taularatuko da, eta, azkenik, Txapa Irratikoak DJ lanetan arituko dira. Irratsaio bakoitzeko kideak hogeita hamarna minutuz egongo dira musika jartzen.

**Gaztetxe Eguna**

Datorren zapatuan, hilaren 13an, egun handia iritsiko da, Gaztetxe Eguna. Eta, horri hasiera emateko, patinete, bizikleta eta mozorroak hartu eta poteoa eta jolasak egingo dituzte kaleetan zehar. Gero, bazkaria izango da kartzela zaharrean, eta arratsaldean, berriz, elektrotxaranga. Bukatzeko, gaueko hamarretan, Bertsio Gaua egingo dute gaztetxean Goiko Rockeko musikarien eskutik.

### EGITARAUA

**EKAINAK 5**

**18:00** *Jostunak* dokumentala.

**EKAINAK 6**

**14:00** Munduko janariak.

**22:30** Txapa Jaia: Fiachras+Cabezafuego y los Brutales+Txapako DJak.

**EKAINAK 7**

**19:00** Kontzertuak: Issuo Sassia+Pelax eta Cowboy's Orchestra.

**EKAINAK 9**

**18:00** Hitzaldia: *Hidrokarburoen dilema etxeko atean.*

**EKAINAK 11**

**22:00** Kontzertua: Gose.

**EKAINAK 12**

**23:00** *Bertsondorrak.*

**EKAINAK 13** Gaztetxe Eguna

**12:00** Pati-poteo musikatua.

**14:30** Bazkaria (sarrerak 9 eurotan Arrano, Pol-Pol eta Kortazarren). Ondoren, elektrotxaranga.

**22:00** Bertsio gaua.

**EKAINAK 14**

**16:30** Xake txapelketa Iralan.

# UDALBATZA BERRIAK ERATZEKO BILKURAK

**EKAINA 13, ZAPATUA**
Jarraipen berezia Goienan, egunean bertan, Debagoieneko herri bakoitzetik bertatik
**Informazio guztia Goiena.eus-en eta albistegi berezia Goiena telebistan: 20:30, 21:30 eta 23:00.**

- **GOIENA TELEBISTA**
- **GOIENA.EUS**



25 URTE
HERRITELEBISTAGINTZAN

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Bergara.** Etxebizitza salgai Bidekurutzetan. 65 metro koadro. Laugarren solairua. Bi logela, sukaldea, egongela-jangela, komuna eta trastelekua. Argitsua, guztiz jantzita eta bizitzera sartzeko prest. Prezioa: 79.000 euro. Aukera oso ona. 618 44 38 44 edo 666 42 78 57

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Etxebizitza ematen da errentan Araba ibilbidea 5ean. 651 70 79 96

**Arrasate.** Erguin kalean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela. Berritua, jantzia eta berokuntzarekin. Egoera onean. 617 17 18 23

**Arrasate.** Erguinen, Udalpe kalean, etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzia. Egoera onean. Bi logelakoa. 17:00etatik aurrera deitu zenbaki hauetara: 620 15 15 08 edo 943 78 70 07

**Arrasate.** Ferrerias kalean logela bateko etxebizitza ematen da errentan. 619 34 88 52

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan unibertsitatetik gertu, Munarren. Igogailua eta berokuntza zentrala. Guztiz jantzita eta dena kanpoaldera begira. 659 44 86 79

**Bergara.** 84 metro koadro dituen bi logeladun etxebizitza konpondua errentan erdigunean. Gelak handiak dira. Baita sukaldea eta jangela ere. Altzariekin. 685 72 51 58

**Bergara.** Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Bi logelakoa. Igogailua. Jangela-egongela handia. 688 68 33 81

**Conil de la Frontera (Cadiz).** Bi etxebizitza ematen dira errentan opor sasoirako. Bata bi logelakoa eta bestea hirukoa. Hondartza ondoan. 653 73 34 57. Rosa Mari

**Donostia.** Alde Zaharrean bi pertsonendako aproposa den etxebizitza ematen da errentan. Bi logela. 2015eko irailetik 2016ko ekainera bitarteko ikasturterako. 520 euro gehi gastuak. 616 01 40 17

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Pertsona arduratsua naiz eta lanean ari naiz. Bi logelako etxebizitza txikia hartuko nuke errentan. 722 45 33 59

**Baserri bila.** Bikote arrasatearra baserri bila. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 680 34 29 60 edo 699 28 99 06

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartu nahi dut. Presazkoa da eta gehienez 400 euro ordain ditzaket. 689 69 79 86

**Bergara.** Bergarako bikote gazte bat gara eta etxebizitza bat errentan hartuko genuke. 678 47 43 54

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan. Urgentea da. 696 84 19 51

**Oñati.** Errentan hartzeko etxebizitza bila gabiltza. Oso arduratsuak eta langileak. 688 64 19 25

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate edo Bergara.** Neska euskalduna logela bila, Arrasaten edo Bergaran. Interesatuak telefono honetara diar egin: 688 82 69 68

**Bergara.** Mutil arduratsuak logela edo apartamentu txikia behar du errentan. Telefonoa: 610 34 97 88

**Oñati.** Logela ematen da errentan etxebizitza berri batean, erdigunetik gertu. Wifi konexioarekin. 656 74 29 49


INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel./ Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Aranerreka 87m², 3 logela, trasteroa. Garajea aukeran. PREZIO JEITSIERA. 110.000 €.
- Aramerrela 90m², 3 logela, trasteroa. PREZIO JEITSIERA. 129.000 €.
- Matxiategi 80 m², 3 logela. Berriztuta. Terrazarekin. 200.000 €.
- Bolun 135 m²ko elkartea salgai. Hornitua. 123.600 €.
- Angiozarren Erretegia alokagai. Erretegi bezala erabiltzeko dena hornitua eta martxan.
- San Antón Abad 71 m², 3 logela. 2 aparkaleku eta txokoarekin. 85.000 €.
- San Lorenzo 85 m², 3 logela, garaje eta trastelekuarekin. 150.000 €.
- Espoloia 95 m², 3 logela. Trastelekuarekin. Garajea aukeran. 235.000 €.
- Irizar pasealekua. 3 logela, igogailuarekin. 200.000 €.
- Simon Arrieta 68 m², 2 logela, 80 m²ko terrazarekin. 132.600 €.
- Simon Arrieta 69 m², 3 logela. 20 m²ko terrazarekin. 107.100 €.
- Ibargarai 73 m², 3 logela. 235.000 €.
- Zubieta 110 m², 3 logela. Ortua, lokala eta trastelekuarekin. 95.000 €
- Fraizkozuri 162 m², 4 logela. Trastelekuarekin.
- San Pedro 73 m², 3 logela. 13 m²ko terrazarekin. 115.000 €.
- San Antonio 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000 €.
- Angiozar 170 m² duplexa. Garajea, txokoa eta 180 m²mko lursailarekin.
- Artekale 47 m², 2 logela. Berriztuta. Trastelekuarekin. 100.000 €.
- Barrenkale 113 m², 3 logela, duplex berria. Igogailuarekin.
- Masterreka 72 m², 2 logela, duplexa. Trastelekuarekin. Berria estrenatzeko. 150.000 €.
- Zubiaurre 70 m², 2 logela. Erabat berriztuta 180.000 €.
- Simon Arrieta 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €.
- Ibargarai 57 m², 2 logela, oso ondo. Garajearekin. 215.000 €.
- Bidekurutzeta 71 m², 2 logela, erabat berriztua. Igogailua eta terraza handia. 204.344 €.
- Angiozar 60 m², 2 logela, erabat berriztua. Trastelekuarekin. 92.000 €.
- Zubiaurre 104 m², 2 logela. Berria. Igogailua. Trastelekua, Terrazarekin.
- Martoko 60 m², 2 logela, berogailua eta igogailua. 60.000 €.
- Aranerreka 79 m², 3 logela, berogailua, trastelekua. Garajea aukeran. 164.850 €.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 85.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- Matxiategi, 115m², 3 logela, trastelekua eta balkoia. Berriztuta. Oso ondo.

**ANTZUOLA:**
- Sagasti 140 m², duplexa. 250.000€
- Sagasti 90 m², 3 logela. Oso ondo. Garajearekin. 242.050€
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €
- Aiherra 83m². 3 logela. Igogailua eta balkoia. Oso ondo. Prezio ona.

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85m2. 3 logela. Igogailua. Berriztuta. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 61m2. 3 logela eta trasteroa. BERRITZEKO. 43.000 €. AUKERA BIKAINA.


# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO
**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
**- Profesionalen moduluak.**

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**PERITOA**
Durangaldeko peritazioen enpresa baterako, esperientziadun autoen peritoa behar dugu.
652 77 75 72

**Bergara.** Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 615 72 01 23

**Elgeta.** Emakume nagusi bat zaintzeko neska euskalduna behar da, etxean bertan bizi izaten. 619 68 38 90

### 402. ESKAERAK

**Arrasate, Bergara edo Oñati.** Erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Mennin lan egindakoa naiz. 943 78 62 19 edo 639 66 57 88

**Arrasate.** Lana behar dut. Nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten, egunez edota orduka. Umeak zaindu edo garbiketak egiteko ere gertu nago. 603 33 50 64 edo 682 31 97 37

**Bergara, Antzuola edo Arrasate.** Neska gertu arratsaldetan ume eta nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. 696 84 19 51

**Bergara.** Emakume bergararra gertu ume eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta informe onak ditut. 610 34 97 88

**Bergara.** Udan umeak zaintzeko gertu nago. Bertakoa naiz eta euskalduna. 634 42 85 11

**Debagoiena.** Erizain laguntzailea den esperientziadun emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Etxean bizi izaten, egun osoz edo orduka. 618 93 59 29

**Debagoiena.** 26 urteko neska euskalduna, erizain laguntzaile tituluduna, nagusiak zaintzeko gertu. Arduratsua naiz eta nagusiak zaintzen esperientzia daukat. Autoa daukat. 617 20 59 43

**Debagoiena.** Soraluzeko emakumea orduka etxeko lanak edo garbiketa lanak egiteko prest. Nagusiak zaindu, botikez arduratu eta paseoan laguntzeko ere bai. 628 54 02 41

**Debagoiena.** Astelehenetik egubakoitzera lan egingo nuke bai orduka, bai egunez, bai gauak egiten. Garbiketak egiten edo nagusien zaintzan. 610 99 70 46

**Debagoiena.** Emakume arduratsu eta esperientziadunak etxean bertan bizi izaten lan egingo luke, nagusien zaintzan. Lege paperak eguneratuta dauzkat. 631 90 22 07

**Debagoiena.** Emakume euskalduna haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. Euskaraz, gazteleraz edo alemanez hitz egingo diet. Esperientziaduna. 605 72 64 43

**Debagoiena.** Emakumea garbiketa lanak egiteko gertu: etxe, atari eta abarrak. Ordutegi malgua. 632 77 35 38 edo 645 57 29 87

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Etxean bertan bizi izanda, egun osoz edo orduka. 632 46 17 94

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 632 46 17 94

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile titulua duen neska gertu orduka zaintza lanak egiteko. Zazpi urteko esperientzia daukat. 620 23 58 15

**Debagoiena.** Erizain laguntzailea gertu nagusi edota ezinduak zaintzeko. Baserrietara joateko arazo barik, autoa daukat-eta. 678 37 32 43

**Debagoiena.** Esperientzia eta erreferentzia onak dituen emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Gauez, orduka edo egun osoz. 645 58 71 61

**Debagoiena.** Esperientzia eta erreferentzia onak dituen neska lanerako gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 631 14 27 02

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izanda edo bestela, nagusiak zaintzeko gertu nago. 603 65 88 95

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, zaintza lanetan edota garbiketak egiten. 687 36 21 83

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, zaintza lanetan edota garbiketak egiten. 617 12 61 44

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke, pertsona nagusien zaintzan. Erreferentzia onak ditut. 600 21 25 16

**Debagoiena.** Geriatria laguntzailea gertu orduka nagusiak zaintzeko, etxean zein ospitalean. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

**Debagoiena.** Gizona edozein lanetarako prest 10:00etatik 17:00etara: etxeko lanetan, nekazaritzan, lorezaintzan. . Pertsona nagusiak zaintzen esperientzia handia dut. Paperak eta erreferentzi onak ditut. 688 33 34 03

**Debagoiena.** Gizona gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat etxeko lanetan. 632 26 01 84

**Debagoiena.** Margotzen, lantegian zein tabernan lan egingo nuke. 697 88 35 62

**Debagoiena.** Nagusiak eta umeak zainduko nituzke. 654 79 07 58

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke etxean bertan bizi izaten edo orduka. Baita garbitasunean ere. Lege paperak eguneratuta dauzkat. 606 64 16 09

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen, garbiketan edo sukaldari laguntzaile jardungo nuke. 943 54 09 41 edo 691 03 25 02

**Debagoiena.** Neska arduratsua 11:00etatik 16:00etara bitartean nagusi edo umeak zaintzeko gertu. Lege paperak ditut. 677 39 70 48

**Debagoiena.** Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziaduna. Nagusiak zaindu eta paseoan ateratzeko ere gertu nago, baita orduka garbiketa lanak egiteko ere. 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusiak zaindu eta paseoan laguntzeko zein etxeko garbitasun lanak egiteko. Egun osoz edo orduka. 629 80 77 73

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusiak zaindu, garbiketa lanak egin edo tabernan jarduteko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Lege paperak ditut. 632 36 83 95

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu. Nagusi eta umeak zaindu zein garbitasun lanetarako. Orduka, egun osoz edota etxean bertan bizi izaten. 685 64 84 78

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu: tabernan, sukaldean, garbiketan, ume eta nagusiak zaintzen eta abar. Baita baserrietan ere. Etxean bertan bizi izaten edo bestela.

**AUKERA BAKARRA**
Etxebizitza salgai, bi apartamentutan banatuta.
Arrasate erdigunean. Garaia, argitsua eta terrazekin.
Berokuntza zentrala eta trastelekua.
Baten bizi eta bestea errentan eman dezakezu.
Tel.: 628 22 45 09

Autoa daukat. Telefonoa: 697 20 00 86

**Debagoiena.** Neska espainiarra, esperientziaduna, nagusiak zaindu eta etxe garbiketak egiteko gertu. Egun osoan zehar lan egin dezaket: egunez edo gauez. 633 84 65 30

**Debagoiena.** Neska lan bila: ume eta nagusiak zaintzen edo garbitasunean. Orduka, asteburuetan edo etxean bertan bizi izanda. 631 28 22 03

**Debagoiena.** Orduka lan egingo nuke. 689 95 12 83

**Debagoiena.** Pertsona nagusi eta umeak zaindu edo garbiketa lanetan arituko nintzateke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Lege paperak eguneratuta dauzkat. 696 30 19 10

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak eta umeak zainduko nituzke, hoteletan lan egin, sukaldari laguntzaile gisa lan egin, garbiketa lanak eta abar. Autoa daukat. 636 11 23 40

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanetan arituko nintzateke. 686 44 70 38

**Debagoiena.** Pertsonak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Auto daukat. Sandra. 602 12 18 27

**Debagoiena.** Zaintza lanetan arituko nintzateke. Arratsaldetan, orduka edo asteburuetan ere bai. 622 05 30 57

**Ile-apaintzailea.** Ile apaintzaile eta estetizista lanerako gertu. Asteburutan, orduka edo egun osoz; behar duzuna. 605 72 64 43

**Lan bila.** Garbiketa lanak egingo nituzke: etxeak, tabernak, atariak eta abar. Arduratsua naiz. 635 74 63 24

**Lorezaina.** Lorezaintzan eta eraikinen mantenu lanetan jardungo nuke. Gidabaimena daukat eta erabateko prestutasuna. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 943 79 82 43

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Autokarabana salgai.** 22 urteko autokarabana (kaputxina). Bost pertsonarendako lekua. 161.000km. 5,5 metroko luzera. Egoera onean. Merke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 696 62 67 40 edo 638 54 48 87

## 7. ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Katakumeak opari.** Apirilean jaiotako katakumeak ematen dira opari. interesatuok deitu zenbaki hauetara: 629 09 63 46 edo Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 660 92 70 71

**Katakumeak opari.** Katakumeak ematen dira opari. Interesatuok deitu iluntzean mesedez. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 943 76 38 58

**Txakurkumeak.** Euskal artzain txakurkumeak ematen dira opari. 685 75 78 16 (Marines)

## 8. DENETARIK

### 802. EROSI

**Klarinetea.** Bigarren eskuko klarinetea erosiko nuke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 650 39 20 87 Ines

## HOTZEZKO ESTANPAZIOKO LANGILEA

Debagoieneko industria-enpresa batek hotzezko estanpazioko makina baterako langilea behar du. Lau urtez Mexikon lan egingo luke, aurretik hemen urtebeteko formakuntza eginda.

**BALORATZEN DA:**
- Hotzezko estanpazioko ezagutzak izatea.
- Lanbide Heziketako titulazioa izatea.

**ESKAINTZEN DA:**
- Kanpoan (Mexikon) egindako lau urteen ostean Debagoieneko enpresan lanean hasteko aukera.

Interesatuok curriculuma bidal dezatela, ekainaren 21erako, argazki eta guzti, helbide honetara: mantenelect@gmail.com

**GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELKARTEAREN**

# BATZAR OROKORRA

**DEIALDIA**

**Honen bidez, 2015eko ekainaren 18an, eguena, egingo dugun urteroko ohiko batzar orokorrerako dei egiten dut.**

**Batzarra Arrasateko Kulturaten izango da, Jokin Zaitegi gelan, 17:30ean lehen deialdian eta 18:00etan bigarrenean.**

**GAI ZERRENDA**

1. Batzarreko akta onartzeko bi bazkide izendatzea.
2. 2014ko ekainaren 12ko batzar orokorreko aktaren onarpen txostena irakurtzea.
3. 2014ko kudeaketaren memoria azaltzea.
4. 2014ko kontuen berri ematea eta emaitzen erabilera onartzea.
5. Zaintza Batzordeko kideen txostena irakurtzea.
6. 2015eko kudeaketa plana onartzea.
7. 2015eko aurrekontua onartzea.
8. Bazkide ekarpenen eguneraketa.
9. Zaintza Batzordeko kide berriak aukeratzea.
10. Kontseilu Sozialeko kide berriak aukeratzea.
11. Galderak eta eskaerak.

Aitor Izagirre Navarro
Errektore Kontseiluko lehendakaria.

Arrasaten, 2015eko ekainaren 2an.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

## ZORION AGURRAK



ANTZUOLA
**Amets Arrizabalaga Zubikarai**
Ekainaren 11n, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo handi bat etxeko danon partetik.



OÑATI
**Irene Aranburu Onaindia**
Ekainaren 9an, 6 urte. Zorixonak gure etxeko printzeziari bere seigarren urtebetetzian.



ARRASATE
**Isaac Moreno Osorto**
Ekainaren 9an, 5 urte. Zorionak, Isaac, zure gurasoen, arrebaten, izeba-osaben, lehengusu-lehengusinen eta familiako guztion partetik. Ederto pasatu zure egunean!



BERGARA
**Paulo Elkoroberezibar Belastegi**
Ekainaren 9an, 7 urte. Zorionak, txapeldun, familiako guztien partetik. Patxo erraldoi bat.



ARAMAIO
**Ander eta Hegoa Bengoa**
Ekainaren 8an, 5 urte. Zorionak, aitatxo eta zorionak, Hegoa! Zenbat urtebetetze ekainien, e? Zeuenak be familixa eta lagunen artien primeran pasatuko ditxugu! Jaso patxo handi-handi bana Ilargiren eta amatxoren partetik!



ARRASATE
**Alaitz Bergaretxe Aldazabal**
Ekainaren 6an, 9 urte. Familiakoen eta, bereziki, etxekoen partetik, zorionak eta muxu handi bat!



BERGARA
**Ekain Miranda Arabaolaza**
Ekainaren 6an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat etxekoen partetik eta oso ondo pasatu zure eguna.



ESKORIATZA
**Maialen Apraiz Ansola**
Ekainaren 6an, 8 urte. Zorionak, printzesa! Patxo potolo bat denen partetik!



ARETXABALETA
**Alain Rodriguez Arca**
Ekainaren 5an, 2 urte. Zorionak, maitia! Muxu handi bat etxeko guztion partetik.



ARRASATE
**Unai Rodriguez**
Ekainaren 5an, 11 urte. Zorionak! Azkenean iritsi zara hamaikara! Ondo-ondo pasatu eta muxuak familia guztiaren eta, batez ere, Landerren eta Yuneren partetik.



BERGARA
**Amets Uribesalgo**
Ekainaren 5an, urtebete. Zorionak, txapeldun! Zaren moduko alaia segi izaten. Patxo handi-handi bat aitatxoren, amatxoren eta batez ere Izarren, Ekaitzen, Oierren eta Eleneren partetik.



ARAMAIO
**Unai Ormaechea Arriaran**
Ekainaren 5an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat etxekoan partetik!



BERGARA
**Jose Ignacio Sasiain Larrañaga**
Ekainaren 4an, 58 urte. Zorionak, aitxitxa!Patxo handi bat zuretako! Pa!



BERGARA
**Peru Montalvo Ruiz de Egino**
Ekainaren 4an, 5 urte. Zorionak, Peru! Patxo potolo-potolo bat etxeko danen partetik!



ARETXABALETA
**Oinatz Irure Aiastui**
Ekainaren 4an, 11 urte. Zorionak, Oinatz! Egun ederra pasatu eta ondo ospatu urtebetetze eguna. Patxo handi bat etxeko danon partetik.



BERGARA
**Jone Rivera Iñarra**
Ekainaren 3an, 2 urte. Zenbat urte betetzen ditxu Jonek?? Bi! Ondo pasatu eguna, sorgintxo!



OÑATI
**Lide Aramendi Diaz**
Ekainaren 2an, 5 urte. Zorionak, Pitu! Edarto pasatu familia eta lagunekin. Bost belarri tirakada eta milaka patxo handi etxeko danon eta, bereziki, Xabaten partetik.



ANTZUOLA
**Iker Larrea eta Maddi Larrea Garitano**
Ekainaren 2an, Urtebetetzea. Ikerrek ekainaren 2an, 38 urte eta Maddik ekainaren ‎3an, 2 urte. Zorionak eta urte askotarako. Ondo pasatu zuen urtebetetze egunian eta patxo potolo bana Ametsen, Oinatzen eta amatxoren partetik!



BERGARA
**Luis Igartua**
Ekainaren 1an, Urtebetetzea. Urte askotarako, Luis, lehengusu eta lehengusinen partetik!



OÑATI
**Luken Beltran de Guevara De Miguel**
Ekainaren 1an, 6 urte. Zorionak, Luken! Familia guztiaren eta, bereziki, Hodeiren, Xabierren eta Galderren partetik. Muxu erraldoi bat.



ELGETA
**Maia Erostarbe Beristain**
Maiatzaren 30an, 7 urte. Zorionak, neska handi, etxekoen partetik.



ARRASATE
**Haizea Errasti Canales**
Maiatzaren 29an, 3 urte. Zorionak, printzesa! Ze handi zaren, potxola! famili guztiaren eta, bereziki, Markelen, Aitorren, Juneren eta Alazneren partetik, muxu asko. Aupa, Haizeota!



OÑATI
**Paula Zelaia**
Maiatzaren 29an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu asko Jonen eta Sararen partetik!



OÑATI
**Hegoa Larrea**
Maiatzaren 29an, 9 urte. Zorionak! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo handi bat etxeko danon partetik.



BERGARA
**Izaro Puga Saez**
Maiatzaren 28an, 9 urte. Zorionak, Izaro maitia! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna familiarekin. Muxu handi-handi bat denon partetik. Maite zaitugu, printzesa.



ARRASATE
**Danel Saiz Ceciaga**
Maiatzaren 28an, urtebete. Zorionak, poxpolin! Zein aguro pasatu den denbora. Dagoeneko urtebete gure egunak alaitzen. Oso ondo pasatu eguna eta orain bezain alai eta maitakor jarraitu. Txokolatezko muxu eta besarkada handi asko, etxeko guztion partetik.



ARETXABALETA
**Araitz Pagaldai Atxa**
Maiatzaren 28an, 3 urte. Zorionak, poxpolin! Ondo-ondo pasatu zure hirugarren urtebetetze eguna. Muxutxo potolo-poloto bat etxeko eta familiako danon partetik.



ARETXABALETA
**Lorea Belategi**
Maiatzaren 28an, 10 urte. Primeran pasatu genuen txokolatadan. Mila esker etxeko guztien eta, bereziki, Markelen, Aratzen, Hodeiren, Goiatzen, Maddiren, Izadiren, Garaziren eta Eleneren partetik.

# Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *http://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.
**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## ASTEA GOIENAN


JOSETXO ARANTZABAL

### Corpus jaien gaineko erreportajea

Asteburuan ospatuko dira Oñatin Corpus jaiak, eta domekan egingo den prozesioan Ibai Gonzalez izango da San Migel. Prozesioko pertsonaiak nola janzten dituzten eta prozesioa bera ikusi ahal izango dira asteleheneko erreportajean.

**'Debagoiena zuzenean'**
Astelehena, 20:00


GOIENA

### Aretxabaletako 'Kirolez busti' ikusgai

Asteburuan Debagoienean izango diren kirol kontu ugari jasoko ditu Xabier Urzelai kazetariak asteleheneko *Harmailatik* saioan. Besteak beste, Aretxabaletako *Kirolez blai*, Oñatiko nazioarteko lasterketa eta nazioarteko errugbi torneoa ikusi ahal izango dira.

**'Harmailatik'**
Astelehena, 22:00

## GOIENA TELEBISTA

**EGUBAKOITZA, 5**

- **12:00** Debagoiena zuzenean
- **12:30** Galdegazte
- **13:00** Herriz-herri
- **13:55** Zorion Agurrak
- **14:00** Debagoiena zuzenean
- **14:30** Berriak
- **15:00** Amaia DJ
- **15:30** Onein
- **16:00** Debagoiena zuzenean
- **16:30** Berriak
- **17:00** Ikusi irratia
- **18:00** Ur eta lur
- **18:25** Zorion Agurrak
- **18:30** Berriak
- **19:00** Idemtitateak
- **19:30** Amaia DJ
- **20:00** Debagoiena zuzenean
- **20:30** Berriak
- **21:00** Debagoiena zuzenean
- **21:30** Berriak
- **22:00** Ahotsenea
- **22:30** Debagoiena zuzenean
- **23:00** Berriak
- **23:30** Amaia DJ
- **00:00** Debagoiena zuzenean
- **00:30** Astea iruditan
- **00:30** Berriak

**ZAPATUA, 6**

- **10:00** Amaia DJ
- **10:30** Pauso bi
- **11:00** Debagoiena zuzenean
- **12:00** Mahai-ingurua: Kapitalismoa krisian
- **13:30** Onein
- **14:00** Amaia DJ
- **14:30** Erremeixuak
- **15:00** Debagoiena zuzenean
- **16:00** Astea iruditan
- **16:05** Pauso bi
- **16:30** Idemtitateak
- **17:00** Ertzak
- **17:00** Zorion Agurrak
- **18:00** Idemtitateak
- **18:30** Pauso bi
- **19:00** Debagoiena zuzenean
- **20:00** Astea iruditan
- **20:00** Mahai-ingurua: Kapitalismoa krisian
- **21:30** Amaia DJ
- **22:00** Ahotsenea
- **22:30** Herriz-herri
- **23:30** Debagoiena zuzenean
- **00:30** Amaia DJ

**DOMEKA, 7**

- **10:00** Debagoiena zuzenean
- **11:00** Astea iruditan
- **11:00** Ertzak
- **12:00** Amaia DJ
- **12:30** Herriz-herri
- **13:30** Pauso bi
- **14:00** Debagoiena zuzenean
- **15:00** Astea iruditan
- **15:00** Erremeixuak
- **15:30** Mahai-ingurua: Kapitalismoa krisian
- **15:30** Zorion Agurrak
- **17:00** Debagoiena zuzenean
- **18:00** Astea iruditan
- **18:00** Idemtitateak
- **18:30** Onein
- **19:00** Debagoiena zuzenean
- **20:00** Pauso bi
- **20:00** Astea iruditan
- **20:30** Herriz-herri
- **21:30** Mahai-ingurua: Kapitalismoa krisian
- **23:00** Amaia DJ
- **23:30** Idemtitateak
- **00:00** Debagoiena zuzenean
- **01:00** Astea iruditan

**ASTELEHENA, 8**

- **12:00** Debagoiena zuzenean
- **13:00** Onein
- **13:30** Zorion Agurrak
- **13:30** Debagoiena zuzenean
- **14:30** Berriak
- **15:00** Ahotsenea
- **15:30** Onein
- **16:00** Debagoiena zuzenean
- **16:30** Berriak
- **17:00** Ikusmira
- **17:15** Ikusi irratia
- **18:15** Zorion Agurrak
- **18:30** Berriak
- **19:00** Idemtitateak
- **19:30** Pauso bi
- **20:00** Debagoiena zuzenean
- **20:30** Berriak
- **21:00** Debagoiena zuzenean
- **21:30** Berriak
- **22:00** Harmailatik
- **22:30** Debagoiena zuzenean
- **23:00** Berriak
- **23:30** Ahotsenea
- **00:00** Debagoiena zuzenean
- **00:30** Berriak

**MARTITZENA, 9**

- **12:00** Debagoiena zuzenean
- **12:30** Harmailatik
- **12:55** Zorion Agurrak
- **13:00** Pauso bi
- **13:30** Erremeixuak
- **14:00** Debagoiena zuzenean
- **14:30** Berriak
- **15:00** Harmailatik
- **15:25** Zorion Agurrak
- **15:30** Onein
- **16:00** Debagoiena zuzenean
- **16:30** Berriak
- **17:00** Ertzak
- **18:00** Harmailatik
- **18:25** Zorion Agurrak
- **18:30** Berriak
- **19:00** Pauso bi
- **19:30** Erreportajea: Ñañarri 2015
- **20:00** Debagoiena zuzenean
- **20:30** Berriak
- **21:00** Debagoiena zuzenean
- **21:30** Berriak
- **22:00** Pauso bi
- **22:45** Debagoiena zuzenean
- **23:15** Berriak
- **23:45** Harmailatik
- **00:15** Debagoiena zuzenean
- **00:45** Berriak

**EGUAZTENA, 10**

- **12:00** Debagoiena zuzenean
- **12:30** Erremeixuak
- **13:00** Ikusi irratia
- **13:55** Zorion Agurrak
- **14:00** Debagoiena zuzenean
- **14:30** Berriak
- **15:00** Erremeixuak
- **15:30** Onein
- **16:00** Debagoiena zuzenean
- **16:30** Berriak
- **17:00** Ertzak
- **18:00** Ur eta lur
- **18:30** Berriak
- **18:55** Zorion Agurrak
- **19:00** Amaia DJ
- **19:30** Erremeixuak
- **19:55** Zorion Agurrak
- **20:00** Debagoiena zuzenean
- **20:30** Berriak
- **21:00** Debagoiena zuzenean
- **21:30** Berriak
- **22:00** Pauso bi
- **22:30** Debagoiena zuzenean
- **23:00** Berriak
- **00:00** Debagoiena zuzenean
- **00:30** Berriak

**EGUENA, 11**

- **12:00** Debagoiena zuzenean
- **12:30** Pauso bi
- **13:00** Ertzak
- **14:00** Debagoiena zuzenean
- **14:30** Berriak
- **15:00** Idemtitateak
- **15:25** Zorion Agurrak
- **15:30** Onein
- **16:00** Debagoiena zuzenean
- **16:30** Berriak
- **17:00** Ikusi irratia
- **18:00** Ur eta lur
- **18:25** Zorion Agurrak
- **18:30** Berriak
- **19:00** Herriz-herri
- **20:00** Debagoiena zuzenean
- **20:30** Berriak
- **21:00** Debagoiena zuzenean
- **21:30** Berriak
- **22:00** Amaia DJ
- **22:30** Debagoiena zuzenean
- **23:00** Berriak
- **23:30** Harmailatik
- **23:30** Pauso bi
- **00:00** Debagoiena zuzenean
- **00:30** Berriak

## ARRASATE IRRATIA

### 'Kalekantoi' kaleko jolasen bilduma zozketatuko dute

Txatxilipurdik umeendako atera duen *Kalekantoi* kaleko jolasen bilduma zozketatuko dute datorren asteko zozketan. Egubakoitzean, hilak 12, egingo dute zozketa, *Igo autobusera!* irratsaioan, eta parte hartzeko 943 25 05 05era deitu edo *irratia@goiena.com* helbidera idatzi beharko da.

### Asteko gainbegiratua zapatuan eta domekan 10:00etan

Arrasateko trikitilari Amets Ormaetxea Kepa Junkeraren Sorginak taldeko kide da eta zapatuan Amaia antzokian eskainiko duten *Txapeldun* ikuskizunari buruz hitz egin du astean irratian. Bada, elkarrizketa hori berreskuratuko dute, besteak beste, zapatuan eta domekan 10:00etan.

## EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK





### Angel eta M. Paz

Gaur, ekainak 5, Oñatiko Angel Aiastuik eta M. Paz Arrietak urrezko ezteiak ospatuko dituzte. "50 urte batera! Familia osoaren partetik, zorionak eta muxu bero bat zuentzat. Eskerrik asko urte hauetan guztietan eman diguzuen maitasunagatik. Horrela jarraitu eta egun on-ona pasatu!".





### Iñaxio eta Rosario

Iñaxio Madina eta Rosario Agirre oñatiarrek urrezko ezteiak beteko dituzte ekainaren 6an. "Zuen urrezko ezteietan, zorionak, bihotzez, familiaren partetik. Muxu handi bana!".



### Nerea eta Jon

"Heldu da eguna! Nerea Etxeberria aretxabaletarra eta Jon Loiti arrasatearra ekainaren 6an ezkonduko dira Aretxabaletan. Zorionak, bikote, familiaren eta lagunen partetik!".



### Naiara eta Josu

Naiara Altuna oñatiarra eta Josu Aranbarri azkoitiarra zapatuan ezkonduko dira Oñatiko Santa Kurtz ermitan. "Bergarako Lasa jatetxean bazkalduta ospatuko dugu familia eta lagunekin batera. Zorionak, bikote! Egun zoragarria pasatuko dugulakoan, ondo ibili Honduras eta Costa Rica aldean! Muxu handi bat etxekoen eta kuadrillakoen partetik".



### Maite eta Ander

Maite Cot eta Ander Gomez gaur, ekainak 5, ezkonduko dira Bergaran. "Zorionak, aitatxo eta amatxo! Azkenean heldu da eguna eta orain desiratzen nago bidaia potolora joateko hirurok! Bizitzan onena opa dizuegu eta patxo handi bat bakoitzari, familiaren, lagunen eta, batez ere, zuen alabatxo Amaiaren partetik".

URTEURRENA

## Imanol Kerejeta Barrutia



2014ko ekainaren 4an hil zen.

Lehen urteurreneko meza hurrengo domekan, ekainaren 14an, izango da, 11:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

—

*Aitatxo, urtebete gure ondotik joan zinela, baina beti gure bihotzetan izango zaitugu.*

Emazte Lola Lopez eta seme-alaba Nekane, Asier eta Unai.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Arrasaten, 2015eko ekainaren 5ean.**

URTEURRENA

## Facundo Garay Txintxurreta



-Goian bego-

2014ko ekainaren 5ean hil zen, 82 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza, domekan, ekainaren 7an, 13:00etan, izango da, Begoñako Santa Eulalia elizan.

—

*Urtebete da gure ondotik joan zinela,*
*baina betiko zaude gure bihotzean.*

Emaztea, seme-alabak eta ilobak.

**Elizkizunetara etorriko zaretenoi, mila esker.**
**Arrasaten (Bedoña), 2015eko ekainaren 5ean.**

URTEURRENA

## Jesusa Lete Aldai



Eskoriatzan hil zen 2014ko maiatzaren 31n, 89 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 7an, 12:30ean, Eskoriatzako San Pedro parrokian.

—

*Beti izango zara gure oroimen eta bihotzetan.*

**Aldez aurretik, mila esker.**
**Eskoriatzan, 2015eko ekainaren 5ean.**

URTEURRENA

## Lander Elorza Garcia



Angiozarren, 2014ko ekainaren 2an, gure ondotik joan zen, 18 hilabete zituela.

*Lander, ze bizitza tristea joan zinetetik.*
*Bizitza poztasunez betetzen zenigun.*
*Hain polita, hain alaia, hain bihurritxoa...*
*Maite zaitugu. Beti gure bihotzetan.*

**Elorza eta Garcia sendiak.**
**Antzuolan, 2015eko ekainaren 5ean.**

URTEURRENA

## Lander Elorza Garcia



Angiozarren, 2014ko ekainaren 2an, gure ondotik joan zen, 18 hilabete zituela.

*Nahiz eta gure artean denbora gutxi bizi,*
*utzi duzun hutsunea oso handia da.*
*Beti gure bihotzean, maitxia.*

**Aitatxo Eneko eta amatxo Paki.**
**Bergaran (Angiozar), 2015eko ekainaren 5ean.**

URTEURRENA

## Jesus Arregi Irastorza



2013ko ekainaren 7an hil zen, 67 urte zituela.

*Hegoak ebaki banizkio*
*nerea izango zen,*
*ez zuen aldegingo.*
*Bainan, honela*
*ez zen gehiago txoria izango.*

**Antzuolan-Urretxun, 2015eko ekainaren 5ean.**

ESKER ONA

## Julian Uribeetxebarria Osoro



Gasteizen hil zen 2015eko maiatzaren 24an, 74 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

**Arrasaten, 2015eko ekainaren 5ean.**

ESKER ONA

## Antonio Carenas Huerta



Arrasaten hil zen 2015eko ekainaren 1ean, 76 urte zituela.

Haren emaztea: Arantxa Usobiaga Usatorre.
Seme-alabak: Esperanza, Anton eta Belen.

—

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

**Arrasaten, 2015eko ekainaren 5ean.**

ESKER ONA

## Lucio Lizarralde Mujika



Ekainaren 2an hil zen, 86 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

**Bergaran, 2015eko ekainaren 5ean.**

ESKER ONA

## Manu Garitano Iñurrategi



Bergaran hil zen 2015eko maiatzaren 29an, 98 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

**Bergaran, 2015eko ekainaren 5ean.**

ESKER ONA

## Juan Irigoyen Unzueta



Maiatzaren 31n hil zen, 87 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

**Bergaran, 2015eko ekainaren 5ean.**

ESKER ONA

## Concepción Uribe Vergarajauregui



Oñatin hil zen 2015eko ekainaren 3an, 83 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

**Oñatin, 2015eko ekainaren 5ean.**

## HILDAKOAK

**Julian Uribeetxebarria Osoro.** Arrasaten, maiatzaren 24an. 74 urte.
**Mari Carmen Ribero Cordero.** Arrasaten, maiatzaren 27an. 79 urte.
**Frantzisko Pacheco Rey.** Arrasaten, maiatzaren 28an. 77 urte.
**Manu Garitano Iñurrategi.** Bergaran, maiatzaren 29an. 98 urte.
**Juan Irigoyen Untzueta.** Bergaran, maiatzaren 31n. 87 urte.
**Antonio Carenas Huerta.** Arrasaten, ekainaren 1ean. 76 urte.
**Dan Adrian Mares Resid.** Arrasaten, ekainaren 1ean. 59 urte.
**Dolores Nogueira Bravo.** Arrasaten, ekainaren 1ean. 87 urte.
**Florentino Orobengoa Biteri.** Arrasaten, ekainaren 2an. 86 urte.
**Lucio Lizarralde Mujika.** Bergaran, ekainaren 2an. 86 urte.
**Ramon Iribekanpos Garaizabal.** Bergaran, ekainaren 3an. 79 urte.
**Concepcion Uribe Bergarajauregi.** Oñatin, ekainaren 3an. 83 urte.
**Luis M. Gallastegi Altube.** Bergaran, ekainaren 4an. 76 urte.

OROIGARRIA

## Juan Irigoyen Unzueta



Maiatzaren 31n hil zen, 87 urte zituela.

*Beti gure artean.*

**Alkartu-Nai lagunak.**
**Bergaran, 2015eko ekainaren 5ean.**

**OROILORE**
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



*maribi 617 44 21 55*
*BERGARA*

## ZINEMA

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**La familia Belier**
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Asterix**
Domeka: 17:00.

### BERGARA

**ZABALOTEGI**

**Origenes**
Domeka: 19:30.

**Big hero 6**
Domeka: 17:00.

### EIBAR

**COLISEO**

**La familia Belier**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Nuestro ultimo verano en Escocia**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**ANTZOKIA**

**Poltergeist**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

### GASTEIZ

**FLORIDA**

**Nuestro ultimo verano en Escocia**
Egubakoitza eta eguena: 18:20, 20:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 18:20, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguaztenera: 18:45, 20:45.

**Requisitos para ser una persona normal**
Egubakoitzetik domekara: 16:40, 18:20, 22:30.
Astelehenetik eguaztenera: 17:00, 19:00.
Eguena: 16:50, 19:00.

**Insidious**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 18:50.

**Dando la nota, aun mas alto**
Egubakoitza: 18:20.
Zapatua eta domeka: 12:00, 18:20.
Astelehenetik eguenera: 20:40.

**Una paloma se poso en una rama a reflexionar**
Astelehenetik eguenera: 16:30, 20:30.

**A cambio de nada**
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 19:00.

**Conducta**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:45.

**Phoenix**
Egubakoitzetik domekara: 16.40, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehena eta martitzena: 17:00, 18:50, 20:40.
Eguaztena eta eguena: 19:00.

**Mandarinas**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 19:00.

**Suite francesa**
Egubakoitzetik domekara: 20:00.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:45.

**Tomorrowland**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**La cancion del mar**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Minusculo**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**La oveja Shaun**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Vengadores: la era del Ultron**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**BOULEVARD**

**Insidious**
Egubakoitza eta zapatua: 23:30, 00:00.
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 18:30, 19:30, 20:30, 21:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 15:30, 16:30.

**Tomorrowland**
Egubakoitza eta zapatua: 23:50.
Egubakoitzetik eguenera: 18:30, 19:40, 21:10, 22:20.

**Mad Max**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Mad Max 3D**
Egubakoitza eta zapatua: 00:00.

**Dando la nota: aun mas alto**
Egubakoitzetik eguenera: 17:50, 20:10, 22:30.
Zapatua eta domeka: 15:30.

**It follows**
Egubakoitza eta zapatua: 00:45.
Egubakoitzetik eguenera: 18:15, 20:25, 22:35.
Zapatua eta domeka: 16:05.

**Poltergeist**
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:00, 22:00.

**Poltergeist 3D**
Egubakoitza eta zapatua: 00:55.

**Nuestro ultimo verano en Escocia**
Egubakoitza eta zapatua: 00:25.
Egubakoitzetik eguenera: 18:25, 20:25, 22:25.
Zapatua eta domeka: 16:25.

**Caza al asesino**
Egubakoitza eta zapatua: 00:00.
Egubakoitzetik eguenera: 19:20, 21:40.

**Vengadores: la era del Ultron**
Egubakoitzetik eguenera: 19:30, 22:15.

**La oveja Shaun**
Egubakoitzetik domekara: 17:30.
Zapatua eta domeka: 15:40.

**Superpoli en Las Vegas**
Zapatua eta domeka: 15:30.

**La familia Belier**
Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 17:30.

**Cenicienta**
Zapatua eta domeka: 15:30.

**Asterix**
Egubakoitzetik domekara: 17:45.

**Home: hogar dulce hogar**
Zapatua eta domeka: 16:00.

**Con la magia en los zapatos**
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**El viaje mas largo**
Astelehenetik eguenera: 17:30.

## KRITIKA

# Umore absurdoa

**UNA PALOMA SE POSO EN UNA RAMA PARA REFLEXIONAR SOBRE LA VIDA** ★★★☆☆
**Zuzendaria:** Roy Andersson.
**Aktoreak:** Holger Andersson, Nils Westblom.

Izenburua irakurrita erraz antzeman dezakegu Roy Anderssonen azken filma ez dela lan arrunta. *Una paloma se posó...* filma bizitzaren zentzuari buruz galdetzen duen trilogia baten azkeneko zatia da. Filma komedia generoan koka daiteke. Hori bai, zuzendariak komediara egiten duen oso hurbilketa pertsonala da. Umore absurdoa erabiltzen du esketxez osatutako lanean. Esketx guztiak, bat izan ezik, plano bakarrean filmatuta daude. Kamera ez da mugitzen eta plano bakoitzaren sakontasuna oso handia da elementuak eta pertsonaiak behar bezala kokatuta egon daitezen eta horiei nahi duen etekina ateratzeko. Erabiltzen diren koloreak oso motelak dira eta istorio desberdinetan agertzen diren pertsonaiek zonbiak dirudite: ez dute energiarik, eta berba eta keinu gutxiko pertsonaiak dira.

Esketx batzuek bukaera dute eta beste batzuk pelikulan garatzen doaz. Txantxako osagaien bi saltzaile dira filmaren pertsonaia nagusienak. Hor dago paradoxa: ilusio eta kemen gutxiko bi pertsonak bromazko artikuluak saldu nahi dituzte txantxarako gogo gutxi duen jendearen artean. Pelikulan azaltzen diren pertsonaiak tristeak, diruzaleak, dirugabekoak —diruaren pisua nabarmena da— eta berekoiak dira eta ez dute beste gizakiengana hurbiltzeko interesik, ezta horiei laguntza eskaintzeko asmorik ere. Gizarte kapitalistaren errukirik eza, guden eta inperialismoaren porrotak ikusiko ditugu. Baina dena ez da iluna, noizbehinka ikusiko ditugu gizakien alde onak erakusten dituzten esketxak. Horren adibide, 1943an taberna baten gertatzen den esketx musikala. Eszena hori benetan zoragarria da. Filmaren hasieran, pertsona bat museo bateko hegaztiei begira dago. Hain zuzen ere, azkeneko eszenan, eta soinuaren bidez, izenburuko usoa han dagoela antzemango dugu.

ANTONIO ZABALA



BONBERENEA.COM

**BERGARA Gaztetxearen 15. urteurreneko kontzertua**
Fiachras eta Cabezafuego y Los Brutales taldeek kontzertua egingo dute. Bergarako taldeak *Amnesia eta argia* diskoa aurkeztuko du. Kontzertuaren ostean Txapa Irratiko DJek emanaldia egingo dute. Sarrerak, bost euro.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.



**ARAMAIO 'Barikuak Sastiñan'**
Ekaineko egubakoitzetan kontzertuak egongo dira Sastiñan. Esku artean duten egitarauan Arrasateko eta Aramaioko musikariak dira protagonista. Lehen emanaldia Jon Gartzia del Val Quartet talde arrasatearrak egingo du. Ondorengo hiru egubakoitzetan, Aramaioko musikarien txanda izango da.
Gaur, egubakoitza, Sastiñan, 20:00etan.

# NON-ZER

EKAINA 05
EKAINA 11

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

## MUSIKA

**ARETXABALETA Gitarra eta konbo emanaldia**
Leizarra musika eskolakoak.
Gaur, egubakoitza, Arkupen, 18:00etan.

**ARETXABALETA Bandaren emanaldia**
Musika eskolako bandaren emanaldia, *7x7* delako ekimenaren barruan.
Gaur, egubakoitza, Arlutz osteko kantxan, 19:00etan.

**OÑATI Sukarra 37 eta Gatazka taldeak**
Sarrerak, bi euro.
Gaur, egubakoitza, Arkupen, 18:00etan.

**BERGARA Udaberriko kontzertua**
Txistulariek, trikitilariek eta dantzariek herriko kaleetan zehar kalejira egingo dute.
Bihar, zapatua, kalerik kale, 13:00etan.

**ARETXABALETA The Skargas, Fly Shit eta Drop taldeak**
Presoekiko elkartasun eguneko kontzertua. Sarrera, doan.
Bihar, zapatua, Mitarte plazan, 18:00etan.

**BERGARA Orfeoi Gaztea**
Bergarako Orfeoi Gaztearen kontzertua. Sarrerekin jasotako dirua Stoltz-Freres organoa eraberritzera bideratuko dute.
Etzi, domeka, Mariaren Lagundian, 19:00etan.

**OÑATI Gibelurdinek taldea**
Euskal musikako tresnak erabiliz, askotariko musikak joko dituzte. Sarrerak, lau euro.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

**BERGARA Issuo Sassia, Pelax eta Cowboys Orchestra taldeak**
Gaztetxearen urteurreneko ospakizunetako kontzertua.
Etzi, domeka, gaztetxean, 19:00etan.

**ARETXABALETA Haize-instrumentuak**
Leizarra musika eskolako ikasleen emanaldia.
Ekainaren 9an, Arkupen, 19:00etan.

**ARETXABALETA Rakoto Trio taldea**
*7x7* ekimenaren barruan.
Ekainaren 10ea, Mitarte kalean, 19:00etan.

## ERAKUSKETAK

**OÑATI 'Baserriko tresnak'**
Askazubi baserriko Joxe Lizaurrek eskuz egindako tresnak.
Ekainaren 14ra arte, kultura etxean.

**ARETXABALETA Eskulan ikastaroko lanak**
Rosa del Aguilaren ikastaroan egindako lanak.
Ekainaren 19ra arte, Arkupen.

**BERGARA Juan Luis Goikolearen pinturak**
Arrasateko margolariaren lanak.
Ekainaren 14ra arte, Aroztegi aretoan.

**ELGETA 'Izarren azpian'**
Eider Iturriagaren argazkiak.
Ekainaren 21era arte, Espaloian.

**OÑATI 'Ukerewe: la isla olvidada'**
TAU Fundazioaren eta Arantzazuko Adiskideak erakundearekin.
Ekainaren 7ra arte, Gandiaga topagunean.

**ARRASATE 'Dinbi, danba, mailuaren hotsa'**
Bixente Barandiaranen lanak eta burdinaren kulturak herrian izan duen eragina.
Harresi aretoan ikusgai.

## OSPAKIZUNAK

**ARRASATE Herri Eskolaren jaia**
Ikasturte amaierako jaia egingo dute Biteri plazan eta Zaldibar



ORGANIKDANTZA.COM

**ARRASATE 'Txapeldun': musika, hitzak eta umorea bat eginda**
Hamar urte bete dituen Organik taldeak Kepa Junqueraren laguntza du azken ikuskizunean. Taldea definitzen duten tresnak erabiliko dituzte oholtza gainean: musika originala, hitzak eta umorea. Sarrerak, hamar euro.
Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 19:30ean.


GOIENA

pilotalekuan: ipuin kontalaria, magia ikuskizuna, zirku tailerra...
Gaur, egubakoitza, aipatutako lekuetan, 17:00etan

**ELGETA Kuadrillen Eguna**
Egun osoko egitaraua: gisatu lehiaketa (10:30), sari banaketa (14:30), herri bazkaria (14:30) eta dantzaldia Haitzama taldearekin (17:30).
Bihar, zapatua, Elgetan, 10:30ean.

**ARETXABALETA 'Elkartuz Herrira'**
Egun osoko egitaraua: bolo txapelketa (11:00), triki-poteoa (13:00), haur eta gaztetxoen bazkaria (14:00), helduen bazkaria (14:30), eta rock kontzertuak.
Bihar, zapatua, Urbaltz elkartean, 11:00etan.

**ARETXABALETA Joste Eguna**
Hainbat ekintza egingo dituzte: 12:30ean giza-oihal katea Mitarte kaletik Herriko Plazara eta 13:00etan zapiak josiko dituzte Gu Haziak Gara elkartekoekin. Bukaeran, erabakitzeko eskubidearen aldeko olatua egingo dute.
Bihar, zapatua, Herriko Plazan, 12:30ean.

**ESKORIATZA Ferixie**
Askotariko ekitaldiak egingo dituzte.
Bihar, zapatua, Eskoriatza, egun osoan.

**BERGARA 'Domeka azoka'**
Elkartrukea, berrerabiltzea eta artisautza sustatzeko merkatua egingo dute.
Etzi, domeka, San Martin plazan, 11:00etan.

## JAIAK

**BERGARA Otaba jaiak Elosuan**
Askotariko ekintzak egingo dituzte aste bukaeran Elosua auzoan. Epelde eta Lutxurdio trikitilariek girotuko dute auzoa zapatuan eta domekan.
Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, Elosuan.

## HITZALDIAK

**BERGARA Medikuntza tradizionala eta sendabelarrak**
*Ubera Natura* zikloaren barruan hitzaldia egingo dute Itziar Egidazuk eta Irune Arangurenek. Medikuntza tradizionala eta sendabelarrak nola bateratu azalduko dute. Adibide praktikoak ere ipiniko dituzte.
Bihar, zapatua, Ubera auzoan, 11:00etan.

**ARRASATE Nikaragua hizpide**
*AMSOGRA, 15 urte Nikaraguan* delako hitzaldia egingo dute hango egoeraren berri emateko.
Ekainaren 10ean, Kulturaten, 18:30ean.

## BERTSOLARITZA

**ARETXABALETA Bertso musikatuak**
Gazte Ekimenaren eskutik Oskar Estangak bertso musikatua egingo du, Lekaixoka bertso eskolakoen laguntzarekin.
Gaur, egubakoitza, udaletxe zaharrean, 19:30ean.

## IKUS-ENTZUNEZKOA

**ARETXABALETA 'Jostunak'**
Gure Esku Dagoren ikus-entzunezkoa Bergarako gaztetxearen urteurrenean.
Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 18:00etan.

## BESTELAKOAK

**ANTZUOLA Bakarrizketa**
Barry Mauleyk bakarrizketa saioa egingo du.
Gaur, egubakoitza, Aitz Garbi tabernan, 23:30ean.

**OÑATI Protokoloen artxibora bisita**
Artxiboen Nazioarteko Eguna ospatzeko, ate irekien jardunaldia egingo dute Oñatiko Sancti Spiritus unibertsitatean dagoen Gipuzkoako protokoloen artxiboan. Bisita gidatuak egingo dituzte herritarrendako.
Etzi, zapatua, egun osoan.

**ELGETA Bisita gidatua lubakietara**
Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan hasi eta *Intxortako atea*-raino joango dira. Aldez aurretik eman behar da izena: 943-79 64 63 telefonoan edo *turismo@debagoiena.eus*-en.
Etzi, domeka, Espaloian, 10:00etan.

**BERGARA 'Kafe konpon'**
Apurtutako etxetresnak eta bestelako objektuak konpontzeko saioa egingo dute erretiratuen elkartean.
Ekainaren 10ean, San Joxepen, 16:00etan.

## KIROLA

**ARRASATE Zaldibarko finala**
Dribling eta Aldatz taldeak nor baino nor gehiago.
Bihar, zapatua, Zaldibarren, 17:30ean.

**OÑATI Nazioarteko Lasterketa**
Antxintxiketan kirol elkartearen eskutik.
Bihar, zapatua, herriko kaleetan, 18:00etan.

**BERGARA Triatloi txikia**
Gaztetxoendako triatloia Antxintxika taldearen eskutik.
Bihar, domeka, Agorrosinen, 09:00etan.

## ANTZERKIA

**BERGARA 'Hazparneko anderea'**
Telesforo Monzonek idatzitako lana taularatuko dute.
Gaur, egubakoitza, Zabalotegin, 22:00etan.

## LEHIAKETA

**BERGARA 'Bergara Hiria' argazki lehiaketa**
Lehiaketa gaia librea da eta *Argizaiola* lehiaketarako baliagarria. Zuri-beltzean edo koloretan aurkez daitezke, gehienez ere launa erretratu. Lanak aurkezteko epea ekainaren 10ean bukatzen da. Erabakia ekainaren 13an hartuko dute. Ostean, erakusketa egingo dute lan onenekin.
Lanak aurkezteko azken eguna, ekainaren 10a.



**Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!**



Santa Ana Jatetxeko alkatxofak saltsan baba txikiekin.

puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU: *943 25 05 05* edo ***Puntua.eus*** edo *Whatsapp: 688 69 00 07*

goienakluba

goiena

2015-06-05

BUKATZEKO

# Birraitona oñatiarraren aztarnen bila

- Argentinako Chacabucotik etorri da Carlos Txintxurreta senideren bat topatzeko gogoarekin
- Euskaldunen Lagunen Taldeko presidentea da eta 'iGora vasco!' filma ezagutzera ematen dabil

**MIRARI ALTUBE** | OÑATI

Birraitona oñatiarra zuen Carlos Txintxurreta Iparragirre argentinarrak (Buenos Aires, 1947) eta haren aztarnen bila etorri da Argentinako Chacabuco herritik Oñatira. "Haren hilobia ikusi gura nuen loretxo batzuk uzteko eta oinordekoren batekin egon, badakit-eta hemen senideren bat izango dudala", jakinarazi du. Francisco Julian Txintxurreta Aiastui izan zen haren birraitona, 1840an jaioa eta San Migel parrokian bataiatua. "Samur topatuko ditudala haren berriak esan didate".

Lehenengoz etorri da Euskal Herrira eta txundituta geratu da Oñatirekin: "Benetan zoragarria da herria, eta jendeak harrera bikaina egin dit". Eta ilusio handia egingo lioke lehengusuren bat topatzeak: "Nire familiaren sustraiak topatzea da asmoa, gogo hori ase gura dut; nondik gatozen jakin eta seme-alabei eta ilobei jakinarazi. Era berean, familia berri bat deskubritu Euskal Herrian". Eta familia berri hori Argentinara gonbidatzeko ere gertu dago. Inork harremanetan jarri gurako balu, hona haren posta elektronikoa: *Carloschinchurreta@hotmail.com*.



Patricia Tamayo, Carlos Txintxurreta eta Luis Aranburu, Oñatiko plazan. | T. MADINA

**Euskaldunen Lagunen Taldea**

Hamalau euskal abizen ditu eta euskalduna sentitzen da: "Euskaldun peto-petoa", dio, inolako zalantza barik. Eta euskaraz ikasten hasita dago. "Orain dela hilabete hasi nintzen, eta goiz da ezer esateko. Baina datorren urtean itzultzen naizenerako euskaraz ondo moldatu gurako nuke", esan du itxaropentsu.

Euskaldunen Lagunen Taldeko presidentea da Txintxurreta: "Talde zabala da eta euskaldunez gain daude paraguaiarrak, frantsesak, poloniarrak... Kulturen eta tradizioen elkartrukea sustatzen dugu; hortaz, euskaldunek sortutako elkartea da, baina guztiei irekia".

**'iGora vasco!' filma**

*Mundo Vasco* aldizkariko zuzendari Luis Aranburu eta Gasteiztik aldizkari horretan lan egiten duen Patricia Tamayo ditu lagun Txintxurretak Euskal Herriko bisitan. Roberto Arizmendik egindako *¡Gora vasco! (Milonga de temple y carretilla)* filma erakustera etorri dira. Guillermo Isidoro Larregi Ugarte nafarraren istorioa jaso dute film horretan, *Karretilladun euskalduna* deitzen zioten iruindarrarena. Iruñetik 15 urterekin irten eta Patagoniara 1919an iritsi zen. 50 urte zituela apustu egin zuen gurdi bat esku artean hartu eta 3.000 kilometro baino gehiago egingo zituela Argentinan zehar. Hori bete bakarrik ez, 20.000 kilometrotik gora ibili zen oinez.

Gasteizen emango dute film hori ekainaren 11n, Florida zineman, eta Iruñean ekainaren 13an. Ekainaren 19an itzuliko da Argentinara Txintxurreta, baina "datorren urtera arte" esanda.

AZKEN BERBA

**IDOIA ETXEBERRIA**



## Planeta elikatzen

Bilbon McDonald's kendu dutela esan zidan lagun batek. Ez zeukala arrakastarik.

Logikoa iruditu zitzaidan. Eta pozgarria.

Donostian Burger King jarriko dutela jakin dut aste honetan. McDonald's-en parez pare. Non, eta Kutxa Boulevard aretoan. 450 metro koadro, hiru solairu. 25 erakusketa antolatzen zituzten urtero. Interesgarriak, debalde. Banuen joateko ohitura. Saldu egin dute.

Protestarik ez da egon, nik dakidala. Milanen bai. McDonald's kateak harrotu ditu hautsak. *Planeta elikatu. Bizitzarako energia* du goiburua nazioarteko Expo 2015 erakusketa erraldoiak. Eta pabiloietako bat pailazoarena da. Bazkalorduan jende gehien erakartzen duena, gainerakoak garesti iruditita.

Interneten begiratu dut. 24 McDonald's daude Euskal Herrian. Eta 15 Burger King baino gehiago. Ez dut Bilboko itxieraren albisterik aurkitu... baina bai Abadiñoko berri.

2013ko abenduan manifestazioa egin zuten, bi multinazional horien kontra. Biek saltokiak jarri nahi zituztelako han. Leloa: *Zabor janik ez. Zabor kontraturik ez.* Alferrik. Ireki egin zituzten.

Arrakasta izango ote dute? Ez dakit jakin nahi dudan.



ADITUAK IGOGAILUAK INSTALATZEN ETA ZERO KOTARA JAISTEN

ERAIKUNTZAK ETA BIRGAITZE-LANAK
PROIEKTUAK, BARNE DISEINUA,
ITE, CEE...
LOKAL ETA ETXEBIZITZEN ZAHARBERRITZEA
FATXADAK ETA ESTALKIAK
ENERGIA ERAGINKORTASUNERAKO SOLUZIOAK
GILTZA ESKURA ERAKO PROIEKTUAK
AURRETIAZKO AZTERKETAK KOSTURIK GABE

IGO ERAIKIN PROJECTS

www.igosl.com
943798864
696159959

ELKANO kalea, 3 20500 ARRASATE